

EUSKARA eta GAZTEAK Lasarte-Orian IV

30 urte eta gero, zer?

Miren Artetxe Sarasola



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian (IV)

30 urte eta gero, zer?

Miren Artetxe Sarasola

Egilea:
Miren Artetxe Sarasola

Argitaratzailea:
Lasarte-Oriako Udala. Euskarako batzordea.
© Lasarte-Oriako Udala, 2023

Inprimatzailea:
antza, komunikazio grafikoa - Lasarte-Oria

ISBN: 978-84-09-52331-3
Lege-gordailua: D 00265-2023

Lasarte-Orian, 2023ko maiatzean

Esker onak

Eskerrak eman nahi dizkiot, lehendabizi Iñaki Arruti Landari eta Maite Zipitria Agirrezabalari, ikerketa hau egiteko aukera eta ardura eskaini izanagatik. Eskerrak, baita ere Juanito Bereziartua Iraolari, egindako lan tekniko eta ez hain teknikoengatik.

Eskerrak baita ere Joxemari Iraola Aranzadiri, ikerketa honen lehen edizioaren egile izateagatik ezezik, aurtengo edizioan ere ikerketa kuantitatiborako azterketa eta ustiaketa estatistikoak egin izanagatik, datuekiko zorrotasunez eta nirekiko pazientziarekin. Iker Artetxe Mendizabali eta Patricia Prieto Juani ere mila esker, inkestak banan bana egiteagatik. Eta eskerik asko, azkenik, Jone Miren Hernández Garcíari, ikerketa hau egiteko behar izan ditudan tresnak eskuratzeko beharrezko izan dudana ibilbidean bidelagun izateagatik.

Lan honi era batera ala bestera hobekuntza oharrak egin dizkietenak ere lan honen parte izan dira. Eskertuta gera bitez, beraz, Pello Jauregi Etxaniz, Jone Miren Hernández García eta Iñaki Arruti Landa (berriz), eta NOR ikerketa taldeko kide diren Ainara Santamaría Barinagarrementeria, Beatriz Narbaiza Amilietegi, Josu Amezaga Albizu, Samara Velte Moran eta Agurtzane Elourdi Urkiza.

Eskerrak baita ere, nola ez, ikerketa honen oinarri diren datuak borondatez eskaini dituzuen inkestatuei eta talde eztabaidetan parte hartu duzuen gazte guztiei ere.

Aurkibidea

ABIAPUNTUA: Ikerketaren kokapen metodologikoa.....	11
ZATI KUANTITATIBOA.....	14
ZATI KUALITATIBOA.....	15
I. ATALA: Hogeita hamar urteko hizkuntza-bilakaera datutan (1992-2022).....	17
SARRERA	19
GAITASUNA, ERABILERA ETA ATXIKIMENDUA: DATU OROKORRAK.....	20
EUSKARAREN PRESENTZIAK BEHERA, NABARMEN.....	20
EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA.....	21
EUSKARAREN ERABILERA LAGUN EUSKALDUNEKIN.....	24
EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA.....	26
GAITASUNA, ERABILERA ETA ATXIKIMENDUA, ADIN MULTZOKA.....	29
13-14 URTEKOEN AZPIMULTZOA	30
15-18 URTEKOEN AZPIMULTZOA	31
19-25 URTEKOEN AZPIMULTZOA	32
ZENBAIT GOGOETA OROKOR ADINKAKO DATUEZ	33
ADINKIDEEKIN ZEIN HELDUEKIN ERABILITAKO HIZKUNTZA	35
GAZTEEN INGURUNEAK: ETXEA, ESKOLA, AISIALDIA ETA LAGUNARTEA.....	38
ETXEKO HIZKUNTZA PAISAIA.....	38
ESKOLAKO INGURUNEA.....	43
AISIALDIA.....	46
LAGUNARTEA ETA SARE SOZIALAK.....	50

HIZKUNTZA EGOERAREN PERTZEPZIOA, NAZIO IDENTITATEA ETA HIZKUNTZA POLITIKEI BURUZKO IRITZIAK	55
EUSKARAREN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOAK	55
HIZKUNTZA POLITIKEI BURUZKO IRITZIAK	61
HIZKUNTZA ETA NAZIO IDENTITATEAK	64
ZENBAIT HARI-MUTUR AIREAN	68
ZENBAIT IDEIA BERRARTUZ	68
ZENBAIT KORRELAZIO	70
ETXEKO HIZKUNTZAREN ERAGINA	71
NAZIO IDENTITATEAN ARRAKALA	74
GAITASUNA GAKO, ORAINDIK	75
II. ATALA: Zer diote gazteek?	77
SARRERA	79
EUSKARAREN BURBUILA	80
HIZKUNTZA (OHITURA) ALDAKETAK	82
EGUNEROKO HIZKUNTZA ALDAKETAK ETA TENTSIOAK	82
HIZKUNTZA ALDAKETAK ETA MUDANTZAK NERABEZAROAN	84
Nork bereari eusten. Gaztelaniari erraz, euskarari nekez	84
“Ez dakit zeatik baina, bai”. Konturatu gabeko aldaketak	85
Eskola erdalduna vs. Euskalduna	87
Guaia/ez guaia. Markatua/ez markatua. Zaila/erraza	88
Euskara eskolako hizkuntza	90
HELDUAGOTAN... MUDANTZA GEHIAGO	93
Euskarara buelta, euskarari heldu.	93
“Aditzak eta, pentsatu egin behar”. Deserosotasuna eta legitimitate falta.	96
NATURALIZAZIOAREN DISKURTSOAK	99

KULTUR KONTSUMOA ETA SARE SOZIALAK.....	104
GIROAK, ESTILOAK, AISIALDIA ETA TABERNAK.....	107
KUADRILLAK ETA AISIALDIA.....	107
HEZKUNTZA EZ FORMALA GAKO.....	108
LOKALA VS. TABERNA	109
HARLEM VS. MUGARRI	110
JURRUAK, FEMINAZIAK, ETA VIVA ESPAÑA.....	114
KONTZIENTE GARA, BAINA.....	118
EGUNERO, DENA OKERRAGO... ..	118
EUSKALGINTZA URRUTI ETA KALEA GALDU.....	120
ZENBAIT GOGOETA ILDO	123
AISIALDIA ETA GAZTE KULTURA GAKO.....	123
KOMUNIKABIDE/KULTUR KONTSUMO ALDAKETAK BELAUNALDI ARTEKO ARRAKALA?.....	124
HIZKUNTZA OHITURA ALDAKETARAKO AUKERAK	126
HIZKUNTZA IDEOLOGIEZ ETA DISKURTSO EZ.....	128
AURRERA BEGIRA ZER?	130
ERREFERENTZIAK.....	133



ABIAPUNTUA

lkerketaren kokapen metodologikoa

Liburuxka honetan biltzen direnak 2021 eta 2022 artean egindako ikerketa baten emaitzak dira. Ikerlana Lasarte-Oriako Udalaren euskara zerbitzuaren eskutik egin da, udalerriko gazteen hizkuntza-portaera aztertzeke asmoz. 30 urte joan dira lehen aldiz Lasarte-Oriako gazteei begira halako ikerketa bat egin zela, eta soka luzea ekarri du gazteen hizkuntza portaerak aztertzeke lehen ekimena izan zen hark. Duela 20 urte egin zen bigarrena, 2002an, eta hamar urte beranduago, hirugarrena. Esku artean duzuen, beraz, ikerketa ildo sendoa suertatu den honen laugarren alea duzue.

Ikerketa metodologiari dagokionez, lan honek bi atal ditu, bata kuantitatiboa eta bestea kualitatiboa. Teknika kuantitatiboan bidez lortutako emaitzak zenbagarriak eta neurgarriak izaten dira. Eta metodologia honek lagin batetik jasotako datuak orokortzeke aukera eskaintzen du. Hala, lan honetan, galdetegi bidez egin da ikerketa atal kuantitatiboa.

Atal kualitatiboan, bestalde, talde eztabaidak burutu ditugu. Egoera bat edo fenomeno bat sakontasunean aztertzeke eta errealitatearen konplexutasunean barneratzeko izaten dira baliagarri teknika kualitatiboak. Izan ere, inkesta bidez lorturiko emaitzek egoeraren argazki bat osatzeko balio diguten arren, ez digute gazteek beraiek sentitu, pentsatu eta bizi dezaketenari buruzko informaziorik ematen. Aldiz, gazteekin egindako talde eztabaiden bidez, gertatzen diren hainbat fenomenori buruzko informazio xeheagoa eta sakonagoa lor liteke, eta hobeto ulertu, azken batean, zein zentzu duen haientzat hizkuntza bat ala bestea erabiltzeak, alegia, zergatik duten duten hizkuntza portaera.

Hurrengo lerroetan duzue zati kuantitatibo zein kualitatiboetan erabilitako tekniken eta prozeduren berri.

ZATI KUANTITATIBOA

1992tik hona egindako lau ikerlan hauek hiru hamarkada aztertzeke ahal bezain egokiak izan zitezten eta urte batetik besterako datuak parekagarriak, ikerketa bakoitzak izan du alde kuantitatibo bat, gehien gehienez galdera berberetara osatutako inkesta baten bidez garatu dena. Horrek Lasarte-Oriako gazteen zenbait ezaugarri zein joera eta hauen bilakaera modu aski gardenean aztertzeke aukera eman digu.

Hala, edizioz edizio egin den bezala, honetan ere galdera batzuk egokitu dira, beste batzuk gehitu, eta beste batzuk kendu, baina, funtsean, edizioz edizio jarraikortasuna izan duen inkesta izan da oinarri.

Metodoa: Zoriz aukeratutako lagin bati egindako aurrez aurreko inkestak

Data: 2021eko urriaren 1etik azaroaren 30era bitartean

Unibertsoa: Lasarte-Oriako udalerriko 13tik 24ra bitarteko gazteak (2.178 gazte orotara)

Laginaren tamaina: 200 gazte

Konfiantza-tartea

% 95

Errore-tartea: % 6,6

Lagina geruzaka banatuta

	<i>Unibertsoa</i>	<i>Lagina</i>	<i>Errore-tartea</i>
13-14 urte	373	33	% 16,31
15-18 urte	792	73	% 10,94
19-24 urte	1013	94	% 9,63

Oharrak

Lagin erreala lagin teorikoaren %100koa izan da (lagin teorikoa: 200 ale; lagin erreala: 200 ale). Inkestatu titularren kopurua (147 gaztek) lagin errealaren %73,5 izan da. Intzidentziaren bat agertu dutenetatik %26,5a (47 gazte) ordezkatzeko aukera izan da. Laginean egindako hiru geruzei dagokienez, honako datu hauek ditugu:


	<i>Lagin errealaren portzentajea lagin teorikoari buruz</i>	<i>Titularren kopurua</i>	<i>Ordezkoen kopurua</i>
13-14 urte	% 100	% 13,5	% 3
15-18 urte	% 100	% 28	% 8,5
19-24 urte	% 100	% 32	% 15
Guztira	% 100	% 73,5	% 26,5

Talde eztabaidak

Talde eztabaidak, funtsean, datuak sortzeko elkarrizketa kolektiboak dira. Talde eztabaidak erabiltzeak onura ugari ekarri ohi dizkie gizarte-zientzien arloko ikerketei. Teknika bereziki baliagarria da pertsonen ezagutzak eta esperientziak eta partaideek hauei buruz egiten dituzten irakurketak interakzio-giroan aztertzeko, eta parte hartzaileek zer eta zergatik pentsatzen duten aztertzeko. Taldean jarduteak eztabaida errazten du eta parte-hartzaileak deserosotzat jotzen diren gaiei buruz hitz egitera eta iritzia ematera bultzatzen ditzake. Izan ere, haien arteko kohesio-sentsazioa areagotuz, informazioa partekatzen seguru sentitu daitezela bilatzen da. Elkarren artean elkarrizketan jarritik, partaideek bat-bateko erantzun eta erreakzioak izan ohi dituzte talde eztabaidetan. Hala, ondo bidean, haien artean gertatzen diren hitzezko elkarrekintzen bidez, banakako elkarrizketa bidez nekez lortuko genituzkeen datuak jaso ahal izaten dira.

Talde eztabaiden osaketari buruz

Lau talde eztabaida egin dira 2022ko martxoan; bana 13-14 eta 15-18 adin tartean, eta bi 19-24 urte bitartekoetan. Talde bakoitzean gutxienez 4 eta gehienez 10 gaztek hartu dute parte, eta lau talde eztabaidatan guztira 25 lagunek hartu dute parte (15 neska eta 10 mutilak)¹.



Eztabaida talde baten osaerak ez du populazio baten irudikapen estatistikoa lortu nahi. Inkesten helburua da lagin baten datu zehatzak bilduz datu horiek populazio handiagoetara orokortu ahal izatea. Eztabaida talde baten helburua, aldiz, fenomeno jakin bati edo batzuei buruzko ulermen sakonagoa lortzea da- kasu honetan, gazteen eguneroko praktikak, hizkuntza ohiturak eta hizkuntzen erabilerari buruzko diskurtsoak aztertu nahi izan dira-. Horretarako, aukeratutako fenomenoari buruzko ahal bezain informazio zehatza emango duten intentziorako lagin bat osatzen da, ahalik eta eztabaidarik emankorra sortzeko duten parte-hartzaileak hautatuz. Kasu honetan, hasera bateko intentzioa hizkuntza erabilerari profil ezberdinak zituzten gazte osatutako talde eztabaidak diseinatzea bazen ere, ez dugu halakorik lortu, talde eztabaidetan parte hartuko zuten gazteak aurkitzeko zailtasunak zirela eta.

¹ 13-14 urte bitarteko 10 lagun (9 neska eta mutil bat), 15-18 urte bitarteko 5 lagun (4 neska eta mutil 1), eta 19-24 urte bitarteko 10 (7 mutil eta 3 neska).

Talde eztabaidak osatzeko ausazko laginketa bateko partaideak aurkitzeko zailtasunak ekarri du parte-hartzaileen artean halako kera bat²: eztabaida taldeetara hurbildu direnetako batzuk euskararekiko atxikimendu altua dutelako eta bestela ere euskararen inguruko talde eta ekimenetan parte hartzen dutelako hurbildu dira (eskolako euskara batzordeetako kideak, 15-18 urte bitartekoen kasuan, edo euskal kutsuko taberna-giroan ibili ohi diren gazteak, batez ere, 19-24 urte bitartekoen artean). Esan bezala, haserako asmoa talde heterogeneoak osatzea bazen ere, beraz, talde batzuetan (zaharrenen taldeetan, batez ere), gehienbat euskaraz bizi diren gazteen testigantzak jaso dira, nagusiki³.

2 Ausazko laginketa bat erabilia kontaktatu ziren gazte gehienek ezezkoa emanik, metodo ezberdinak jarri genituen martxan talde eztabaidak osatzeko. 15-18 eta 19-24 urte bitartekoetan, Lasarte-Oriako bertako gazte batzuei eskatu zitzaizen laguntza. Hala, elur bolaren teknika erabiliz (alegia, batak beste bati esan, honek hirugarren bati, eta horrela, taldea osatu arte) lortu ziren talde elkarrizketarako beharrezko partaideak. 13-14 urte bitarteko gaztetxoen kasuan, eskola bidez ere kontaktatuak izan ziren hainbat. Lasarte-Oriako Oriarte ikastetxeko DBHko 3 eta 4. mailako ikasleekin harremanetan jarri ginen gelaz gela igaroz, eta hala egin genuen parte hartzaile batzuekiko lehen kontaktua. Adin tarte honetako talde eztabaidak izan ziren ausazko laginketatik kontaktatutako partaide gehien izan zituztenak.

3 Ez da erabat zuzena "talde eztabaida" kontzeptua erabiltzea gure ikerketako talde elkarrizketa guztiak izendatzeko. Izan ere, "talde eztabaida" nozioak Jesús Ibañez-en planteamenduei egiten die erreferentzia (Ibañez, 1992), eta Ibañezek teknika metodologiko honen zedarritze aski zehatza egiten du. Hala, gure ikerketan badira bi baldintza zedarritze horretatik kanpo utziko lituzkeenak gure talde elkarrizketak. Batetik kopuruak leudeke, eztabaida talde batean 8-10 lagunek hartu behar dutelako parte (eta guk lau lagunekin egin dugu gure elkarrizketetako bat). Bestetik, elkarrizketetan parte hartu duten gazte batzuek aurrez ezagutzen dute elkar eta egunerokotasuneko harremana dute (eta talde eztabaida klasiakoetan ezin da horrelakorik gertatu). Horren jakitun, talde eztabaida izendapena erabiliko dut, dena den, gure ikerketaren haserako diseinu metodologikoak, unean uneko elkarrizketak gidatzeko moduak eta ondorengo analisirako teknikak bat egiten dutelako, hein handi batean, talde eztabaiden teknika erabilia egin ohi diren ikerketa lanen moldeekin.



LEHENENGO ATALA

HOGETA HAMAR URTEKO
HIZKUNTZA-BILAKAERA DATUTAN
(1992-2022)

SARRERA

.....

Lehenengo atal honetan, ikerketa honen lau edizioetan inkesta bidez lortutako emaitzak konparatuko dira. Hartara, Lasarte-Oriako gazteen hizkuntza gaitasuna, erabilera eta atxikimenduan izan den garapena aztertuko dugu, alde batetik. Bestetik, gazteen bizitzako esparru ezberdinetan (etxean, eskolan, aisialdian eta lagun artean) euskararen erabileran izan diren aldaketak ere ikusi ahal izango ditugu. Eta azkenik, hiru hamarkadotan gazteek euskararen egoeraz eta euskararekiko hartu beharreko neurriez dituzten iritziak ere nola eraldatu diren aztertuko dugu.

Alderaketa hau egiteko, 1992, 2002, 2012 eta 2022ko inkestetan errepikatzen diren galderak hartuko ditugu oinarri. Ohar gisa, esan dezagun 1992tik aurrerako inkestetan hainbat aldaketa egin zitzaizkiola galdetegiari, eta horren ondorioz zenbait datu konparatzeko azken hiru edizioetako datuak baino ez ditugula izango. Gainerakoan, ia oso-osorik erka daiteke datuen corpusa, eta horri esker hiru hamarkadatan gertatutako hainbat aldaketen zein jarraikotasunen berri modu aski zehatzean eman ahal izango dugu.

Hala, atal honetan hogeita hamar urteotako Lasarte-Oriako gazteen joera soziolinguistikoaz ikuspegi ahal bezain osoa eskainiko dugu, beraz.

Pello Jauregik 2002ko eta 2012ko ikerketetan erabili zuen irizpide bera erabiliko dugu edizio honetan ere daturik esanguratsuenak bestelako datuetatik bereizteko. Gure laginketak eta inkesta kopuruak baldintzatuta, eta gure errore-marjinaren jakitun, ezin dugu datuetan agertutako edozein aldaketa fenomeno aipagarri baten seinaleztat izan. Hala, unibertso guztia aztertzerakoan 15 puntuko aldeak hartu ditugu fenomeno aipagarritzat. Adin tarte bakoitzean errore-marjina ezberdina izanik, 13-14 urte bitarteko kasuan 25 puntuko aldea hartu dugu aldaketa esanguratsuen erreferentziatzat eta 20 puntukoa 15-18 eta 19-25 adin tartekoentzat.

Jakitun gara datuak irakurtzeko modu zurrun honek arriskuak dituela, eta hainbat fenomeno aipatu gabe gelditu daitezkeela, gutxieneko horietara iristen ez direlako. Horregatik, gutxienez iristen ez diren baina errore-marjina gaintzen duten aldaketak eta joerak ere aipatu ditugu batzuetan, azpimarratuz balitekeela esanguratsuak ez izatea. Sinistu nahi dugu honek etorkizuneko ikerketetan begia non jarri erabakitzeko pistak eman ditzakeela.

GAITASUNA, ERABILERA ETA ATXIKIMENDUA:

DATU OROKORRAK

.....

EUSKARAREN PRESENTZIAK BEHERA, NABARMEN

Aurreko ikerketan bezalaxe, hogeita hamar urteotako bilakaerari lehen begiratu bat emateko aztertuko ditugun hizkuntza-adierazle nagusiak hiru hauek dira:

1. Euskarazko hizkuntza gaitasuna.
2. Euskaraz hitz egiteko ohitura.
3. Euskararekiko atxikimendua.

Adierazle horietako bakoitza konplexua izanik, batzuk zein besteak nahi bezain modu zehatzean neurtzea ez da erraza, eta neurketarako modu bat baino gehiago egon daitezke. Hori hala izanik, ikerketa honen emaitzak aurkezterakoan konplexutasuna ahalik eta modu sintetikoenean agertzeko saiakera egin dugu, horretarako adierazle bakoitza aurkezteko aldagai zehatzak aukeratuz.

Hala, euskarazko hizkuntza gaitasunaz aritzean “euskaraz hitz egiteko gaitasuna” aldagaia aukeratu dugu aldagai nagusitzat, eta, ondorioz, gainerako hizkuntza-gaitasunak bigarren planoan utzi ditugu (ahozko ulermena, idazmena eta irakurmena). Horretarako arrazoiak bi dira, nagusiki: alde batetik, euskaraz ongi hitz egiten duenak ulertu ere hala egingo duela pentsa liteke; eta bestalde, euskaraz ongi mintzatzen den gaztea alfabetatua ere badela pentsa daiteke, mintzamen maila ona dutela adierazi duten gehien-gehienek euskarazko eredu batean egin baitute derrigorrezko eskolaldia.

Hizkuntza-erabileraren neurri bezala, “kuadrillako lagun euskaldunekin erabilitako hizkuntza” hartu dugu aldagai nagusitzat. Aurreko ikerketan bezalaxe, batetik, lagunartea lehenetsi nahi izan dugu beste eremu batzuen aurrean, haurtzaroan ez bezala, gaztaroan gero eta gehiago baldintzatzen dutelako adinkideekiko hizkuntza ohiturek hitzunen hizkuntza portaera orokorra.

Euskararekiko atxikimendua neurtzeko, azkenik, gazteei gehien maite duten hizkuntza zein den galdetzean jasotako erantzunak hartu ditugu erreferentziatzat⁴. Hizkuntzarekiko lotura afektiboa da, azken batean, galdera horrek neurtzen duena.

4 2002 eta 20012ko ikerketetan galderaren formulazioa honakoa izan zen: “zein da zure hizkuntza kuttuna?”. Aurtengoan formulazioa aldatu dugu inkestatzaileak kuttuna kontzeptuaren inguruko azalpenik eman behar izan ez zezan.


Hala, hiru hizkuntza-adierazle nagusi hauek banan-banan aztertuz, Lasarte-Oriako gazteen argazki soziolinguistiko orokor bat osatzeko saiakera egin dugu atal honetan.

Orain dela 10 urteko ikerketan, ondorio argietako bat izan zen euskararen presentziak nabarmen egin zuela gora aurreko hamar zein hogeitau urteetako datuekin alderatuz. Hiru adierazle nagusietan gertatzen zen hori: euskaraz hitz egiteko gaitasunean, lagun euskaldunekiko euskararen erabileran eta euskararekiko jarreran. Azken datuek goranzko joera horren bukaera erakusten dute hiru faktoreetan, eta beheranzko joera erabileran eta jarreran.

EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	29,7	32,9	53,7	54,0
Nahiko ongi	13,3	30,5	32,1	32,0
Zertxobait	28,2	25,1	11,1	8,5
Hitz batzuk	23,1	9,6	1,9	4,0
Batere ez	5,6	1,8	1,2	1,5



Euskaraz hitz egiteko gaitasuna aztertuz gero, daturik deigarriena orain dela hamar urteko datuen eta oraingoan parekotasuna da.

Aurreko hamarkadetan, inkestatik inkestara datuek hobetzera egin zuten, koskaz koska. Euskaraz oso ongi eta nahiko ongi mintzatzen direnak euskaldun kategoria bakarrean batuta, ikus genezakeen 2002tik 2012ra %22,4 hazi zela Lasarte-Orian gazte euskaldunen kopurua. Kalkulu bera eginez 1992a abiapuntutzat hartuz gero, berriz, hazkundea % 42,8koa zen. 1992tik 2002ra bereziki egin zuen gora euskaraz nahiko ongi moldatzen zirenen proportzioak, eta 2002tik 2012ra berriz, euskaraz oso ongi mintzatzen zirenen proportzioak. Euskalduntzen zihoan gizarte baten argazkia zen.

Aurtengo datuei begiratuz gero, nabarmenena hazkunderik eza da, bai euskaraz oso ongi hitz egiten dutenak kontuan hartuta, eta baita euskaraz nahiko ongi moldatzen direnei begiratuta ere.

Aurreko datuekiko paraleloan, euskaraz erraztasunez hitz egiteko gai ez zirenen proportzioak⁵ nabarmen egin zuen behera 1992tik 2012ra: 1992an %56,9 ziren, 2002an %36,5 eta %14,2 2012an. Azken datuek erakusten dute azken hamar urteotan euskaraz moldatzen ez direnen proportzioak ez duela behera egin: gazteen %14 osatzen dute gaur egun.

Euskarazko gaitasunari buruzko datu xeheagoi begiratzen badiegu, alegia, ahozko zein idatzizko ulermen zein ekoizpenean izan den garapenari, berriz ere aldaketarik eza da daturik harrigarriena: 2022ko datuak 2012koen oso antzekoak dira.

Aldaketa azpimarragarri bakarra idatzizkoan gertatzen da, 13,1 puntuz igo baita idatziz oso ondo moldatzen direla diotenaren proportzioa, eta paraleloki 14,2 puntuz jaitsi nahiko ondo moldatzen direla diotenena.

Oro har, ahoz zein idatziz, 2012an bezala 2022an ere, ekoizpenean zein ulermenean, erdiak baino gehiago dira oso ongi moldatzen direla diotenak, eta 10etik 8 baino gehiago oso ongi edo nahiko ongi moldatzen direla diotenak.

5 Euskaraz zertxobait egiten dutenak, hitz batzuk dakizkitenak eta batere egiten ez dutenak batuta.

Ulertu

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	42,1	53,3	68,5	63,5
Nahiko ongi	19,5	27,5	25,9	25,5
Zertxobait	24,1	16,2	3,7	6,0
Hitz batzuk	11,8	1,8	0,6	3,0
Batere ez	2,6	1,2	1,2	2,0

Hitz egin

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	29,7	32,9	53,7	54,0
Nahiko ongi	13,3	30,5	32,1	32,0
Zertxobait	28,2	25,1	11,1	8,5
Hitz batzuk	23,1	9,6	1,9	4,0
Batere ez	5,6	1,8	1,2	1,5

Irakurri

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	42,1	52,7	59,3	55,0
Nahiko ongi	20,5	25,7	32,7	31,5
Zertxobait	17,9	18,6	6,2	7,0
Hitz batzuk	13,8	1,2	0,6	4,0
Batere ez	5,6	1,8	1,2	2,5


Idatzi

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	34,9	36,5	46,9	60,0
Nahiko ongi	22,6	34,1	40,7	26,5
Zertxobait	22,6	21,0	9,3	8,0
Hitz batzuk	15,4	6,6	1,9	3,0
Batere ez	4,6	1,8	1,2	2,5

EUSKARAREN ERABILERA LAGUN EUSKALDUNEKIN

Euskararen erabilera lagun euskaldunekin

	1992	2002	2012	2022
Beti euskaraz	12,7	20,4	38,3	25,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	10,8	9,6	14,2	9,0
Bietan berdin	20,6	12,0	10,5	15,0
Erdaraz euskaraz baino gehiago	27,5	16,2	13,6	21,0
Beti erdaraz	25,5	41,3	23,5	28,5
Bestelako erantzunak	0	0	0	1,0
EE/ED	2,9	0,6	0,0	0,5



- Beti euskaraz
- Bietan berdin
- Beti erdaraz
- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- Erdaraz euskaraz baino gehiago

Lagun euskaldunekin beti euskaraz egiten dutenak eta lagun euskaldunekin euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak batuta, lagun euskaldunekin euskaraz egiten dutenen kategoria osa daiteke. Kategoria hori kontuan hartuta, 2002tik 2012ra nabarmen hazi zen lagun euskaldunen arteko euskararen erabilera: 22,5 puntuz hain zuzen ere. (29 puntuz, 2012ko datuak 1992koekin alderatuz gero).

Hala, Lasarte-Oriako gazteek lagun euskaldunekin euskaraz aritzeko joera goranzkoa izan zen bi hamarkada horietan zehar. Paisaia aldatzen ikusi genuen hiru hamarkadaz: 1992an eta 2002an gehiago ziren lagunekin erdaraz egiten zutenak euskaraz egiten zutenak baino, eta hamarkada bat beranduago, gehixeago ziren lagunekin euskaraz egiten zutenak. Gainera, bereziki beti euskaraz egiteko ohitura zutenen artean gertatu zen hazkundera: % 17,9 gehiago ziren 2012an 2002an baino, eta % 25,6 gehiago 1992an baino.

Azken datuek, ordea, hazkunderik ez erakustez gain, beherakada bistaratzen dutela dirudi, bai beti euskaraz egiten dutenen artean eta baita euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenen artean ere. 13,3 puntuz egin du behera beti euskaraz ari direnen proportzioak, eta batik bat euskaraz egiten dutenei begiratzen badiugu (beti euskaraz egiten dutenak eta euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak kategoria berean batuz), 18,5 puntuz egin du behera.


Erdararako joerari dagokionez, aurreko hamarkadetako datuei begiratuta, beti erdaraz egiten zutenen kopurua parekoa zen 1992an eta 2012an (% 25,5 eta % 23,5, hurrenez hurren, nahiz eta 2002ko datuetan % 41,3koa zela ageri). Azken datuetan, beti erdaraz egiten dutenen proportzioa ordukoen nahiko parekoa da (%28,5). Hala, bi hizkuntzatan berdin edo batik bat erdaraz egiten dutenen proportzioak 17,2 puntuz egin du gora 2012tik hona.

2012ko ikerketan ikus zitezkeen aldibereko hazkundera gertatu zela, batetik, euskaraz oso ongi mintzatzen zirenen, eta bestetik, lagun euskaldunekin beti euskaraz hitz egiten zutenen artean. Nolabait, hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko barne-lotura edo koherentzia zantzuak izan zitezkeen horiek. Gaitasunaren eta erabileraren arteko lotura badagoela lehendik ere erakutsia zuen 2002ko ikerketak ere: edizio hartan ere ikusi ahal izan zen euskaraz mintzatzeko oso gaitasun ona zutenek oso joera handia zutela euskara erabiltzeko, horretarako baldintza egokiak zituztenean (lagunarte euskalduna izanez gero, esaterako). Alderantzizko eragina ere zaila litzateke ukatzen: euskara lagun euskaldunekin beti erabiltzen dutenek euskaraz hitz egiteko erraztasun edo gaitasun handia garatuko dute, lehendik ez badaukate. Ezagutzaren eta erabileraren arteko korrelazioa ez da, ordea, beti gertatzen. Badaude euskarazko gaitasun apala izanagatik euskaraz ahal bezainbat hitz egiteko saiakera egiten duten hiztunak, eta baita gaitasun handia izanagatik euskaraz hitz egiteko joerarik ez duten hiztunak ere. Aurtengo datuek azken kasua islatzen dute nagusiki: Lasarte-Oriako gazteen euskarazko gaitasuna orain dela hamar urtekoaren parekoa izanik ere, lagun arteko erabileran erdararanzko joera indartu da azken hamarkada honetan.

EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA

Hizkuntza kuttuna⁶

	2002	2012	2022
Euskara	22,2	39,5	17,0
Euskara gaztelania baino gehiago	12,6	8,0	11,0
Biak berdintsu	20,4	26,5	28,5
Gaztelania euskara baino gehiago	27,5	11,7	18,0
Gaztelania	15,0	9,9	20,5
Besteren bat	2,4	4,3	5,0



Gazteei haien hizkuntza kuttuna zein den edo hizkuntza kuttunak zeintzuk diren galdetuta, ikus dezakegu euskararekiko atxikimenduak gora egin zuela 2002tik 2012ra, eta azken hamar urteotan berriz egin duela behera.


⁶ Ez daukagu 1992ko daturik "hizkuntza kuttuna" aldagaiari dagokionez, eta, ondorioz, ezin dugu hogeita hamar urteko ikuspegia eskaini.

2002tik 2012ra bereziki hizkuntza kuttuntzat euskara soilik zutela adierazten zutenen kategorian gertatu zen igoera (17,3 puntuko hazkundera izan zen hamar urte haietan kategoria horretan). Denbora tarte berean, gaztelania euskara baino gehiago estimatzen zutela aitortu zutenen proportzioak 15,8 puntuz egin zuen behera.

Aurtengo datuek joera aldaketa erakutsi dute: hizkuntza kuttun bakarra euskara dutela erantzun dutenen proportzioak 22,5 puntuz egin du behera⁷ (%17) eta gaztelania soilik edo gaztelania euskara baino gehiago estimatzen dutela erantzuten dutenen proportzioak 16,9 puntuz gora. Hala, %38,5 dira euskararekiko baino gaztelaniarekiko atxikimendu handiagoa dutela diotenak eta %28 gaztelaniarekiko baino euskararekiko atxikimendu handiagoa dutela diotenak.

Pentsatzeko erabiltzen duen hizkuntza

	2012	2022
Beti euskaraz	25.9	13,5
Euskaraz erdaraz baino gehiago	12.3	8,5
Bietan berdin	11.1	18,0
Erdaraz euskaraz baino gehiago	18.5	23,5
Beti erdaraz	32.1	35,5
Besteren batean	?	1,0



⁷ Aldi berean, euskara gaztelania baino gehiago estimatzen dutela diotenek %3 egin dute gora.

Gauza bera gertatzen da pentsatzeko erabiltzen duten hizkuntzari buruz galdetuz gero. Azken hamar urteotan behera egin du erabat edo gehienbat euskaraz pentsatzen dutela adierazten duten gazteen proportzioak, eta gora, aldiz erabat edo gehienbat erdaraz pentsatzen dutela diotenenak.

2012an pentsatzeko euskara erabiltzen zutela erantzun zuen gazteen laurdenak, eta hauei euskaraz gaztelaniaz baino gehiago pentsatzen zutenak gehiturik, denera 38,2 ziren, batik bat euskaraz pentsatzen zutenak. 2022ko datuek besterik diote. 13,5 baino ez dira euskaraz soilik pentsatzen dutenak, eta hauei euskaraz gaztelaniaz baino gehiago pentsatzen dutenak gehiturik, gazteen %22k baino ez du batik bat euskaraz pentsatzen.

GAITASUNA, ERABILERA ETA ATXIKIMENDUA, ADIN MULTZOKA

.....

Adin tartekako hizkuntza gaitasunari, erabilerari eta atxikimenduari begiratuta, 2002ko azterketan datu deigarri bat nabarmendu zen: 13-14 urteko gazteek, beste adinetako gazteekin alderatuta (hots, 15-18 eta 19-24 urtekoen azpimultzoekin alderatuta), datu altuagoak erakusten zituzten bai euskarazko hizkuntza-gaitasunean eta baita hizkuntza-jokaeran ere. Kasualitatea ote zen ala izozmendi baten tontorra ote zen, ezin jakin orduan. 2012an, ordea, izozmendiaren hipotesia berretsi zen: 2002an gazteenen azpimultzoan ikus zitekeena beste adin azpimultzoetara hedatu zen. 2022ko datuei begiratuta, susmoa dugu izozmendia urtzen ari ez ote den.

Aurtengo datuek erakusten digute hizkuntza gaitasunari dagozkion datuak ez direla modu esanguratsuan aldatu: adin multzo guztietan erdiak baino gehiagok dio euskaraz hitz egiteko oso ongi moldatzen dela. Lagun euskaldunekiko hizkuntza erabilerari dagokionez, ordea, aldaketa nabarmena ageri da. Bi azpimultzo gazteenetan nabarmen egin du behera euskararen erabilerak: 13-14 urtekoen artean %6,1ek erabiltzen du beti euskara lagun euskaldunekin (%45 ziren 2012an), eta 15-18 urtekoen artean, berriz, %8,2k (%47,8 ziren 2012an). Aldiz, 19-25 urtekoen artean, %44,7k erabiltzen du beti euskara lagun euskaldunekin hitz egiteko (%28,9 izanik 2012an)⁸.


Jakinik orain dela 10 urteko ikerketan 13-14 urte zituztenak aurtengo ikerketan zaharrenen multzoan daudela, pentsa liteke azken hamar urteotan egiturazko aldaketaren bat gertatu dela, adin-talde horretakoak baino gazteagoak direnengan hain nabarmenki egiteko behera euskararen erabilerak. Aldaketa horrek joera egonkorra ote dakarren ala ez, etorkizuneko ikerketetako datuek esango dute.

8 Gogorazi behar dugu ikerketaren hutsune metodologiko nagusia adin tartekako errore tarteen zabaltasuna dela (%16,31 gazteenen tartean, %10,94 erdiko tartean eta %9,63 zaharrenen tartean). Atal honetan, beraz, aldaketek, aipagarriak izatekotan, lehen begi kolpean deigarriagoak izan beharko dute, aurreko atalarekiko alderatuz.

13-14 URTEKOEN AZPIMULTZOA

13-14 urte bitarteko euskarazko ezagutza, jokaera eta atxikimendua⁹

	1992	2002	2012	2022
Euskarazko gaitasuna	40,0	55,0	50,0	60,6
Lagun euskaldunekiko hizkuntza-jokaera	7,7	55,0	45,0	6,1
Hizkuntza kuttuna	?	25,0	40,0	9,1



Adin tarte honetan euskarazko gaitasunean nahiko datu onak ageri ziren 1992an, dagoeneko. Ordurako gazteenen %40k hitz egiten zuen oso ondo euskaraz. Urte hartatik 2002ra sekulako gorakada gertatu zen eta 2012an datuak antzekoak izan ziren. Aurtengo datuek ere ez dute jauzi izugarri nabarmenik erakusten 2002ko datuekiko.

Hizkuntza erabilerari begiratuta, 2012an dagoeneko 10 puntuko beherakada antze-man zen lagunartean beti euskaraz ari zirenen artean. Aurtengo datuek, beheranzko joera indartu dela bistaratu dute: 38,9 puntuz egin du behera lagunartean beti euskara erabiltzen dutenen proportzioak.


Atxikimenduari begiratzen badiogu, beste hainbeste esan dezakegu: 15 puntuko gorakada gertatu bazen 2002tik 2012ra, orduetik hona 30,9 puntuz egin du behera haien hizkuntza kuttuna euskara soilik dela erantzuten duten gaztetxoaren proportzioak.

⁹ Taula honetan eta ondoko bietan, aurreko ikerketetako irizpideari segi diogu, urtekako konparaketak egin ahal izateko. Aurreko edizioetan bezalaxe, beraz, ikuspegi sinple eta orokor bat eman asmoz, eskalako datu guztiak eman beharrean, eskala bakoitzaren koska gorenaren datua eman dugu: "euskarazko gaitasuna" aldagairako, "oso ongi mintzatzen da" maila jaso dugu; "lagun euskaldunekiko hizkuntza-jokaera" aldagairako, "beti euskaraz"; eta "Hizkuntza kuttuna" aldagairako, "euskara" soilik erantzun dutenen datuak jaso ditugu.

15-18 URTEKOEN AZPIMULTZOA

15-18 urtekoen azpimultzoa

	1992	2002	2012	2022
Euskarazko gaitasuna	37,8	26,9	60,9	50,7
Lagun euskaldunekiko hizkuntza-jokaera	13,0	11,5	47,8	8,2
Hizkuntza kuttuna	?	23,1	37,0	13,3



Gaztetxoenen artean euskarazko gaitasunean nahiko datu onak ageri baziren 1992rako, 15-18 urte bitartekoek kasuan 2012ko datuetan agertu zen gorakada nabarmena: %60,9k adierazi zuen orduan euskaraz oso ondo hitz egiten zuela. Aurtengo datuek ez dute beherakada nabarmenik erakusten orduko datuekiko.


Hizkuntza erabilerari begiratuta, 2012an, hizkuntza gaitasunean bezalaxe, gorakada gertatu zen adin tarte honetan lagunarteko euskararen erabileran: gazteen ia erdiak adierazi zuen lagunartean beti euskaraz hitz egiten zuela. Aurtengo datuek, aldiz, jaitsiera gertatu dela bistaratu dute adin tarte honetan ere: 39,6 puntuz egin du behera lagunartean beti euskara erabiltzen dutenen proportzioak.

Atxikimenduari begiratzen badiogu, gaztetxoenen joera berbera ikus dezakegu ertainen adin multzoan ere: 13,9 puntuko gorakada gertatu bazen 2002tik 2012ra, orduan hona 23,7puntuz egin du behera haien hizkuntza kuttuna euskara soilik dela erantzuten duten gaztetxoekiko proportzioak.

19-25 URTEKOEN AZPIMULTZOA

19-25 urtekoen azpimultzoa

	1992	2002	2012	2022
Euskarazko gaitasuna	23,0	31,6	51,3	54,3
Lagun euskaldunekiko hizkuntza-jokaera	12,2	17,9	28,9	44,7
Hizkuntza kuttuna	?	21,1	40,8	23,4



15-18 urte bitartekoek kasuan bezalaxe, zaharrenean artean 2002tik 2012ra gertatu zen gorakada nabarmena hizkuntza gaitasunean: ia 20 puntu egin zuen gora euskaraz oso ondo hitz egiten zutela adierazi zutenen proportzioak, erdia pasatxo izatera helduz. Aurten datuek ez dute ez gora ez behera egin: %54,3 dira euskaraz hizketan ederki moldatzen direnak.

Erabilerari erreparatzen badiogu, 2012an dagoeneko, hizkuntza gaitasunean bezalaxe gorakada gertatu zen: lagunartean beti euskaraz hitz egiten zuela esan zutenen proportzioa 11 puntu igo zen, ia herena izatera iritsiz. Eta aurtengo datuetan ere gorakada nabarmena gertatu da, gaztetxoagoen artean ez bezala: 15,8 puntu egin du gora lagunartean euskara baino erabiltzen ez dutenen proportzioak.


Atxikimenduari begiratzen badiogu, ordea, beste adin tarteetako gazteengan ikusi dugun joera bera ikus dezakegu helduenengan ere: 2002tik 2012ra 19,7 puntu egin bazuen gora euskara hizkuntza kuttun bakartzat zutenen proportzioak, ordutik hona 17,4 puntu egin du behera proportzio berdina.

Orain 19-25 urte dituztenek 2012an 13-14 edo 15-18 izan zitzaizkela jakinda, 2012ko inkestekin alderatu daitezke aurtengo datuak. Orduan, 13-14 urte bitartekoek artean %40 ziren hizkuntza kuttuna euskara soilik zutela adierazi zutenak eta 15-18 urte bitartekoek artean, berriz, %35,6. Badirudi, beraz, hizkuntza atxikimenduak behera egin duela denbora joan ahala gaur egun helduenen adin multzoan ditugunengan.

ZENBAIT GOGOETA OROKOR ADINKAKO DATUEZ


Hizkuntza gaitasunari dagokionez, esan liteke adin multzo ezberdinek jauzia une ezberdinetan emanatik, denak iritsi zirela hizkuntza gaitasun maila jakin batera 2012an, eta badirudiela geraldia gertatu dela azken hamarkadan: datuek ez dute ez gora eta ez behera egin.

Hizkuntza gaitasuna




Erabilerari begiratuta, esan daiteke adin tarte bakoitzak gorakada une eta goraldi mota ezberdinak izan dituela: gazteenen artean 2002an ikusi zen igoera nabarmena, 15-18 urte bitartekoak hamarkada bat beranduago heldu ziren puntu berera, eta zaharrenak, jauzi ikaragarriak izan gabe sekula, baina, etengabe gorantz eginik 1992tik hona, aurten iritsi dira orain dela hamar urte gazteagoak zeuden puntura. Azken hauek, aldiz, beherakada erakutsi dute azken hamarkadan: igoera gertatu aurretik zuten maila berberera jaitsi dira.

Lagun euskaldunekiko hizkuntza-jokaera



Hizkuntza atxikimenduari dagokionez, deigarria da nola datuek paraleloki egiten duten gora zein behera hiru adin multzoetan. 2002tik 2012ra gora, eta 2012tik hona behera; hiru adin tarteen gertatzen da mugimendu berbera.


Hizkuntza kuttuna



2012ko ikerketan azpimarratzen zen, adin multzo bakoitzak bere bilakaera izanagatik, batzuen eta besteen datuak antzeko samarrak izatera iritsi zirela bai gaitasunari bai erabilerrari eta bai atxikimenduari zegokionez. Azpimarratzen zen, dena den, besteekin alderatuta 19-24 urtekoek erabileran koska bat beherago zeudela. Hala, 2012an inkestatuen artean helduenek zuten gazteagoek baino euskararako joera txikiagoa, ia 10 puntuko aldeaz.

Gaur egun, egoera oso bestelakoa da: gaitasunean (zein atxikimenduan) alde nabarmenik ez egonagatik, inkestatuen artean helduenek dute gazteagoek baino euskararako joera handiagoa, ia 30 puntuko aldeaz.

Gaitasuna, erabilera eta atxikimendua adin multzoka




ADINKIDEekin ZEIN HELDUEKIN ERABILITAKO HIZKUNTZA

Adinkideekiko zein helduekiko hizkuntza erabilera aztertzen badugu, lehenik eta behin esan behar dugu badagoela parekotasun bat, batzuekin zein besteekin *beti* euskara erabiltzen dutenen garapenean: batzuekin gorakada zein beherakada gertatzen denean besteekin ere gertatzen da. Bestalde, azpimarra liteke batzuekin beste gehiago direla helduekin beti euskaraz egiten dutenak (guraso, irakasle edo begiraleekin, zehazkiago) adinkideekin beti euskaraz egiten dutenak baino (senide, lagun eta ikaskideekin, kasu honetan).

Helduekin beti euskaraz egiten duten gazteak

	1992	2002	2012	2022
Amarekin	10,8	15,6	30,2	19,0
Aitarekin	10,8	12,6	28,4	20,0
Irakasleekin	?	37,1	55,6	53,0
Begiraleekin (kirol taldeak)	?	17,1	34,3	19,5
Begiraleekin (aisia taldeak)	?	29,5	44,0	56,2
Aurreko guztiekin, batzuekin	10,8	22,38	38,5	33,54




Hamarkadaz hamarkada izandako garapenari begiratuta, hainbat datu aipa litezke. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da helduekin beti euskaraz egiten zutenak gero eta gehiago zirela azken hamarkadetan, eta hamarkada honetan behera egin duela.

Hala, 2012an nabarmen igo bazen gurasoekin beti euskaraz egiten zutenen proportzioa (1992 zein 2002koen bikoitza baino gehiago), 2022an ia 20 puntuz egin du behera orain dela hamar urteko datuekiko, gurasoekin beti euskaraz aritzen direnen proportzioak. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, jaitsiera hau ezin da azaldu gurasoen hizkuntza ezagutza datuetan oinarrituz, hau ezpaita jaitsi. Jaitsi dena *beti* euskaraz egiteko ohitura dela, eta badirudi guraso berarekin hizkuntza bat baino gehiago erabiltzearen ohiturak egin duela gora.

Etkez kanpoko hezitzaileei dagokienez, hiru elementu nabarmendu litezke. Lehenik, 2002tik 2012ra gorakadatxoa izan bazuen irakasleekin beti euskaraz ari ziren gazteen proportzioak, 2022an, 2012an bezalaxe, gazteen erdiak dira beti euskaraz jarduten dutenak. Bigarrenik, kirol taldeetako begiraleekin beti euskaraz dihardutenek behera egin du, eta, hirugarrenik, aisialdi taldeetako begiraleekin euskara hutsean aritzen direnak zertxobait igo direla dirudi.

Kideekin beti euskaraz egiten duten gazteak

	1992	2002	2012	2022
Anai-arrebeekin	9,7	16,2	31,5	16,0
Lagun euskaldunekin	12,7	20,4	38,3	25,0
Gelako ikaskideekin gelatik kanpo	?	13,8	22,8	10,0
Beste geletako ikaskideekin	?	11,4	21,6	8,5
Aurreko guztiekin, batz bestea	11,2	15,45	28,55	14,875



Adinkide edo ingurutsukoekin beti euskaraz egiten dutenei begiratuta, hasteko, azpimarratu behar helduekin gertatu denaren antzera, 1992tik 2002ra eta 2002tik 2012ra datuek gora egin bazuten ere, azken hamarkadan beheraldia izan dela, bai senitartekoe-kin, bai lagunekin eta bai ikaskideekin.

Senideekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak 15,5 puntuz egin du behera azken hamarkadan (gurasoekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak 19,6 puntuz). 13,3 puntuz egin du behera lagun euskaldunekin euskara hutsean aritzen direnen proportzioak ere, 12,8 puntuz gelako ikaskideekin, eta gelaz kanpoko ikaskideekin, berriz, 13,1 puntuz.

Datuok testuinguru zabalago batean hobeto ulertuko direlakoan, gazteen etxeko hizkuntza paisaiaz, eskola inguruneko eta aisialdiko hizkuntza erabileraz eta lagunarteko hizkuntzaz arituko gara ondoko ataletan.

GAZTEEN INGURUNEAK: ETXEA, ESKOLA, AISIALDIA ETA LAGUNARTEA

.....

ETXEKO HIZKUNTZA PAISAIA

Etxeko testuingurua erdaldundu egin da azken hamar urteotan: gurasoekin zein senitartekoekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak modu nabarmenean egin du behera. Gurasoen kasuan, gainera, ez da gaitasunean aldaketa nabarmenik izan. Orain dela hamar urte euskaraz zekiten gurasoek modu trinkoagoan egiten zuten euskaraz alaba-seeekin gaur egungoek baino. Alegia, gehiago direla gaur egun euskaraz egiteko gai izanagatik hurrekin gaztelaniaz egiten duten gurasoak.

Gurasoen¹⁰ euskaraz hitz egiteko gaitasunari begiratuta, lehenago esan bezala, datuak 2012koen oso antzekoak direla azpimarratzea dagokigu. 2002tik 2012ra hamar puntutik gorako igoera egon bazen ere euskaraz oso ongi hitz egiten zutenetan (bi gurasoen kasuan), 2012tik 2022ra ez dago ia batere aldaketarik kategoría horretan, ez eta beste kategorietan ere.

Amaren gaitasuna euskaraz hitz egiteko

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	23.6	20.4	34.6	34,5
Nahiko ongi	3.6	6.0	11.1	5,5
Zertxobait	5.1	9.0	11.7	13,0
Hitz batzuk	16.9	9.0	22.2	23,5
Batere ez	49.2	41.9	19.8	23,5
EE	1.5	3.0	0.6	0

¹⁰ Gurasoei buruzko datuak jasotzeko, orain arteko ikerketetan zuzenean *ama* eta *aitari* buruz galdetu izan zaie gazteei. Ikerketa metodologia egoki batek errealitateen konplexutasuna kontuan hartzeko gai izan behar du (datu ahal bezain egiantzekoak jasotzeko eta errealitatearen argazki ahal bezain zehatza egiteko ezezik, baita erantzunkizun sozialagatik ere), baina, kasu honetan, ez diogu erronkari errotik heldu. Edizio honetan, gazteei gurasoei buruz galdetzean ez da aurretiaz generorik zehaztu (aparteko galdera baten bidez eskatu zaie aipatutako gurasoen generoa zehazteko). Aldiz, bi gurasoren datuak baino ez dira jaso. Jakinik gaur egungo gazte askoren etxeko errealitatea eta guraso-konfigurazioa konplexuagoa dela maiz familia nuklearraren irudi kanonikoa baino, merezi luke etorkizunean konplexutasun hau barnebiltzeko moduko diseinu metodologiko bat erabiltzea.

Aitareen gaitasuna euskaraz hitz egiteko

	1992	2002	2012	2022
Oso ongi	17,4	18,6	32,1	27,0
Nahiko ongi	5,6	6,0	8,0	4,5
Zertxobait	6,7	7,8	10,5	14,0
Hitz batzuk	17,9	7,8	17,9	28,0
Batere ez	51,3	47,9	29,6	24,0
EE	1,0	1,9	1,9	2,5

Gauza bera gertatzen da gurasoen jatorriari begiratzen badiogu. 2012ko ikerketan oso aldaketa esanguratsutzat jo zen aztertutako gazteen gurasoen jaiolekuari zegokio-na. Hogei urteko bilakaeran lehenengo aldiz nagusitu ziren Euskal Herrian jaiotako gurasoak zituzten familiak, baita Gipuzkoan bertan jaiotakoak soilik ere. Izan ere, 2012an gurasoen artean 10etik 4 baino gutxiago ziren Euskal Herrian jaiotakoak. Aurtengo datuek ez dute 2012ko datuekiko aldaketarik erakusten. Lasarte-Oriako gurasoen kasuan, bi heren baino gehiago dira Euskal Herrian jaiotakoak, eta heren bat eskas beste nonbait jaiotakoak.

Inkestatuaren amaren jaiolekua

	1992	2002	2012	2022
Gipuzkoa	33,3	41,9	75,3	72,5
Beste euskal lurraldeak	5,7	4,2	3,1	4,5
Euskal Herritik kanpo	60,0	53,9	21,6	23

Inkestatuaren aitaren jaiolekua

	1992	2002	2012	2022
Gipuzkoa	28,2	38,3	67,9	66,5
Beste euskal lurraldeak	5,1	0,6	3,7	3,5
Euskal Herritik kanpo	65,6	61,1	28,4	27,5

2012ko azterketan azpimarratzen zen gurasoen hizkuntza-gaitasunaren hobekuntzak berez zekarrela euskararen familia bidezko transmisioa indartzeko baldintzak. Aurtengo datuek erakusten dute, ordea, hizkuntza ezagutza antzekoa izanagatik, gurasoekin euskaraz egiteko joera ez dela mantendu, are, apaldu egin dela.

Izan ere, 2012ko azterketan igoera nabarmena bistaratu zen inkestatutako gazteen gurasoen euskarazko gaitasunean zein haiekiko euskararen erabileran. Orduko analisisian hipotesi argia plazaratu zen: 60ko hamarkadan jaiotako pertsona haiek gizarte mailako aparteko gertakariak bizi izan zituzten -frankismoaren bukaera, trantsizio politikoaren urte korapilatsuak, gizarte zibilaren zabaltzea, ikastolen eta gau eskolen hedatze eta erakundetzea, besteak beste- eta horrek modu sakonean eraldatu zuen belaunaldi-kide haien jokaera, besteak beste, hizkuntzari zegokionez. Aurtengo datuek, aldiz, gora-daren etena erakusten dute: gaur egungo gazteen gurasoen hizkuntza gaitasuna orain dela hamar urtekoenaren parekoa izanik, gurasoen eta seme-alaben arteko euskararen erabilerak behera egin duela dirudi.

Amaren eta seme-alaben arteko hizkuntza-jokaera

	1992	2002	2012	2022
Beti euskaraz	10.8	15.6	30.2	19,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	4.1	3.0	4.9	5,0
Berdin	3.6	4.8	6.2	5,5
Erdaraz gehiago euskaraz baino	5.1	5.4	8.6	9,5
Beti erdaraz	74.9	68.3	48.1	58,5
Bestelako erantzunak	1.5	3.0	1.8	0
EE	0	0	0	2,5

Aitaren eta seme-alaben arteko hizkuntza-jokaera

	1992	2002	2012	2022
Beti euskaraz	10.8	12.6	28.4	20,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	0.5	1.8	4.3	1,0
Berdin	3.1	3.0	4.3	3,0
Erdaraz gehiago euskaraz baino	4.1	7.2	8.6	11,0
Beti erdaraz	80.0	73.7	51.9	58,5
Bestelako erantzunak	0	0	0	3,5
EE	1.5	1.8	2.4	3,0

2012ko datuek oso garbi erakusten zuten familia bidezko transmisioaren gorakada gertatu zela, eta horrekin batera modu eta neurri bertsuan egin zuela gora gazteek kalean lagun euskaldunekin euskaraz hitz egiteko joerak. Orduan parekotasun handia zegoen bi eremu horietako hizkuntza erabileran, eta baita orain ere. Azken hamar urteotan 10,8 puntuz egin du behera amarekin beti euskaraz ari direnen proportzioak, 8,4 puntuz aitarekin beti euskaraz ari direnenak eta 13,3 puntuz lagun euskaldunekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak¹¹.

Hala ere, hiru adin tarteen datuak bereizita oso jokaera ezberdinak ikus daitezke batzuen eta besteen artean.

Amaren eta seme-alaben arteko hizkuntza-jokaera adin multzoka (2022)

	DENAK	13-14	15-18	19-25
Beti euskaraz	19,0	27,3	12,3	21,3
Euskaraz gehiago erdaraz baino	5,0	0	9,6	3,2
Berdin	5,5	6,1	5,5	5,3
Erdaraz gehiago euskaraz baino	9,5	12,1	8,2	9,6
Beti erdaraz	58,5	48,5	63,0	58,5
Bestelako erantzunak	0	6,1	1,4	2,1
EE	2,5	0	0	0

Aitaren eta seme-alaben arteko hizkuntza-jokaera adin multzoka (2022)

	DENAK	13-14	15-18	19-25
Beti euskaraz	20,0	21,2	15,1	23,4
Euskaraz gehiago erdaraz baino	1,0	3,0	1,4	0
Berdin	3,0	0	4,1	3,2
Erdaraz gehiago euskaraz baino	11,0	9,1	12,3	10,6
Beti erdaraz	58,5	51,5	61,6	58,5
Bestelako erantzunak	3,0	12,1	1,4	2,1
EE	3,5	3,0	4,1	2,1

11 Errore tartea kontuan izanik datuok modu isolatuan ez dute ziurtasunez aldaketa esanguratsu bat adierazten, baina, hiru aldagai horien arteko parekotasunak aldaketa gertatzen ari dela pentsarazten digu.

Beti edo gehienbat euskaraz egiten dutenen datuak batuta begiratzen baditugu, ez dago alde nabarmenik batzuen eta besteen artean amarekiko hizkuntza erabilerari dagokionez: gaztetxoenen %27,3k egiten du beti euskaraz amarekin, 15-18 urte bitartekoetan %21,9k eta 19-25 urte bitartekoetan %24,5ek. Aitarekin berriz, gaztetxoenen %24,2k egiten du beti euskaraz, 15-18 urte bitartekoetan %16,5ek eta 19-25 urte bitartekoetan %23,4k. Estatistikoki esanguratsua izatera heltzen ez bada ere, nabarmendu liteke 15-18 urte bitartekoek euskarazko joera txikixeagoa dutela gurasoekin beste adin tarteetakoek baino. Are gehiago, beti euskaraz egiten dutenen datuak soilik begiratzen baditugu: alde nabarmena dago gazteenetatik 15-18 urte bitartekoetara (15 puntukoa, amarekiko erabileran eta 5,1ekoa aitarekiko erabileran).

Hala, gaztetxoenek gurasoekin euskaraz egiteko ohitura handiagoa dute zaharxeagoek baino, eta aldiz, lagun euskaldunekin beti euskaraz egiten dutenak %6,1 baino ez dira gaztetxoenen artean eta %8,2 15-18 urte bitartekoek artean. Hala, kalean lagunekin egiten duten hizkuntzara gehiago hurbiltzen da azken hauen etxeko hizkuntza erabilera. Jakin badakigu haurtzarotik nerabezarorako ibilbidean eskolako eta etxeko erreferenteek indarra galtzen dutela, eta aldiz, lagunartean eta adinkideen erreferentzialtasuna indartzen dela. Baliteke, beraz, 15-18 urte bitartekoek lagunarteko hizkuntza jokaerak eragitea, hein batean, gurasoekiko hizkuntza jokaeran ere.

Anai-arreben arteko hizkuntza-jokaera adin multzoka (2022)

	DENAK	13-14	15-18	19-25
Beti euskaraz	16,0	15,2	11,0	20,2
Euskaraz gehiago erdaraz baino	4,5	9,1	2,7	7,4
Berdin	9,5	18,2	8,2	10,6
Erdaraz gehiago euskaraz baino	10,5	39,4	11,0	7,4
Beti erdaraz	40,5	3,0	46,6	36,2
Bestelako erantzunak	2,5	15,2	2,7	2,1
EE	16,5	15,2	17,8	16,0

Analisi bera egin liteke anai-arrebekiko hizkuntza jokaerari dagokionez: beti edo gehienbat euskaraz egiten dutenen datuak batuta begiratzen baditugu, gazteenen %24,3k egiten du gehienbat euskaraz anai-arrebekin, 15-18 urte bitartekoetan %13,7k eta 19-25 urte bitartekoetan %27,6k.

Anai-arreben arteko hizkuntza-jokaera urtez urte

	1992	2002	2012	2022
Beti euskaraz	9,7	16,2	31,5	16,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	3,6	3,0	5,6	4,5
Berdin	8,2	6,0	11,1	9,5
Erdaraz gehiago euskaraz baino	11,8	13,2	8,6	10,5
Beti erdaraz	60,5	52,7	29,6	40,5
Bestelako erantzunak	0	0	0	2,5
EE	6,2	9,0	13,6	16,5

Orain dela hamarkada bateko datuekin alderatuz, 15,5 puntuz jaitsi da anai-arrebekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioa. Lagun euskaldunekiko parekotasuna nabari da hemen ere: lagunekin beti euskaraz hitz egiten dutenen proportzioak 13,3 puntuz egin du behera.

ESKOLAKO INGURUNEA

Aztertutako egungo gazteek orain dela hamar urtekoek baino gutxiago erabiltzen dute, beraz, euskara, bai etxean gurasoekin eta anai-arrebekin, eta baita lagunartean ere. Eskolaren eremuan ere antzeko beherakada antzeman dezakegu ikaskideekiko hizkuntza jokabidean.

Aldaketaren iturria ez dago eskola eredu baten edo bestearen hedatzean. Lehen eta bigarren hezkuntzako eskola erduei begiratzen badiegu, datuak oso antzekoak dira orain dela hamar urtekoekiko. 1992tik 2012ra euskarazko irakaskuntzaren hedatze ikusgarria gertatu zen eta 2012rako aztertutako gazteen hiru laurdenak euskara hutsez burutu zuen derrigorrezko eskolaldia. Gorakadaren etena erakutsi dute aurtengo datuek. Azken hamar urteotan D ereduan eskolatutako haurren proportzioak ez du ez gora ez behera egin, eta esan bezala, 2012ko berberak direla esan daiteke. Hala, gure unibertsoko gazte gehien-gehienek —hamarretik zortzik— D ereduan ikasi dute lehen hezkuntzan eta baita derrigorrezko bigarren hezkuntzan zein batxilergoan ere (hizkuntza paisaia asko aldatzen da, aldiz, unibertsitatean eta lanbide heziketako ikasketetan).

Inkestaturen eskolako hizkuntza eredu (Lehen Hezkuntza)

	1992	2002	2012	2022
D eredu / Euskaraz	16,4	44,3	79,0	79,5
B eredu / Erdibana	3,6	35,9	14,2	10,0
A eredu / Erdaraz gehienbat	80,0	19,2	4,3	9,0
Besterik	0,0	0,6	2,5	1,5

Irakaskuntza-hizkuntzak LH, DBH, batxillergo, unibertsitate eta Lanbide Heziketan ¹²

	LH	DBH	Batxilergoa	Unibertsitatea	Lanbide Heziketa
D eredu / Euskaraz	79,5	81,0	83,3	53,3	24,0
B eredu / Erdibana	10,0	11,0	5,6	6,66	15
A eredu / Erdaraz gehienbat	9,0	7,5	10,7	37,8	38

Eskolako hizkuntza erabilerari begiratzen badiogu, ikasleen erdiak hitz egiten du beti euskaraz irakasleekin. Datu hau, ereduari dagozkien datuak bezalaxe, 2012ko datuaren oso antzerakoa da.

Irakasleekin

	2002	2012	2022
Beti euskaraz	37,1	55,6	53,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	10,8	11,1	9,0
Berdin	10,2	9,3	5,0
Erdaraz gehiago euskaraz baino	5,4	8,6	4,5
Beti erdaraz	34,7	13,0	15,5
Bestelako erantzunak	0	0	2,0
EE	1,8	2,4	11,0

¹² Kontuan hartu behar da lehen Hezkuntza eta derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion datuak 200 inkestaturen erantzunekin osatu direla, aldiz, batxillergoari buruzko galdera 84 pertsonak erantzun dute, Lanbide Heziketari buruzkoa 50 pertsonak eta unibertsitateari buruzkoa 45 pertsonak. Horrez gain, beste ikasketaren bat egiten ari direnak denera 11 izan dira, horietatik 8 gaztelaniaz, 2 beste hizkuntza batean eta 1 euskaraz.

Aldiz, ikaskideekiko hizkuntza erabilerari dagokionez, datuak oso bestelakoak dira, asko aldatu baitira azken hamar urteotan.

Izan ere, hamarretik ikasle batek baino ez die egiten beti euskaraz bere gelako ikaskideei klasetik kanpo, eta %8k soilik beste geletako ikaskideei, alegia, orain dela hamar urte baino %10 gutxiagok, gutxi gora-behera.

Beti euskaraz egiten dutenak eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dutenak kategorian bakarrean bilduta, 17,1 puntuz egin du behera gelakideekin gehienbat euskaraz egiten dutenen proportzioak, eta 26,7 puntuz beste geletako ikaskideekin gehienbat euskaraz egiten dutenenak.

Aldiz, beti erdaraz egiten dutenen proportzioak ez dira asko aldatu: %35aren bueltan daibiltza, orain dela hamar urte bezalaxe, gelakideekin zein beste geletako ikaskideekin klasetik kanpo erdaraz baino egiten ez dutenen proportzioak.

Ikaskideekin klasetik kanpo


	2002	2012	2022
Beti euskaraz	13,8	22,8	10,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	8,4	12,3	8,0
Berdin	10,8	15,4	12,5
Erdaraz gehiago euskaraz baino	9,0	15,4	19,0
Beti erdaraz	56,3	33,3	37,5
Bestelako erantzunak	0	0	2,5
EE	1,8	0,6	10,5

Beste geletako ikaskideekin

	2002	2012	2022
Beti euskaraz	11,4	21,6	8,5
Euskaraz gehiago erdaraz baino	9,0	19,1	5,5
Berdin	13,8	15,4	13,5
Erdaraz gehiago euskaraz baino	9,6	11,7	20,0
Beti erdaraz	53,3	31,5	36,5
Bestelako erantzunak	0	0	5,0
EE	3,0	0,6	11,0

Aurtengo galdetegian ikaskideekin klasean erabiltzen duten hizkuntzaz ere galdetu diegu gazteei, eta erantzunak espero zitezkeenak izan dira: kasetik kanpo baino gehiago hitz egiten dute euskaraz klase barruan. Aldea ez da hainbestekoa beti euskaraz ari direla diotenen artean: %27,5ek hitz egiten du gehienbat (beti edo erdaraz baino gehiago) euskaraz ikaskideekin klasean eta %18k kasetik kanpo bere gelakideekin. Aldiz, gela barruan beti erdaraz hitz egiten duela dio %22k, eta gelatik kanpo, berriz, %36,5ek. Hizkuntza erabilerak, beraz, erdararantz egiten du gelatik kanpora atera bezain laster.

Ikaskideekin klasean eta kasetik kanpo eta beste geletako ikaskideekin (2022)



AISIALDIA


Escolaz kanpoko jarduerak ere hizkuntza-sozializazioko eremu garrantzitsuak dira gazteentzat. Gehienez gazteek beraiek aukeratutako ekintzak izan ohi dira (kirol jarduerak, jardura artistikoak, aisialdi taldeak eta udalekuak, batez ere) eta escolako giroa baino giro informala izan ohi da escolaz kanpoko jardueretako.

2002tik 2012ra gora egin bazuen ere aisialdiko jardura antolatuetako parte-hartze tasak, 2022ko datuetan tasa honek nabarmen behera egin duela ikus daiteke¹³. Bestalde, aisialdi ekintza batzuk eta besteek duten arrakasta proportzionala ere aldatu da azken hamar urteotan. Orduan bezalaxe orain, kirol taldeek dute parte-hartze tasarik handiena (gazteen %44,0). Klase partikularretan jarduten du, bigarrenik, gazteen proportzio handienak (%33,5) eta arrakasta baxuena dutenak dira aisialdi taldeak (%16), udalekuak (%20) eta jardura artistikoak (%18).

¹³ Datuek lotura zuzena izan dezakete 2020tik hona bizi izan dugun pandemia egoerarekin eta honekin lotutako neurriekin. Hipotesia baino ez da, baina, kontuan hartzekoa izan liteke.

Parte hartze tasa

	2002	2012	2022
Klase partikularretan	52,7	50,6	33,5
Jarduera artistikoetan	37,1	42,0	18,0
Kirol jardueretan	70,0	79,0	44,0
Aisialdi taldeetan	42,5	61,7	16,0
Udalekuetan	51,5	66,1	20,0



Parte-hartze tasen garapenari arreta jarriz gero, esan bezala, eskolaz kanpoko ekintzak asko jaitsi direla ikus dezakegu, oro har. Ez ordea, ekintza guztien kasuan maila berean. Izan ere, udalekuak eta aisialdi taldeak jaitsi dira bereziki. Hain zuzen ere, begiraleekin edo ekintza-arduradunekin euskaraz gehien egiten duten jarduerak.

Izan ere, aisialdi taldeetan eta udalekuetan beti euskaraz egiten dutenak %67,5 eta %56,2 dira, hurrenez hurren; aldiz, kirol jardueretan eta klase partikularretan, %19,5 eta %29,9, hurrenez hurren. Garapenari begiratzen badiogu, bestalde, kirol jardueretan, klase partikularretan zein jarduera artistikoetan behera egin du begiraleekin beti euskaraz egiten dutela diotenen tasak (ia 15 puntuz, esaterako, kirol jardueretan), eta gora, aldiz, begiraleekin beti erdaraz egiten dutela erantzun dutenenak (ia 30 puntuz, esaterako, klase partikularretan).

Esan beharra dago, horrez gain, aisialdi taldeetan 12,2 puntuz egin duela gora begiraleekin beti euskaraz egiten dutenen tasak, 2002tik hona lehen aldiz erdia baino gehiago izatera iritsiz, eta udalekuetan ere 14,3 puntuz egin duela gora begiraleekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak, %67,5 izatera helduz.

Parte hartze tasa altuena duten jarduerak dira, beraz, gazteek begiraleekin gaztelan- niaz gehien egiten duten espazioak, eta gehien erdaldundu direnak, 2012tik hona. Aldiz, gazteek begiraleekin euskaraz gehien egiten duten espazioak eta gehien euskaldundu direnak dira parte-hartze apalena dutenak.

Begiraleekiko hizkuntza-harremana: Klase partikularretan

	2002	2012	2022
Beti euskaraz	20,4	32,9	29,9
Euskaraz gehiago erdaraz baino	6,8	17,1	8,9
Berdin	14,7	12,2	10,4
Erdaraz gehiago euskaraz baino	18,1	20,7	4,5
Beti erdaraz	39,7	17,1	46,3

Begiraleekiko hizkuntza-harremana: Klase partikularretan

	2002	2012	2022
Beti euskaraz	37,1	47,0	38,9
Euskaraz gehiago erdaraz baino	6,4	11,7	13,9
Berdin	12,9	5,8	8,3
Erdaraz gehiago euskaraz baino	9,6	10,2	5,6
Beti erdaraz	33,8	25,0	33,3

Begiraleekiko hizkuntza-harremana: Kirol jardueretan

	2002	2012	2022
Beti euskaraz	17,1	34,3	19,5
Euskaraz gehiago erdaraz baino	4,2	13,2	5,7
Berdin	12,8	16,4	16,1
Erdaraz gehiago euskaraz baino	17,1	12,5	18,4
Beti erdaraz	48,7	23,4	40,3

Begiraleekiko hizkuntza-harremana: Aisialdi taldeetan

	2002	2012	2022
Beti euskaraz	29,5	44,0	56,2
Euskaraz gehiago erdaraz baino	2,8	14,0	9,4
Berdin	16,9	8,0	9,4
Erdaraz gehiago euskaraz baino	11,2	17,0	12,5
Beti erdaraz	39,4	17,0	12,5

Begiraleekiko hizkuntza-harremana: Udalekuetan


	2002	2012	2022
Beti euskaraz	33,7	53,2	67,5
Euskaraz gehiago erdaraz baino	12,8	13,0	10,0
Berdin	10,4	13,0	10,0
Erdaraz gehiago euskaraz baino	9,3	6,5	2,5
Beti erdaraz	33,7	14,0	10,0

Aurtengo ikerketan jarduera ezberdinetan kideekiko hizkuntza jokabideaz ere galdetu diegu gazteei. Datuei begiratuta ikus daitekeena da korrelazio argia dagoela begiraleekiko erabiltzen duten hizkuntzaren era kideekiko erabiltzen duten hizkuntzaren artean. Hala, begiraleekin euskaraz gehien hitz egiten duten jardueretan hitz egiten dute gehien euskaraz kideen artean ere. Era berean, begiraleekin gaztelaniaz gehien hitz egiten duten jardueretan hitz egiten dute gehien gaztelaniaz kideen artean ere.

Hizkuntza erabilera begirale/kideekin

	<i>Beti euskaraz Begiraleekin</i>	<i>Beti erdaraz Begiraleekin</i>	<i>Beti euskaraz Kideekin</i>	<i>Beti erdaraz Kideekin</i>
Klase partikularretan	29,9	20	46,3	44,6
Jarduera artistikoetan	56,2	38,2	12,5	23,5
Kirol jardueretan	19,5	13,6	40,3	37,5
Aisialdi taldeak	56,2	34,4	12,5	12,5
Udalekuak	67,5	47,5	10,0	10,0

Hizkuntza jokaerak eskolaz kanpoko jardueretan



Begiraleek eta ekintza arduradunek gazteekin erabiltzen duten hizkuntzak, beraz, gazteek haien artean erabiltzen duten hizkuntzan eragin dezakeela pentsa daiteke, beraz. Alderantziz ere bai, behar bada. Edonola ere, eskolaz kanpoko jarduerak gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko espazio bereziki eraginkorrak izango lirateke, taldeko hizkuntza dinamiketan eraginez erdarazko hainbat espazio eraldatzeko aukera legokeelako.


LAGUNARTEA ETA SARE SOZIALAK

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, gurasoen kasuan bezalaxe, lagunarteko kasuan ere 2022ko datuak orain dela hamar urtekoen oso parekoak dira. Galdezkatuen artean hamarretik 7ren kuadrillan denek dakite euskaraz hitz egiten. Hamarretik biren kasuan, gehienek dakite euskaraz hitz egiten eta haien kuadrillan erdiak edo erdiak baino gutxiagok dakitela erantzuten dutenak ez dira hamarretik bakarra izatera heltzen.

Eskola bidezko euskalduntzearen emaitzak dira, hein handi batean, 1992tik honako datuen gorakada azaltzen dutenak. Hamarkadaz hamarkada, eremu formalean eginiko ahaleginen bidez, euskal hitzunen dentsitatea trinkotuz joan zen eremu informaletan ere. Hala, 1992. urtean gazteen % 16,4k soilik zituen kuadrillako lagun guztiak euskaldunak, eta hogeitun beranduago % 69,1ek zuen egoera hori. Esan bezala, azken hamarkadan goranzko joera hori hori goi-lautada bat bihurtu dela dirudi.

Kuadrillako lagun euskarazko gaitasuna


	1992	2002	2012	2022
Denek	16,4	55,1	69,1	71,5
Gehienek	17,4	24,0	19,8	19,5
Erdiek edo	17,9	7,8	5,6	4,5
Gutxienek	35,9	10,8	3,7	3,5
Inork ere ez	11,3	2,4	1,8	1,0
EE	1,0	0	0	0



Lagunekiko hizkuntza erabilerari buruz, bi galdera bereizi egin dizkiegu, eta beraz, bi erantzun mota ditugu: alde batetik galdetu diegu gazteei euskaraz dakiten lagunekiko hizkuntza erabileraz eta bestetik euskaraz ez dakiten lagunekiko hizkuntza erabileraz. Ez dakigu, beraz, zein den gazteen hizkuntza joera lagunekin, orokorrean, edo eta zein den haien hizkuntza jokabidea talde batean denak euskaldunak ez direnean, esaterako. Jakin badakiguna da aurreko hamarkadetako datuekin alderatuz, euskararen erabilerak behera egin duela euskaraz dakiten lagunekin.


Euskararen erabilera lagun euskaldunekin

	1992	2002	2012	2022
Beti euskaraz	12,7	20,4	38,3	25,0
Euskaraz gehiago erdaraz baino	10,8	9,6	14,2	9,0
Berdin	20,6	12,0	10,5	15,0
Erdaraz gehiago euskaraz baino	27,5	16,2	13,6	21,0
Beti erdaraz	25,5	41,3	23,5	28,5
EE	2,9	0,6	0	1,5




2012an jaso ziren lagun euskaldunekiko euskararen erabilerari buruzko daturik baikorrenak. Aurreko hamarkadako datuekin alderatuz, behera egin zuen beti erdaraz hitz egiten zutenen proportzioak, eta baita erdaraz euskaraz baino gehiago edo bietara berdintsu egiten zutenen proportzioek ere, eta aldiz, gora egin zuten euskaraz erdaraz baino gehiago aritzen zirenen proportzioak eta beti euskaraz aritzen zirenenak (azken honek bereziki). Azken hamar urteotako joera, aldiz, alderantzizkoa da: 2012tik 2022ra behera egin dute beti euskaraz hitz egiten dutenen eta euskaraz erdaraz baino gehiago aritzen direnen proportzioek (18,5 puntuz, biak batuta), eta aldiz, gora egin dute bietara berdintsu egiten dutenen proportzioek, erdaraz euskaraz baino gehiago aritzen direnen proportzioak eta beti erdaraz aritzen direnenak (16,9 puntuz, hirurak batuta).

Beherakada honek bat egiten du ikaskideekiko euskararen erabileraren beherakadarekin:



Dena den, merezi du azpimarratzea kuadrillako lagun euskaldunekin euskaraz gehiago egiten dutela gazteek, oro har, gelako ikaskideekin edo beste geletako ikaskideekin baino (jakinez, horien artean ere gehien gehienak euskal hiztunak direla). Zehazkiago esanik, lagun euskaldunekin gehiagok egiten dute beti euskaraz, eta gutxiagok beti gaztelaniaz.



Autokritika metodologikoa eginaz, esan beharra dago, ordea, beharbada 1992an eta 2022an ez dutela zentzu bera “lagun euskaldunak” eta “lagun erdaldunak” etiketek. Gazteei galdetzean zein hizkuntzatan hitz egiten duten batzuekin eta besteekin, baliteke ez ulertzea “euskaraz dakitenekin” eta “euskaraz ez dakitenekin” zein hizkuntzatan hitz egiten duten galdetzen zaiela. Izan ere, susmoa dugu gaur egun, euskarazko gaitasuna hain modu masiboan hedatuta dagoen testuinguru batean, “euskaldun” eta “erdaldun” etiketek, euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin baino euskaraz hitz egiteko joerarekin, edo bestelako ezaugarri ideologiko-kultural batzuekin dutela lotura galdezkatutako gazteentzat. Horrek azal litzake, neurri batean, ikaskideekiko eta “lagun euskaldunekiko” hizkuntza jokabide aitortuan agertzen diren aldeak.

Bestalde, aurtengo ikerketan sare sozialei buruzko galderak gehitu dizkiogu galdetegiari, gazteek tresna hauen bidez dituzten hizkuntza jokabideez gehixeago jakiteko asmoz. Jasotako datuetatik atera daitekeen lehen ondorioa da gazteek sare sozialak erabiltzen dituztela (%7k soilik erantzun du, esaterako, ez duela Instagram erabiltzen eta %3k soilik ez dituela sare sozialak edo Whatsapp bezalako aplikazioak erabiltzen ezagunei mezu pribatuak idazteko).


Bigarren ondorioa da erdara gailentzen dela erabat, bereziki haien kanpora begirako argitalpenetan (Instagramera igotzen dituzten *story* edo *post*-etan, esaterako): erdiak baino gehiagok argitaratzen du dena erdaraz. Azpimarra liteke hizkuntza jokabide ezberdinak ageri direla publikoki egiten dituzten hizkuntza adierazpenetan edo mezu pribatuetan. Hala, mezu pribatuak beti erdaraz bidaltzen dituztenak %37,6 dira. Bi hizkuntzetan paretsu jarduten dutenak aldiz, %10,2 dira publikoki egiten dutenean eta %24,7 aldiz, mezu pribatuak idazterakoan.

Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu publikoki sare sozialetan eta zein pribatutik, mezu zuzen bidez?

	<i>Publikoki Instagramen</i>	<i>Pribatutik, mezu zuzen bidez</i>
Beti euskaraz	5,4	3,2
Euskaraz erdaraz baino gehiago	7,0	6,2
Bietan berdin	10,2	24,7
Erdaraz euskaraz baino gehiago	24,2	28,3
Beti erdaraz	53,2	37,6

Badirudi, beraz, kanpora begira agertu behar dutenetan, hots, pertsona jakin bati baino, publiko gutxi-gehiago zabal edo abstraktu bati hitz egiten diotenetan, gazteek gaztelaniarako joera handiagoa dutela haien lagun edo ezagunei zuzenean hitz egite-rakoan baino.

Hizkuntza erabilera sare sozialetan



HIZKUNTZA EGOERAREN PERTZEPZIOA, NAZIO IDENTITATEA ETA HIZKUNTZA POLITIKEI BURUZKO IRITZIAK

.....

EUSKARAREN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOAK

Euskararen egoerari buruz galdetzerakoan jasotako erantzunei begiratuta, daturik deigarriena da, beharbada, euskararen egoerari buruzko hautematea nahiko antzekoa izan dela azken hiru hamarkadetan zehar, edo behintzat, ez dela bat-bateko aldaketarik gertatu. Garapena pixkanakakoa izan dela dirudi.


Hala, Euskal herriko zein Lasarte-Oriako euskararen egoerari buruz galdetzean, zuhur samarrak ageri ziren gazte gehienak 1992an, eta hala ageri dira orain ere: gehienek egoera ez on eta ez txartzat dute, orain dela hiru hamarkada bezalaxe, nahiz eta proportzioa 17,4 puntuz jaitsi. Izan ere, egoera ona dela pentsatzen dutenen proportzioak 17,5 puntuz egin du gora hiru hamarkadatan zehar.

Gaur egun, Euskal Herriko testuinguruari dagokionez, ikuspuntu nagusia da euskararen egungo egoera ez dela ez ona ez txarra (%39) edo ona dela (%37,5); hamarretik zortzik du ikuspuntu horietako bat. Aldiz, %22k uste du egoera txarra dela. Muturreko iritziak gutxiengo dira: inork ez du uste egoera oso txarra denik, eta inork gutxi oso ona dela (%1,5ak baino ez).

Lasarte-Oriako testuinguruaren irakurketa, aldiz, ezkorxeagoa da: ikuspuntu nagusia da euskararen egungo egoera ez dela ez ona ez txarra (%32) edo txarra dela (%32,5); hamarretik seik du ikuspuntu horietako bat, eta kasu honetan gazteen laurdenak soilik pentsatzen du egoera ona dela (Euskal Herriko testuinguruan baino 12 puntu gutxiago). Kasu honetan ere, muturreko iritziak bazterrekoak dira: %4,5ek du uste egoera oso txarra dela, eta beste hainbestek oso ona dela.


Euskararen gaur egungo egoera Euskal Herrian

	1992	2002	2012	2022
Oso ona	1.0	2.4	1.2	1,5
Ona	20	26.9	32.1	37,5
Ez ona, ez txarra	56.4	42.5	43.8	39,0
Txarra	17.4	24.6	18.5	22,0
Oso txarra	1.5	2.4	1.9	0
EE	3.6	1.2	2.5	0



Lasarte-Orian euskarak duen egoera

	1992	2002	2012	2022
Oso ona	0	1.2	2.5	4,5
Ona	17.0	17.4	26.5	25,5
Ez ona, ez txarra	39.7	34.7	43.2	32,0
Txarra	30.9	35.9	21.0	32,5
Oso txarra	9.8	9.6	6.2	4,5
EE	2.6	0	0.6	1,0



Euskararen egoeraren azken hamar urteetako garapenari buruz, berriz, 1992tik lehen aldiz, irakurketa baikorra egitetik ezkorragoa izatera pasa dira gazteak: azken hamar urteetan euskararen egoerak hobera egin duela uste dutenak ia herena dira, beste hainbeste egoerak berdintsu jarraitu duela uste dutenak, eta beste hainbeste egoerak txarrera egin duela pentsatzen dutenak. Izan ere, egoerak okerrera egin duela pentsatzen dutenak 17,3 puntuz igo dira, eta aldiz, egora askoz hobea edo hobea bihurtu dela pentsatzen dutenak 19,3 puntuz behera.

Euskararen gaur egungo egoera orain 10 urtekoaren aldean

	1992	2002	2012	2022
Askoz hobea	14,2	9,6	6,8	1,0
Hobea	34,5	23,4	39,5	26,0
Berdintsua	9,8	21,0	32,1	31,5
Okerragoa	13,4	16,2	14,2	31,5
Askoz okerragoa	4,6	0	0	1,5
EE	23,2	29,9	7,4	8,5

Euskararen etorkizunari buruz ere, antzeko fenomeno bat gertatu da. 1992tik lehen aldiz, ikuspegi baikorra izatetik ikuspegi zuhurra izatera pasa dira gazteak: denborak aurrera egin ahala euskararen egoera hobea edo askoz hobea izango dela uste dutenak %37,5 dira gaur egun, eta aldiz, %59,5 ziren 1992an, %49,7 2002an eta %53,5 2012an. Egoerak berdintsu jarraituko duela uste dutenen artean ez dago aldaketa esanguratsurik, baina, egoerak txarrera egingo duela pentsatzen dutenak hamarretik bi dira gaur egun (2012ko datuekin konparatuta 14,7 puntuz egin du gora proportzioak). Berriz ere, oso gazte gutxik adierazten dituzte muturreko iritziak: %3,5ek du uste askoz hobea izango dela, eta %2k askoz okerragoa izango dela.

Euskararen etorkizuna

	1992	2002	2012	2022
Askoz hobea	17,4	9,0	9,3	3,5
Hobea	42,1	40,7	43,8	34,0
Berdintsua	26,7	31,7	34,6	39,0
Okerragoa	6,2	13,2	6,8	21,5
Askoz okerragoa	0,5	1,8	1,2	2,0
EE	7,2	3,6	4,3	0

Etorkizunarekiko ezkortasun horrek azal ditzake, beharbada, ondorengo datuak ere. Gaztelaniaz soilik jakinik, zein hizkuntza ikasiko ote luketen galdetzean, ia erdiek euskarra ikasiko luketela erantzuten zuten 2012an (%48,8), eta beste ia erdiek (beste %48,8k, zehazki) ingelesa. Hamar urte beranduago, aldiz, erantzunak bestelakoak dira: %67,5ek erantzun du ingelesa ikasiko lukeela (2012an baino 18,7 puntu gehiago), eta %23,5ek baino ez euskaraz ikasiko lukeela (25,3 puntu gutxiago).

Gaztelaniaz soilik jakinik, hauetako zein hizkuntza ikasiko zenuke lehendabizi?

	2012	2022
Ingelesa	48,8	67,5
Frantsesa	0,6	5,5
Alemaniera	1,9	1,0
Euskara	48,8	23,5
Besteren bat	0	2,5

Gaztelaniaz soilik jakinik, hauetako zein hizkuntza ikasiko zenuke lehendabizi?

	13-14	15-18	19-24
Ingelesa	51,5	76,7	66,0
Frantsesa	15,2	1,4	5,3
Alemaniera	0	1,4	1,1
Euskara	24,2	17,8	27,7
Besteren bat	8,1	2,7	0

Euskaraz soilik jakingo balute, zein hizkuntza ikasiko ote luketen galdetzean, antzeko fenomenoak ageri zitzaigun 2012an: ia erdiek gaztelania ikasiko luketela erantzuten zuten (%49,4) eta beste ia erdiek ingelesa (%46,3). Hamar urte beranduago, galdera honi emandako erantzunak ere desberdinak dira: %64k erantzun du gaztelania ikasiko lukeela (2012an baino 14,6 puntu gehiago), eta %29k baino ez ingelesa ikasiko lukeela (17,3 puntu gutxiago).

2012an, beraz, euskara edo gaztelania jakinik zein hizkuntza ikasiko luketen galdetuta, erantzunak aski simetrikoak ziren: euskaraz jakinez gero gaztelania eta ingelesa paretsu, eta gaztelaniaz soilik jakinez gero ingelesa eta euskara paretsu. Gaur egun, ordea, ingelesak pisua irabazi du gaztelaniaz soilik jakinda ikasiko luketen hizkuntzen artean, eta aldiz, galdu egin du euskaraz soilik jakinda ikasiko luketen hizkuntzen artean.

Orain gehiengoak gaztelania ikasiko luke. Hala gertatzen da adin tarte guztietan. Euskari etorkizunerako proiektzio gutxiago ikusten dioten seinale.

Euskaraz soilik jakinik, hauetako zein hizkuntza ikasiko zenuke lehendabizi?

	2012	2022
Ingelesa	46,3	29,0
Frantsesa	0	5,0
Alemaniera	0,6	1,5
Euskara	49,4	64,0
Besteren bat	3,7	0,5

Euskaraz soilik jakinik, hauetako zein hizkuntza ikasiko zenuke lehendabizi?

	13-14	15-18	19-24
Ingelesa	27,3	26,0	31,9
Frantsesa	12,1	1,4	5,3
Alemaniera	0	1,4	2,1
Euskara	60,6	69,9	60,6
Besteren bat	0	1,4	31,9

Ezkortasun horrekiko bat datoz haiek baino zaharragoek edo gazteagoek duten hizkuntza jokaeraz galdetutakoan lortutako emaitzak: %75,5ek uste du haiek baino gazteagoek euskara berdintsu edo gutxiago erabiltzen dutela, eta aldiz, %76k dio haiek baino zaharragoek euskara berdintsu edo gehiago erabiltzen dutela.


Zure belaunaldikoekin konparatuta, zu baino gazteagoek euskara...

	Ehunekoa
Askoz gehiago erabiltzen dute	2,0
Gehiago erabiltzen dute	17,0
Berdintsu erabiltzen dute	32,5
Gutxiago erabiltzen dute	43,0
Askoz gutxiago erabiltzen dute	5,5

Zure belaunaldikoekin konparatuta, zu baino zaharragoek euskara...


	Ehunekoa
Askoz gehiago erabiltzen dute	5,5
Gehiago erabiltzen dute	47,0
Berdintsu erabiltzen dute	29,0
Gutxiago erabiltzen dute	17,0
Askoz gutxiago erabiltzen dute	1,0
EE/ED	0,5

Zure belaunaldikoekin konparatuta, zu baino gazteagoek/zaharragoek euskara...




Joera hau, gainera, orokorra da hiru adin taldeetan. Deigarria den datu bat da, ordea, gazteenen kasuan dezentek erantzuten duela haiek baino gazteagoek euskara gehiago erabiltzen dutela (%24,2k). Ez dakiguna da gazteek pentsatzen ote duten belaunaldi berriek gaztelanirako joera txikiagoa dakartela, ala iruditzen zaien gazteek euskaraz gehiago egiten dutela, oraindik haurrak direlako.

Zure belaunaldikoekin konparatuta, zu baino gazteagoek euskaraz...



Zure belaunaldikoekin konparatuta, zu baino zaharragoek euskaraz...



HIZKUNTZA POLITIKEI BURUZKO IRITZIAK

Euskal Herrian denok euskaraz jakin beharko ote genukeen galdetzean, azken hiru hamarkadetako gutxi gora-behera gazteen herenak adierazten zuen guztiz ados legokeela eta beste heren batek, berriz, ados legokeela. 2022ko datuek, aldiz, "gutziz ados" daudenetatik soilik "ados" daudenetara transferentzia bat egon dela erakusten dute: 2012ko datuekiko, 17,4 puntuz egin du behera guztiz ados daudenen kopuruak eta 16,9 puntuz gora soilik ados daudenenak. Aldiz, zalantzan, kontra edo guztiz kontra daudenen proportzioak orain dela hamar urtekoen oso antzekoak dira.

*EHn mundu guztiak jakin beharko luke euskaraz*¹⁴

	1992	2002	2012	2022
Gutziz ados	29,4	26,3	30,9	13,5
Ados	29,9	32,3	34,6	51,5
Zalantza	20,1	21,0	26,5	26,5
Kontra	10,3	18,0	6,2	7,5
Gutziz kontra	10,3	1,8	1,2	1,0
EE	0	0,6	0,6	0

Euskal Herrian denok euskaraz hitz egin beharko ote genukeen galdetzean ere azken hamarkadan gazteen erdia baino gehiago zegoen ados (%21ek adierazten zuen gutziz ados legokeela eta %35,2k, berriz, ados leudekeela). 2022an, aldiz, gutziz ados edo soilik ados daudenak herena pasatxo baino ez dira (%34,4, zehazki) eta zalantzan daudenak %44, 2012an baino 13,1 puntu gehiago. Bestalde, 9,4 puntuz egin du gora aurka dauden kopuruak.

EHn mundu guztiak euskaraz hitz egin beharko luke

	1992	2002	2012	2022
Gutziz ados	26,7	15,6	21,0	5,0
Ados	30,8	22,8	35,2	29,5
Zalantza	20,5	31,1	30,9	44,0
Kontra	12,3	22,2	11,1	20,5
Gutziz kontra	9,7	7,8	1,2	1,0
EE	0	0,6	0,6	0

14 Ondorengo baieztapenekiko adostasun maila neurtzerako garaian, 1992ko ikerketetan eskala ezberdina erabili zen ondoko bi ikerketekin alderatuta. Hona hemen bi eskalen artean egin den parekatzea:

1992	2002	2012
Oso ados	Gutziz ados	Gutziz ados
Nahiko ados		
Ados	Ados	Ados
Berdin zaio	Zalantza	Zalantza
Aurka	Kontra	Kontra
Nahiko aurka		
Aurka	Gutziz kontra	Gutziz kontra

Galdera bera Lasarte-Oriako testuingurura mugatuta, "lasarteoriatar guztiok jakin eta hitz egin behar dugu euskaraz" baieztapenarekiko adostasun mailaz galdetzean, datuak Euskal Herriaz galdetzean jasotakoan antzekoak dira. Herriko testuinguruan ere, 13,4 puntuz egin du behera baieztapen horrekin guztiz ados daudenen proportzioak, eta 14,8 puntuz gora soilik ados edo zalantzan daudenenak.

Lasarteoriatar guztiok jakin eta hitz egin behar dugu euskaraz

	1992	2002	2012	2022
Guztiz ados	26.4	18.0	17.9	4,5
Ados	27.0	28.7	44.4	47,5
Zalantza	12.4	22.8	17.3	29,0
Kontra	17.6	25.1	17.3	18,0
Guztiz kontra	16.6	4.8	2.5	1,0
EE	0	0.6	0.6	0

Galdetuz gero ea denok erdara dakigunez gero, ez ote litzatekeen euskaraz jakin behar, fenomenoa alderantzizkoa da: guztiz kontra daudenen proportzioak 17,9 puntuz egin du behera, eta kontra dauden edo zalantza egiten dutenen proportzioak batuta 19,9 puntuz egin du gora.

Denok erdara dakigunez gero, ez litzateke euskaraz jakin beharrik


	1992	2002	2012	2022
Guztiz ados	4.6	1.8	1.9	0
Ados	3.6	3.0	2.5	3,0
Zalantza	3.6	4.2	8.0	15,0
Kontra	11.3	48.5	40.1	53,0
Guztiz kontra	76.9	41.9	46.9	29,0
EE	0	0.6	0.6	0

HIZKUNTZA ETA NAZIO IDENTITATEAK

Esan dugu aurrez: hizkuntza atxikimenduari dagokionez aurtengo datuek beherakada nabarmena erakutsi dute, eta hala izan da hiru adin multzoetan, beherakada zorroztagoa izanik gazteak zenbat eta gazteagoak izan.

Hizkuntza kuttuna

	2002	2012	2022
Euskara	22,2	39,5	17,0
Euskara gaztelania baino gehiago	12,6	8,0	11,0
Biak berdintsu	20,4	26,5	28,5
Gaztelania euskara baino gehiago	27,5	11,7	18,0
Gaztelania	15,0	9,9	20,5
Besteren bat	2,4	4,3	5,0



Nazio identitateaz galdetuta ere, joera bertsua ageri zaigu. 2012an euskalduna eta ez besterik sentitzen zen gazteen multzoa denetan ugariena zen (% 45,1), ia erdia izatera iritsiz. Multzo hori zen, gainera, 2002tik 2012ra hazi zen bakarria (18,8 puntuz).

2012tik 2022ra, aldiz, hazi ez diren bakarrik dira euskaldun soilik sentitzen direnen eta espainiar baino euskaldunago sentitzen direnen proportzioak (biak batuta 21,1 puntuko beherakada izan da). Aldiz, euskaldun bezain espainiar sentitzen diren edo euskaldun baino espainiarrago sentitzen direnen proportzioak batuta, 18,2 puntuz egin dute gora. Espainiar soilik sentitzen direnen proportzioak ez du aldaketa esanguratsurik izan (%2,5 dira gaur egun). Bestalde, 2022an gehitu dugu lehen aldiz galdetegian beste nazio identitatearen bat zutela erantzuteko aukera, eta gazteen %8,5ek adierazi du ez espainiarra eta ez euskalduna ez den bestelako nazio identitate bat duela.

Nazio identitatea urtez urte

	2002	2012	2022
Euskalduna soilik	26,3	45,1	28,5
Euskalduna espainiarra baino gehiago	19,8	16,0	11,5
Euskalduna bezain espainiarra	40,7	25,9	38,0
Espainiarra euskalduna baino gehiago	6,6	4,9	11,0
Espainiarra soilik	0,6	1,9	2,5
Besteren bat	0	0	8,5
EE	6,0	6,2	0

Emaitzak oso ezberdinak dira adinaren arabera, ordea. 19-24 bitartekoetan ia hamarretik lau euskaldun sentitzen dira soilik, eta hamarretik ia hiru euskaldun bezain espainiar sentitzen dira. Aldiz, espainiar soilik edo euskaldun baino espainiarrago sentitzen direnak ez dira hamarretik bakarria izatera heltzen. Gazteagoetan, zenbakiak oso bestelakoak dira. 15-18 urte bitartekoetan hamarretik bi baino ez dira euskaldun soilik sentitzen, hamarretik lau pasatxo euskaldun bezain espainiar eta hamarretik ia bi espainiar edo euskaldun baino espainiarrago. 13 eta 14 urtekoen %15,2 sentitzen dira soilik euskaldun, ia gazteen erdiak sentitzen dira espainiar bezain euskaldun, eta ia laurdena espainiar edo euskaldun baino espainiarrago.

Nazio identitatea adinka

	13-14	15-18	19-24
Euskalduna soilik	15,2	21,9	38,3
Euskalduna espainiarra baino gehiago	12,1	11,0	11,7
Euskalduna bezain espainiarra	48,5	43,8	29,8
Espainiarra euskalduna baino gehiago	21,2	15,1	4,3
Espainiarra soilik	3,0	2,7	2,1
Besteren bat	0	5,5	13,8
EE	0	0	0

Kontuak kontu, nazio identitateak ez du garrantzia handirik, gazteen ustez, euskalduna izateko. Eta datuak parekoak direla esan daiteke, adin tarte guztietan. Oro har, hamar gaztetik bik uste du nazionalista, abertzale edo independentista izateak ez zuela batere garrantzirik euskaldun izateko, eta gazteen %26k uste du garrantzi gutxi duela. Tarteko garrantzia ematen dio hamar gaztetik hiruk, eta aldiz, garrantzi handia duela %13k soilik pentsatzen du (eta nahikoa duela pentsatzen dutenak %9,5 dira).

Euskaldun izateko duen garrantzia: Nazionalista/abertzale edo independentista izatea

	<i>Denera</i>	<i>13-14</i>	<i>15-18</i>	<i>19-24</i>
Handia	13,0	15,2	13,7	11,7
Nahikoa	9,5	6,1	9,6	10,6
Tartekoa	30,0	27,3	32,9	28,7
Txikia	26,0	45,5	24,7	20,2
Batere ez	21,5	6,1	19,2	28,7
Besteren bat	0	5,5	5,5	13,8
EE	0	0	0	0

Nazio sentipenak du, gainera, garrantzia gutxien bestelako aldagaiekin parekatuz gero. Garrantzitsuagoa da gazteen ustez Euskal Herrian jaio izatea, Euskal Herrian bizitzea edo euskaraz jakitea. Izan ere, azken aldagai hau da denetan garrantzitsuena, zalantzarik gabe: %45,5ek uste du garrantzia handikoa dela euskaraz jakitea euskaldun izateko.


*Euskaldun izateko duen garrantzia:
EHan jaio izana*

	<i>Ehunekoa</i>
Handia	30,0
Nahikoa	27,0
Tartekoa	19,5
Txikia	15,5
Batere ez	8,0
EE/ED	0,5

*Euskaldun izateko duen garrantzia:
EHanbizi izatea*

	<i>Ehunekoa</i>
Handia	30,5
Nahikoa	35,5
Tartekoa	20,0
Txikia	8,5
Batere ez	5,5
EE/ED	0,5

Euskaldun izateko aldagaien garrantzia



Euskaldun izateko duen garrantzia: Euskaraz jakitea

	2002	2012	2022
Handia	38,3	54,3	45,5
Nahikoa	25,7	31,5	34,5
Tartekoa	20,4	8,0	15,0
Txikia	8,4	4,3	3,5
Batere ez	6,6	1,2	1,5
EE	0,6	0,6	0

Aldiz, azpimarratu behar dugu euskaraz jakiteari ematen zaion garrantziak ere behera egin duela azken hamar urteotan: 2002tik 2012ra garrantzi handia ematen zioten gazteen kopuruak gora egin bazuen nabarmen (16 puntuko hazkundea), azken hamar urteotan 11,2 puntuz egin du behera proportzio berdinak.

ZENBAIT HARI-MUTUR AIREAN

.....

Hala, asko dira gaur egungo Lasarte-Oriako gazteen hizkuntza erabilera ulertzeko airean gelditu zaizkigun galderak. Zerk eragin du halako beherakada gazteen euskararen erabileran? Zeintzuk dira gazteen hizkuntza erabileran gehien eragiten duten faktoreak? Zergatik egiten dute zaharrenek gazteagoek baino gehiago euskaraz haien artean? Zaharrenek haien artean euskaraz gehiago egitearena belaunaldi kontua da, ala fase kontua? Alegia, hemendik hamar urtera ere zaharrenek izango dira euskara gehien erabiltzen dutenak¹⁵ ala azken hamar urteotan gertatutako egiturazko aldaketek sorturiko belaunaldien arteko arrakala baten aurrean gaude? Ikerketa honetako datuek ez digute erantzun argirik eskaintzen ez eta hipotesi bat edo bestea berresten uzten. Baina, gogoetarako zenbait hari-mutur airean uzteko ahalegina egingo dugu lerrotan.

Baina, lehenik, has gaitezen zenbait datu berrikustetik.

ZENBAIT IDEIA BERRARTUZ

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, ez da aldaketa nabarmenik egon azken hamar urteetan. Lasarte-Oriako gazteek ez dute ez gora ez behera egin hizkuntza gaitasunean: euskaraz hitz egiten oso ongi moldatzen direla diote erdiek eta ongi moldatzen direla hamarretik hiruk.

Aldiz, erabileran azken hamar urteetan erdararanzko joerak gora egin du, eta euskararanzkoak behera. Orain dela hamar urte baino gazte gutxiagok hitz egiten du beti euskaraz, eta gehiagok beti erdaraz. Orain dela hamar urte gehiago ziren beti euskaraz aritzen zirenak beti erdaraz aritzen zirenak baino, eta orain alderantziz. Euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutela diotenak ere gutxiago dira orain, orain dela hamar urte baino, eta erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dutenak gehiago (orain dela hamar urte paretsu zeuden, orain gehienbat erdaraz egiten dutenak gehiago dira).

Hala, eremu batean hizkuntza erabiltzeko aukera dagoenean, gazte gero eta gutxiagok hautatzen dute euskara erabiltzea. Bai eskolan, bai etxean, eta bai hezkuntza ez formalean, gazteek orain dela hamar urte baino gutxiago hitz egiten dute euskaraz.

Eskolako datuak, esaterako, deigarriak dira oso. Erabilera ahalbidetzen duen euskara ezagutza bermatuta dagoen -edo egon behar lukeen- espazio batean, irakasleekiko

15 2012an zaharrenek besteek baino gutxiago erabiltzen zuten euskara, beraz, fase kontua bilakatu balitz ere zaharrenek euskara gehiago egitearena, fenomeno berria litzateke.

euskararen erabilera berdintsu mantendu bada ere, gero eta gazte gutxiagok hitz egiten du beti euskaraz ikaskideekin: hamarretik bi izatetik hamarretik bakarra izatera pasa dira. Eta euskararen erabilerak behera egiten du gelako lau hormetatik kanpora atera bezain laster.

Hezkuntza ez formalari eta informalari dagokionez ere, gazteen euskararen erabilerarako espazioa murrizten ari da. Joera oso ezberdinak ageri dira jardueren arabera: kirol taldeetako begiraleekin beti euskaraz dihardutenen proportzioak behera egin du, eta aisialdi talde zein udalekuetako begiraleekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak, berriz, gora. Kontua da parte hartze tasa altuena duten jarduerak direla gazteek begiraleekin gaztelaniaz gehien egiten duten espazioak (eta gehien erdaldundu direnak), eta aldiz, gazteek begiraleekin euskaraz gehien egiten duten espazioak (eta gehien euskaldundu direnak) direla parte-hartze apalena dutenak. Hezkuntza ez formaleko zein informaleko parte hartze tasak, dena den, behera egin du oro har; eta gazteek aisialdi ez antolatuan denbora gero eta gehiago pasatzen dute.

Euskararekiko atxikimenduak ere behera egin du gazteen artean, eta gaztelaniarekiko atxikimenduak, berriz, gora. Haien hizkuntza kuttuna gaztelania edo batez ere gaztelania dela diotenek kopuruak gora egin du, eta haien hizkuntza kuttuna euskara soilik dela diotenak gutxiago dira orain (hamarretik ia bi). Hala, orain dela hamar urte multzo handiena zen haien hizkuntza maiteena euskara soilik zela erantzuten zutenena, eta orain, aldiz, multzo handiena bi hizkuntzak berdintsu maite dituztela diotenena da (hamarretik hiru).

Pentsatzeko hizkuntzarekin ere gauza bera gertatu da: beti eta gehienbat euskaraz pentsatzen dutenen proportzioak behera egin du, eta gero eta gehiago dira beti erdaraz, gehienbat erdaraz eta bietan berdin pentsatzen dutenak. Pentsa liteke, beraz, erabilerak ezezik, gazteek euskararekin sentitzen duten lotura intimoak, oro har, ahuldu egin dela.

Gazteek hizkuntza bati zein besteari zein balio ematen dioten jakiteko beste modu bat da galdetzea bi hizkuntzetako bat soilik jakingo balukete, zein beste hizkuntza ikasiko luketen lehenik. 2012an, erantzunak aski simetrikoak ziren: euskaraz jakinez gero gaztelania ala ingelesa ikasiko zuketean (paretsu ageri ziren bi hizkuntzak), eta gaztelaniaz soilik jakinez gero ingelesa eta euskara (paretsu, kasu honetan ere). Gaur egun, ordea, ingelesak pisua irabazi du gaztelaniaz soilik jakinda ikasiko luketen hizkuntzen artean, eta aldiz, galdu egin du euskaraz soilik jakinda ikasiko luketen hizkuntzen artean (orain gehiengoak gaztelania ikasiko luke). Euskarari etorkizunerako proiektzio edo balio instrumental gutxiago ikusten dioten seinale izan liteke beharbada.

Adin multzokako irakurketa eginez gero, 2012ko ikerketan azpimarratzen zen adin multzo bakoitzak bere bilakaera izanagatik, batzuen eta besteen datuak antzeko samarrak izatera iritsi zirela bai gaitasunari, bai erabilerari eta bai atxikimenduari zegokionez. Gaur egun, egoera bestelakoa da: gaitasunean zein atxikimenduan alde nabarmenik ez egonagatik, inkestatuen artean helduenek dute gazteagoek baino euskararako joera handiagoa, ia 30 puntuko aldeaz. Izan ere, hizkuntza kuttunari eta

erabilerari begiratuta, euskarak behera egin du 13-14 eta 15-18 urtekoen artean (gaitasuna berdin mantendu da). 19-24 urtekoen artean, aldiz, hizkuntza maiteen gisa behera egin du euskarak, baina erabilerak gora egin du orain dela 10 urteko gazteekiko (gaitasuna berdin mantendu da hauen kasuan ere). Deigarria da hauen kasuan ez dagoela korrelaziorik atxikimenduaren beherakadaren eta erabileraren gorakadaren artean.

Hala, gazteen ustez haiek baino zaharragoek gehiago egiten dute euskaraz eta gazteagoek, aldiz gutxiago. Joera hau, gainera, orokorra da hiru adin taldeetan. Hala ere, gazteenen kasuan dezentek (laurdenak) erantzuten dute haiek baino gazteagoek euskara gehiago erabiltzen dutela. Ez dakiguna da gazteen pertzepzio oker bat ote den, belaunaldi berriek gaztelaniarako joera txikiagoa dakarten, ala euskaraz gehiago egiten duten oraindik haurrak direlako (apustu egin beharko bagenu, azken hipotesiaren alde egingo genuke).

Euskal Herriko testuinguruan euskarak bizi duen egoerari dagokionez, gazteen ikuspuntu nagusia da euskararen egungo egoera ez dela ez txarra, edo ona ez dela. Hamarretik zortzik du ikuspuntu horietako bat, eta hamarretik bik uste du egoera txarra dela. Oso gutxi erantzuten dute oso ona edo oso txarra dela, eta baliteke datuok erakustea gazte askok ez dutela galdera honen inguruko iritzi erabat sendorik. Gauza bera gertatzen da Lasarte-Oriako testuinguruaren irakurketarekin ere. Erantzunak ezkorxeagoak dira, hori bai. Ikuspuntu nagusia da euskararen egungo egoera ez dela ez ona ez txarra edo txarra dela (hamarretik seik du ikuspuntu horietako bat), eta kasu honetan gazteen laurdenak soilik pentsatzen du egoera ona dela. Baina, berriz ere, muturreko erantzunak oso urriak dira.

Azken hamar urteetako euskararen bilakaeraz galdetutakoan ere fenomeno berdinarekin egin dugu topo: muturreko erantzunik ez, eta gaur egungo egoera hobea dela, berdintsua dela edo txarragoa dela erantzuten dute 10etik 3nak. Datozen hamar urteetako bilakaeraz galdetuta, euskararen egoera berdintsu irudikatzen du 10etik 4k, hobea 10etik 3 pasatxok eta okerragoa 10etik 2k¹⁶. Ez dakiguna da den gazteek egoera okerragozat edo hobetzat irudikatzen dutena.

ZENBAIT KORRELAZIO

Datu dantza alde batera utziko genuela esan dugu, baina, hona hemen azken datu sorta bat. Jakin badakigu aldagai ezberdinen artean lotura badagoela. Ezinbestean daude eremu bateko eta besteko erabilerak lotuta, persona berdinak baitura batean zein bestean hitz egiten dutenak. Eta gazte batek eremu batean dauzkan harreman esanguratsuak garatzeko hizkuntza bat ala bestea erabiltzeak eragingo dio bestelako eremuetan, ezinbestean. Zaila da, ordea, eremu ezberdinetako hizkuntza erabilerak haien artean duten elkarreragina neurtzea.

¹⁶ Eztabaida taldeetan, aldiz, bestelako iritziak aurkitu ditugu: parte hartzaileek erantzun nahiko ezkorrak eman dituzte, esaterako, etorkizunari buruz galdetzean.

Gure datuetan estatistikoki esanguratsuak diren korrelazioak bilatzea da elkarreragin hauek atzemateko modu bat. Hala, gure datuetan korrelazio oso altua atzeman dugu gazteek lagunartean hitz egiten duten hizkuntzaren eta hainbat aldagairen artean. Argi gera bedi, dena den, korrelazio bat egoteak ez duela esan nahi kausa-efektuzko lotura bat dagoenik.

Spearmanen korrelazio koefizientea¹⁷ erabiliz ondoriozta dezakegu, esaterako, korrelazio handia dagoela nazio identitatearen eta lagunarteko hizkuntza erabileraren artean (0,605-ekoa, zehazki). Baita pentsatzeko hizkuntzaren edo hizkuntza kuttunaren kasuan ere (0,569 eta 0,649, hurrenez hurren). Badago, beraz, identitatearen edo atxikimenduaren esparruaren eta hizkuntza erabileraren arteko lotura bat. Lagun euskaldunekin erabiltzen den hizkuntzaren eta hizkuntza gaitasunaren artean ere badago korrelazio sendo bat (0,534). Eta azkenik, banaka harturik, amaren edo aitaren hizkuntza gaitasunarekiko korrelazioa ertaina baino ez da (0,391 eta 0,415, hurrenez hurren), baina euskara etxean edo eskolan ikasi izanarekiko korrelazioa sendoa da (0,519). Oroitaraziz korrelazioak ez duela zertan kausa-ondoriozko lotura izan, ondorengo lerrootan aurkitutako korrelazio nagusiak aintzat hartuz aldagai bakoitzarekiko irakurketa bana egingo dugu.

ETXEKO HIZKUNTZAREN ERAGINA


2012ko ikerketan argi gelditu zen orduko gazteen artean ama euskalduna zutenek eta ama erdalduna zutenek guztiz bestela jokatzeko zutela euskarari dagokionez. Bikote euskaldunetan hazitako gazteek euskararen erabilera handiak edo oso handia zuten, bikote mistoetan hazitakoek erabilera ertaina, eta bikote erdaldunetan hazitakoek, berriz, txikia edo oso txikia.

Aurtengo datuek erakusten digutenez, ez dago alde estatistikoki nabarmenik bikote erabat euskaldunek hezitakoen eta ama edo aita euskalduna dutenen artean, beti euskaraz ari direnei begiratuta (ama soilik euskalduna dutenen artean %10,1 gutxiago dira beti euskaraz egiten dutenak eta aita soilik euskalduna dutenen artean %3,2 gutxiago baino ez). Euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenei begiratuta ere ez dago alde nabarmenik (%33,3 dira bi gurasoak euskaldunak dituztenen artean, %36,3 ama soilik euskalduna dutenen artean eta %27 aita soilik euskalduna dutenen artean). Alde azpimarragarrienak, bi gurasoak erdaldunak dituztenen eta beste hiru kategorien artean daude.

17 Spearmanen korrelazio-koefizientea, izenak berak dion bezala, bi aldagai ordinalen arteko korrelazio koefiziente bat da. Negatiboa denean, korrelazio negatiboa dago eta positiboa denean, berriz, positiboa da. Koefizientearen balio absolutuari begiratuta, korrelazioaren sendotasuna hautematen da: 0,3tik behera, ahula; 0,3-0,5 tartean, ertaina; 0,5tik gora, sendoa.

	<i>Ama eta aita euskaldunak</i>	<i>Ama baino euskalduna ez dutenak</i>	<i>Aita baino euskaldunak ez dutenak</i>	<i>Aita eta ama erdaldunak dituztenak</i>
Beti euskaraz	47,6	37,5	44,4	11,7
Euskaraz erdaraz baino gehiago	33,3	36,3	27	16
Erdaraz euskaraz baino gehiago	11,9	15	14,3	26,6
Beti erdaraz	7,1	10	14,3	43,6
Bestelako erantzunak	0	0	0	2,1

Lagun euskaldunekiko hizkuntza ohitura, gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera




Datu honek beste datu baten hutsunea ikusarazten digu. Izan ere, ikerketa honetan ez diegu galdetu gazteei haien gurasoek zein hizkuntzatan hitz egiten zuten beraien artean. Izan ere, gurasoek haien artean erdaraz egiten badute, etxeko hizkuntza paisaia ez da hainbeste aldatzen guraso bakarra edo biak euskaldunak izan (guraso batekin edo bestearekin modu berezian izandako elkarrizketetan legoke aldea).

Adin tarte ezberdinen arteko aldeari erreparatzen badiogu, zaila da etxeko hizkuntza ezagutzan eta erabileran arreta jarritz ontorio argirik ateratzea. Badakigu etxeko hizkuntza gaitasuna eta kaleko hizkuntza erabileraren artean loturak badaudela, eta

baita euskara etxean edo eskolan ikasi izanaren eta lagunarteko hizkuntza erabileraren artean ere. Baina, ez elementu batek eta ez besteak ez du adin tarte ezberdinen jokaera ezberdintasunak azaltzeko balio, guk dauzkagun datuekin, bederen. Izan ere, etxekoen hizkuntza gaitasunean alde nabarmenik ez da ageri adin tarte batetik bestera. Adin tarte ezberdinetako gazteen gurasoen arteko hizkuntza erabilera aztertu behar litza-teke, datu horrek adin tarte ezberdinen arteko arrakalarekin bat egiten duen ikusteko. Gainerakoan, hizkuntza jasotzeko moduan ere ez dago estatistikoki esanguratsua den diferentziarik batzuen eta besteen artean. Zaharrenen artean dago euskara etxean jaso dutenen proportziorik altuena, baina aldea txikia da (%6, 15-18 urte bitartekoekiko, eta %2,7 13-14 urte bitartekoekiko).

Euskaraz jabetzeko/euskara ikasteko modua eta garaia adin tarteka

	<i>Denera</i>	<i>13-14</i>	<i>15-18</i>	<i>19-24</i>
2/3 urte baino lehenago, etxean	13,0	15,2	13,7	11,7
2/16 urte bitartean, eskolan	9,5	6,1	9,6	10,6
17/24 urte bitartean eskolan	30,0	27,3	32,9	28,7
Eskolaz kanpo, euskaltegian	26,0	45,5	24,7	20,2
Eskolaz kanpo, kalean	21,5	6,1	19,2	28,7
Ez dut ikasi	0	5,5	5,5	13,8



Edonola ere, aurtengo datuek erakutsi dute gurasoekin beti euskaraz egiten dutenen proportzioak beherakada handia izan duela (ia 20 puntuz hamar urteotan) eta gehiago dira gaur egun euskaraz egiteko gai izanagatik hurrekin gaztelaniaz egiten duten gurasoak orain dela hamarkada bat baino. Senitartekoekin ere erabilerak behera egin duela ere erakusten dute datuek. Merezi luke, beraz, aurrera begira etxeko hizkuntza erabileran gertatzen ari diren joera aldaketa hauetan arreta jartzea.

NAZIO IDENTITATEAN ARRAKALA

Bada datuotan zaharrenen eta gazteagoen arteko arrakala bat, lagunarteko hizkuntza erabilerarekin bat datorrena. Ikerketa honetako datuek diferentzia handia erakusten dute 19-24 urte bitartekoen eta gazteagoen artean, nazio identitateari dagokionez. Zaharrenen artean erdia euskalduna soilik (%38,3) edo espainiarra baino euskaldunago (%11,7) sentitzen da. Aldiz, 15-18 bitartean heren bat baino ez da euskaldun soilik (%21,9) edo espainiarra baino euskaldunago (%11) sentitzen. Gazteagoetan ere herena sentitzen da euskaldun edo espainiar baino euskaldunago, baina euskaldun soilik sentitzen direnen proportzioa adin tarte honetan da apalena (%15,2).

Interesgarria litzateke jakitea Euskal Herrian, modu zabalean, baina, baita Lasarte-Orian ere, zehazkiago bizi izandako bilakaera politikoak nola eragin duen gazteen identifikazio politikoan. Izan ere, gatazka politikoaren bilakaerak mugarrak argiak bizi izan ditu azken hamarkadan. 2017ko apirilean gauzatu zen ETaren (Euskadi Ta Askatasunaren) armagabetzea, baina, 2011ko urtarrilean erakundeak su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria aldarrikatu zuen.

Jakina da gatazkan zehar sortutako eta hark polarizatutako identitateek ageriko indarkeriaren amaiera ofiziala edo faktikoa baino askoz geroago iraun ohi dutela¹⁸. Baina, hamarkada bat igaro da amaiera harrez geroztik, eta Euskal Herriko hainbat txokotan bezalaxe, Lasarte-Orian ere aldatu egin da testuinguru politikoa. Udalerria 1986an eratu zenetik Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE) egon bazen indarrean, 2011n lehen aldiz Bildu koalizio ezkertiar eta abertzaleak irabazi zituen hauteskundeak. Legegintzaldi bakarra izan bazen ere Bildurena, garai politiko berri baten irudikapena izan zen alkate-tza aldaketa ere.

Euskal Herrian, iraganeko indarkeriazko gatazkaren oroitzapen zuzenik ez duten tokiko gazte helduen lehen belaunaldia adin-nagusitasunera iritsi da. Lasarte-Orian ere, gatazka-osteko lehen belaunaldia gaur egungo errealitatea politikoari buruzko bere interpretazioa egiten ari da, bigarren eskuko oroitzapen eta kanpoko diskurtsoen bidez eraikitako iraganaren ulermenetik abiatuz¹⁹. 2011 hartan 8-13 urte zituzten haiek orain

18 Halaxe dio Samara Veltek, Oñatiko gatazka ondoko lehen belaunaldiaren diskurtsoen azterketaren harira (Velte, 2022).

19 Veltek dionez, hezkuntza formalean narratiba "ofizialik" ez dago, politika-arloan interes-gatazka dago nagusituko den narratibaren inguruan, eta aldi berean, familia barruko transmisioa ere etenda dago, hein handi batean. Guraso batzuk ez dakite iraganaz nola hitz egin eta beste batzuk beldur dira iraganeko traumen zati bat seme-alabei transmititzeko. Eta gazte asko, aldiz, ez dira "jakin beharko luketen" zerbaiz galdetzera ausartzen (Velte, 2020).


19-24 urte dituzte, eta beraiek dira nazio identitatez euskaldunen sentitzen direnak ezezik, lagunartean euskaraz gehien egiten dutenak ere. Orain 13-14 urte dituztenak hizketan ikasten ari ziren orduan, eta 15-18 dituzten gehienak Lehen Hezkuntzako ikasleak ziren. Ezinezkoa zaigu orduko giro politikoak eta etxeko transmisio ideologikoak gaur egungo gazteengan izan zuen eragina neurtzea, eta baita nazio identitateak eta hizkuntza praktikek duten elkarrekiko loturari buruzko hipotesi sendorik plazaratzea ere. Baina, baliteke etorkizuneko ikerketetarako ildo interesgarri bat izatea.

GAITASUNA GAKO, ORAINDIK...

Ikusi dugu gazte gehienek euskaraz hitz egiteko gaitasun altua dutela erantzuten dutela. Erdiak baino gehiagok erantzuten du, hain zuzen, oso ongi hitz egiten duela euskaraz, eta gazteen herenak pasatxo nahiko ondo hitz egiten duela dio.


Euskaraz “oso ongi” eta “nahiko ongi” mintzatzen direnek, ordea, oso joera ezberdinak dituzte hizkuntza erabilerari dagokionez.

Lagun euskaldunekin egiten duten hizkuntza erabilera, euskara gaitasunaren arabera



Gazteen erdiak pasatxo dio euskaraz oso ongi moldatzen dela, eta hauen artean hamarretik lau dira ia beti euskaraz mintzatzen direnak. Aldiz nahiko ongi hitz egiten dutela diotenen artean (gazteen herena lirake hauek) hamarretik bakarra baino ez. Euskaraz oso ongi hitz egiten dutenek, bestalde, gehienbat euskaraz egiten dute (hamarretik zazpi beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago), eta nahiko ongi egiten dutenek nagusiki gaztelaniaz (herenak baino gehixeagok beti erdaraz, eta beste ia heren batek erdaraz euskaraz baino gehiago).

2002ko zein 2012ko datuek ere joera bera erakusten zuten: batzuek eta besteek gutzi jokabide ezberdinak zituzten orduan ere hizkuntzaren erabilerari dagokionez.



Euskaraz etxean ikasi dute batzuek (%43k) eta eskolan besteek (%54k), bizitzako lehen 3 urteetan zehar askok (eta %2,5 baino ez dira euskaraz 17 urtetik aurrera, euskaltegian edo kalean ikasi dutenak) eta haien hizkuntza gaitasuna garatzen joan da urtez urte, gaur arte. Pentsatu liteke euskara etxean jaso dutenek, jakinik gehien gehienak D ereduaz ikasiak direla²⁰, ez dutela hizkuntza gaitasuna erabilerarako muga gisa bizi. Aldiz, etxean euskaraz ikasi duten askori badirudi eskolak ez diela hizkuntza gaitasun osoa garatzeko aski baliabiderik eskaini.

Edozein modutan ere, eztabaida eskola ereduaz gaindikoa da. Badakigu D ereduaz delako etxean euskara jaso ez dutenentzat euskarazko gaitasuna lortzeko biderik eragin-korrena, baina, egun D ereduaz erabat hedatua egonik erabilerak gora egiten ez baldin badu, seinale ereduaz bera ez dela erabilerarako berme. Ardura handia jarri da azken hamarkadetan eskolaren gain, pentsatuz eskola bidez euskaldunduko zirela belaunaldi berriak eta horrek berez ekarriko zuela erabileraren gorakada. Gerora ikusi dugu euskaraz jakiteak berak ez duela erabilera bermatu, eta eskola bidezko euskalduntzeak bere mugak erakutsi ditu, eta azken aldian euskararen biziberritzearen inguruko diskurtsoak ezagutzatik erabilerarako jauzian oinarritzen dira. Beharbada, tartean ere balegoke zeri heldua. Alegia, baliteke eskolak eskaintzen duen hizkuntza gaitasuna ez izatea aski, edo ez izatea egokia, haur eta gazteek euskara modu informalean erabiltzeko, euskara eskolan ikasi, edo etxean jaso²¹.

20 Erduei dagokionez, proportzioak ez dira aldatu azken hamar urteotan: LH eta DBHn hamarretik 8k ikasten du D ereduaz.

21 Josune Zabalak (2018) azpimarratzen du euskararen irakaskuntzan praktika kontziente eta gidatuak falta direla eskolan; nahiz eta egia den ahozko komunikazio-kompetentziak lantzea garrantzitsua dela edozein hizkuntzatan eta edozein ikaslerentzat, are garrantzitsuagoa da euskararen kasuan, euskara bigarren hizkuntza baita ikasle askorentzat. Dena den, hizkuntza gutxituaren ahozko erabilera-aukera eta -formetan sakontzea interesgarria zaigu euskaraz eskolan zein etxean ikasi dutenei begira, aurreiritzi faltsua baita etxetik euskaldun direnek ez dutela ahozkoa landu beharrik.



BIGARREN ATALA
ZER DIOTE GAZTEEK?

SARRERA

.....

Kokapen metodologikoaren atalean azaldu dugun bezala, ikerketa honetan, gazteek betetako inkestez gain, gaztez osatutako lau talde eztabaida izan ditugu datu iturri; bana 13-14 eta 15-18 adin tartetean, eta bi 19-24 urte bitartekoetan²².

Talde eztabaidetan bat-bateko erantzunak eta partaideen arteko elkarrizketa espontaneoak bilatzen dira, partaideek zer, nola eta zergatik pentsatzen duten jakiteko. Gazteek haien bizipenak, ideiak eta sentipenak partekatzean datza talde eztabaida baten arrakasta. Elkarrizketa aberats batek partaideek haien ingurua ulertzeko duten modura hurbiltzeko gakoak eman ditzake; are gehiago zailtzat edo tabutzat jotzen diren gai ei buruz hitz egiteko espazio eroso bat sortuz gero. Eta giro horixe sortzen saiatu gara²³.

Gure talde elkarrizketetan parte hartzeko prestutasuna adierazi duten gazteetarik asko gaiarekiko sentsibilitateak bultzatu ditu ikerketan parte hartzera, bereziki zaharreneen talde-eztabaidetan. Hala, gazteenen taldean izan ezik, gainerako hiru elkarrizketa taldeak euskararen erabileraren aldeko jarrera zuten pertsonak osatu dituzte, nagusiki. Gure analisisian, beraz, kera horren eragina nabaria da: hainbat ahots entzun gabe gelditu zaizkigu²⁴.

Talde eztabaidetan parte hartu duten 25 lagunen ahotsez osatu dugu, beraz, kaleidoskopio hau. Elkarrizketetan atera diren ideia gakoak aukeratu ditugu, eta gai horiekiko gazteek plazaratutako iritziak, ideiak eta sentipenak haien hitzez ekarri ditugu orriotara. Eta horietatik abiatuz hausnarketarako ildo batzuk proposatu ditugu lan honen azken orrietan.

22 Xehetasun gehiagorako, jo ikerketaren kokapen metodologikoari buruzko atalera.

23 Onar dezagun: ez da erraza izan. Bereziki gazteenekin, zaila izan da elkarrizketa espontaneo eta jarraiak lortzea. Baina, gainerako bi adin taldeetan, espazio seguruak sortzea lortu dugula esango genuke. Bereziki eskertu dugu gazteen elkarrekiko prestutasuna eta gu haien errealitatera hurbilazteko egindako ahalegina.

24 Hutsune hori bera eztabaidetan atera den gaia da, eta susmoa dugu, besteak beste, gazteek euskararekin loturiko ekimenekiko duten loturan edo loturarik ezean dagoela hutsunea ulertzeko gakoetako bat.

EUSKARAREN BURBUILA

.....

Lasarte-Oria, oro har, herri erdalduntzat dute gazteek. Badakite herrian gehiengoak erdaraz hitz egiten duela, eta euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak direla gutxiengoa -edo, haien hitzetan, *bereziak*.

Herri erdalduna izatearen irudia, kanpoko errealitatearekiko konparazioan eraikia ere bada. Eta horretan Usurbilekiko kontrastea asko nabarmentzen dute gazteek. Izan ere, Lasarte-Oriako gazteak Usurbilgo gazteekin elkartzen dira, besteak beste, batxilergoa ikastera joaten direnean.

Irene (17 urte): Eske Usurbilekoek bueno, ez dute ezer egiten erderaz.

Marta (18 urte): Ez, ez da entzuten.

Elene (17 urte): Ez, ez. O sea, es una pasada, eta bira ze gertu gauden eta Lasarten dena gaztelaniaz entzuten dezu porque lehengo urten, ustet, jun ginala kale neurketa egitea, tokatu zitzaigun guri...

Irene (17 urte): Bai, guri tokatu zitzaigun.

Elene (17 urte): Ikusteko euskara zenbat erabiltzan zan kaletik ta pff, penagarria; oso gutxi. Eta jo ikustezu Lasarte baten ia dena gaztelania dala. Zu Okendoa juten zea eta dena gaztelania entzuten dezu umeen arten. Ba jo, Usurbil hain gertu izanda dena euskeraz. [...] Usurbilek esaten du Lasarte "txusma" dala.

Herriaren irudi hau bera, herri erdaldunarena, alegia, alde zuzenetik oztopo gisa ulertzen dute euskaraz jardun nahi duten gazteek²⁵. Euskaraz bizi nahi izatea erronka zail gisa irakurtzen dute.

Dirudienez, Usurbilen kasuan ez bezala, gazteen begietara bi Lasarte-Oria daude: bata, nagusia, erdaraz eta erdarazko mundu erreferentzial batean bizi dena, eta bestea, *burbuila*, euskaraz bizi den edo euskaraz bizi nahi duen jendez osatua.

Manex (24 urte): Nik ustet azkenian lehen esan deun burbuja haundi-gua zala. Eta orain txikitu iten dala. Eta hor mantentze geanak ba euske-

25 Aurrez egin diren ikerketa batzuetan antzeman izan da haien herria erdalduntzat duten gazteen etsipen sentimendua, Amorebieta-Etxanoko gazteen artean, esaterako (Soziolinguistika klusterra, 2020)

raz ite deu, nahiz eta erderaz ere asko egiten degun. Baino burbuja hortatik atea danak, euskera galdu du. [...] Ez det esaten “burbuja” *gezurra* izateagatik. Esaten det burubuja ba guri iruditzen zaigulako Lasarte dala gauza bat, eta gu gaude Lasarteren zati hontan. Eta gu gaudela, zentzu horretan, burbuja batian. Edo jendia etortze zaizunian “ba lasartearra izateko, oso ondo itezu euskeraz”..

Manex (24 urte): O sea, guri iruitze zaigu gure errealitatea normalena. Baino gero...

Ibon (23 urte): Bai, baino kontziente gea gutxiengoa geala.

Ez dute denek konpartitzen euskaraz bizi nahi izatearen desioa, noski. Eta desioa eta praktikak ere ez datoz beti bat. Lasarte-Oriako gazteen hizkuntza erabilera profilak askotarikoak dira. Desio zein praktika jakin batzuk dituztenek burbuila baten barruan egotearen sentipena dute, eta aldiz, euskaraz bizitzeko desio berezirik ez duten eta gehienbat gaztelaniaz bizi diren gazteek, aldiz, bestelako sentipenak dituzte. Badira euskara eskola eremuan baino erabiltzen ez duten gazteak, eta baita eskolan ere erdaraz ikasten dutenak ere, eta hauek ez dute burbuila batean bizitzearen sentipenik.

Baina askok eta askok, ez dute hizkuntza jokaera bat eta bakarra izan haien bizitza osoan zehar. Hizkuntza ohiturak aldatuz joan zaizkie adinean aurrera egin ahala. Burbuila, izan ere, ez da hermetikoa. Izan, ez du mintza zehatzik ere. Askotan, barruan eta kanpoan jende berbera dago. Eta hitzun bat alde batean edo bestean egon daiteke, eguneko zein bizitzako momentuaren arabera.

HIZKUNTZA (OHITURA) ALDAKETAK

.....

EGUNEROKO HIZKUNTZA ALDAKETAK ETA TENTSIOAK

Gazteen bizitzan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea munduko gauzarik ohikoenak da. Egunero bizi dituzte hizkuntza batetik bestera jauziak, hizkuntza bat ala beste erabili erabakitzeko uneak, elkarrizketa berean hizkuntza batek baino gehiagok topo egiten duten momentuak. Gazteak ohituta daude eskola eremuan zein kalean zein hizkuntza erabili erabakitzeko estrategiak garatzera. Tentsio uneak identifikatzen dituzte, eta, eskuarki, saihestu. Hori guztia modu ez esplizituan gertatzen da, ordea: hizkuntza bat ala beste erabiltzeak maiz esaten den hori baino gehiago esan nahi du, baina ez da hizkuntzaz beraz hitz egiten²⁶.

Gazteen artean batzuek ohitura dute haien artean euskaraz hitz egiteko, beste batzuek erdararako joera argia dute, eta badaude tartekoak ere, norekin ari diren, hizkuntza bat ala bestea erabiliko dutenak. Hala, batzuk eta besteak elkartzen direnean, hizkuntza bat ala beste erabili erabaki behar izaten dute uneoro. Eta negoziatu gabeko hizkuntza aldaketak, maiz, gaztelaniaren aldekoak izaten dira.

Ibon (23 urte): Eta adibidez, kuriosua da; frontenisera juten baldin bagea, jute bagea 4, 5, 6, igual han euskeraz iten deu eta gero 5-6 hoiek tabernara bueltatzen geanean eta ya kuadrilla hortan baldin badao beste baten bat ez daukana ohitura euskerara jotzeko eta gaztelaniaz hasten baldin bada... Ba elkartu gean 7-8ak erderaz iten deu konbertsazioa. Normalen gaztelaniaz.

Kuadrilla barruan ere, hizkuntza joera ezberdinetako jendea elkartzean, inertzia berbera dela diote:

Andoni (19 urte): Ya, eta nik uste gaur egun ya e, kuadrilla erdiak erdaraz egiten badu eta beste erdiak euskaraz, ba beste erdiak ya...

Amaia (23 urte): Eta erdiak baino gutxiago ere bai.

26 Jone Miren Hernándezek, Iñigo Beitiak, Josu Ozaitak eta Ainara Santamariak dioten bezala, "Inpresioa dugu gazte hauek txikitatik, eskolaren eremuan, ohitu egin direla horrelako estrategietara: egoeraz jabetu eta jokaera horretara moldatu. Gutxi hitz egiten da, gutxi gogoetetzen da, gutxi adosten da." (Soziolinguistika Klusterra, 2020:106)

Andoni (19 urte): Ya, ya, ere bai. Hamarretik bik, hiruk hitz egiten badute, segun ze pertsona diran, hori ere bai, nik uste influentzia daukala, asko, ahal gera denak pasa erderaz egitera.

Hizkuntza modu ez esplizituan adostean, tentsio inplizitua sortzen du joera ezberdina duten bi hiztunen artean. Bereziki lagunartean²⁷. Tentsio horrek ez du zertan harremanean arrakala nabarmenik sortu, baina, hiztunek ebatzi beharreko arazo gisa bizi dute. Izan ere, bi pertsonak bi hizkuntzak ondo ulertuta -eta hitz eginda- ere, bakoitzak aukeratzen duen horretan hitz egitea ez da egoera ohikoa ez eta eroso ere, hizkuntza bana aukeratzen dutenean²⁸.

Norbere joerakoa ez den hizkuntza aldatu beharrak, ordea, tentsioa norberari ere sor dakioko. Zenbait egoeratan, parekoak erdarazko joera daukanean, adibidez, euskaraz hitz egiteko joera daukanak senti lezake berari dagokiola hizkuntzaz aldatzea. Hain zuzen ere, esplizitatzen ez bada, ulertzen delako *normalena*, gaztelaniaz egitea dela.

Olaia (22 urte): Niri kontrakoa igual pasa zait, nik gazteleraz, hauek bezela, pues kosta egiten zait edo ez naiz komoda sentitzen orduan nik euskeraz, besteak gazteleraz erantzuten dit, ba erantzuten dit. Hasta igual bestearen ohiturak aldatu, nik euskeraz. Euskeraz. Ba nik ez det aldatuko, ulertzen didazu ba ya está, ez? Eta gero besteak euskeraz, ta esaten dezu, "jo, begira". [...] Eske neri ulertzen badit, aber, ez badit ulertzen ez diot hitz egingo euskeraz, baina, tentsio gehiago sortzen dit neri erderaz hitz egiteak, horrek gehiago suposatzen dit niri behintzat, orduan, ez dakit...

Lur (22 urte): Hor onena, esatea "badaukat euskera egitea zurekin, nahiz eta ez hitz egin zuk?" eta ya está.

Andoni (19 urte): Ni erderara pasako nintzan. O sea, gaizki eginda, gainera ez nintzalako komodo sentituko. Berez egin beharko nuke Olaiak bezela baina... ez dakit.

Egoera horien aurrean, erdararanzko aldaketaren nagusitasunarekiko kritiko ageri dira zenbait gazte.

27 Hala diote Olatz Altuna eta Jone Miren Hernándezek ere:

Berehala sumatzen dute, adibidez, solaskidearen deserosotasuna euskara tarteko dela, eta aitaren batean pasatzen dira euskaratik gaztelaniara. Konektatu-deskonektatu, euskara-gaztelania, batetik bestera igarotzea oso naturala zaie. Hizkuntza-gatazka saihestu egiten dute. Ez dute tentsiorik nahi, are gutxiago lagunekin edo ezagunekin aritzen direlarik. (Altuna & Hernández, 2021:34)

28 Eta bestelako ikerketetan agerian geratu den bezala gazteek "egoerak berehala 'irakurtzen' dituzte, eta gatazkak edo talkak ekiditeko estrategiak aplikatzen dituzte" (Soziolinguistika klusterra, 2020:105).

Andoni (19 urte): Eske, ez dakit ere ezta hain ondo hitz egiten, o sea, eta zergatik ni saiatu behar naiz eta zu ez, no? Pixka bat injustua iruditzen zait.

Asimetrikotasunaz jakitun dira, baina, horraino heltzen dira. Helduagoei bezalaxe, horri aurre egiteko estrategiak aurkitzea ez zaie erraza egiten.

HIZKUNTZA ALDAKETAK ETA MUDANTZAK NERABEZAROAN²⁹

Nork bereari eusten. Gaztelaniari erraz, euskarari nekez.

Eztabaidetan behin eta berriz atera den kontua izan da eskola giroko aldaketen harira gertatutako hizkuntza mudantzena³⁰. Gazteen bizipenetan eskola giroarekin lotuta ageri dira hizkuntza ohituren aldaketa iraunkorren testigantzak.

Derrigorrezko Bigarren Hekuntzarako (DBHrako, hemendik aurrera) jauzian gertatzen da aldaketa nagusia. Ordura arte haur izandakoentzat nerabezarora jauzi egitea da, neurri batean, *handien* eskolara pasatzea. Eta eskola-eraikinez aldatzearekin batera aldatzen dira, askoren kasuan, hizkuntza ohiturak ere. Badirudi DBHn araua kideekin gaztelaniaz hitz egitea dela. Eta euskarazko joera duten gazteentzat ez da erraza euskaraz hitz egiteko ohiturari eustea.

Irene (17 urte): Gure artean euskaraz hitz egiten deuen eta lagunekin euskeraz hitz egiten deuen.

Elene (17 urte): Baina geo ikustezu ondoko jendia, ondoko kuadrilla eta asko txokatzeizu, ze ikusteituzu betidanik euskeraz hitz egiten dutela eta orain ba... [...] Askotan zaude igual pertsona talde batekin hizketan, igual DBH garaian... Denak daude gaztelaniaz hitz egiten eta nahiz eta zuk nahi dezunean euskaraz erantzun, da, como, ez det erantzungo euskeraz, zeba karo... Denak gaztelaniaz ari dira. Eta orduan, ya hor, ohitura galtzen hasten zea, nik uste det.

Irene (17 urte): Da bildurra bezela, zer esango dizuten. O sea, beldur hori nik oraintxe ez daukat, baina DBH 1n eta 2n bai. Zan, ostras, euske-

29 Hizkuntza mudantzen kontzeptua Joan Pujolar eta Isaac González-ek proposatu zuten hiztunen hizkuntza portaeran ematen diren bihurtzeak izendatzeko (Pujolar eta González, 2012), alegia, hiztun elebidun edo eleantuntun baten bizitzan zehar, bere hizkuntzen erabilera ohituretan ematen den aldaketa esanguratsua izendatzeko (pertsona batekin hizkuntza bat erabiltzetik sistematikoki, beste bat erabiltzera pasatzea, esaterako, edo esparru jakin batean, lagunartean edo senideekin, adibidez, hizkuntza bat erabiltzeko ohitura izatetik beste bat erabiltzeko ohitura izatera pasatzea).

30 Mudantza esaten zaio hizkuntza ohituren aldaketa iraunkor bati. Alegia, unean uneko hizkuntza aldaketaz haratago, hiztunak bere hizkuntza ohiturak aldatzeari; izan lagunartean, izan pertsona jakin batekin edo esparru jakin batean, eskuarki hizkuntza bat erabiltzetik beste bat erabiltzera igarotzeari, alegia.

raz erantzuten badet igual zerbait esango didate. Eta nahiz eta gero ez esan... Baina beldur hori sentitzen da.

Testuinguru horretan, gaztelaniaz hitz egiteko joera erosoagoa da, eta lehendik joera hori zuten gazteek ez dute DBHra jauzia egiteko garai hura tentsio-garai gisa bizi. Batzuen hitzetan, Lehen Hezkuntzatik zekarten joera bati jarraipena ematea izan zen DBHra igarotzea, eta DBHn euskarazko joera zuten pertsonekin gaztelania mantentzea ez zuten arazo edo erronka gisa bizi.

Borja (19 urte): Ya, ez nuke arazoa bezala izango euskaraz hitz egitea berez. Baina, beti ba erdarara jotzen dut eta orduan, ya bestearekin, ez dakit, ohitura hori hartzen dut, nahiz eta berak ba igual euskaraz hitz egin.

“Ez dakit zeatik baina, bai”. Konturatu gabeko aldaketak.

Hizkuntza mudantza prozesu bat da. Prozesu hori, ordea, modu kontzientean bizi liteke, edo ez. Eta mudantzaren bat bizi izan duten gazteetako askok ez diote azalpen sendorik ematen gertatutako ohitura aldaketari. Ez bizitzen ari diren unean bertan, ez une horri atzera begiratutakoan ere.

Elk.: Txikiak zinatzenian, 8-9 urterekin, adibidez, euskaraz gehiago hitz egiten zenuten lagunekin? Ala ze hizkuntzatan hitz egiten zenuten?

Alba, Ainara eta Iraide (13na urte): [Hirurek batera] Euskeraz.

Janire (13 urte): Baina, inguruan ere bai, nabaritzen zan. Jende gehiagok egiten zun euskeraz txikiagoak ginenean.

Elk.: Noiz hasten da aldatzen asuntua?

Janire (13 urte): DBHn.

Alba (13 urte): Bai, DBH1en.

Elk.: Zer pasatzen da, ba?

[Isiltasuna]

Elk.: Denek dakizkizue bi hizkuntzak, baina, denek erabiltzen dute hizkuntza bat... Zergatik esango zenukete dela?

Lander (14 urte): Ez dakigu.

Maren (13 urte): O sea, ez dago arrazoirik. Da sin más. Gauza bat generalizatu dana.

Elene (17 urte): Bai, ez dakit zergatik baina dao zerbait, ez dakit, iristen zeala DBHra eta nik ebai ezautze det jendia pues oain DBHra jun dana, betidanik euskaraz hitz eginda eta hola. Eta ba orain, derrepente gaztelania gehiago erabiltzen eta... Ez dakit zeatik, baina bai.

Aroa (17 urte): Nei pasa zitzaidan nere lagun batekin Astigarragan bizi dana. Eta urte batetik bestera, bere betiko hizkuntza euskera izan da, eta urte batetik bestera, ya euskera ez zaio gustatzen. Eta orain, erderaz ari da. Eta erderaz hitz egiten det berarekin eta horrela, baino ez deu inoiz euki arrazoi bat. Eta ez dit esan “ez zait gustatzen, ze hau pasatu da, no se qué”, ez. Ba, hola derrepente aldaketa bat. Ta ni ari nintzan en plan, jolin ze pasatu da, ez dakit.

Euskaratik gaztelaniarako mudantza horiek, oro har, nahiko modu inkontzientean bizi izan dituzte gazteek. Askok adierazten dute nola ez ziren unean bertan konturatu, behin mudantza gertatu eta gero baizik.

Irene (17 urte): Aber, eta ez da bat-bateko gauza bat. Bat-batean dena euskaraz, bat-batean dena gaztelerez. Baino, pixkanaka erderaz gehio hitz egiten...

Elene (17 urte): Bueno nik adibidez, nere kasuan nik gaztelania, lehen, txikitari por lo menos, zero. Oso gutxi. Igual aitona-amonekin, ba ez zekitelako euskeraz, pues igual azkenen ikastezu. Baina, nik gutxi nekin gaztelaniaz eta betidanik euskeraz. Eta berez oso ondo dakit hitz egiten, baino karo, gertatu zan... Eztakit ze. DBHn dena gaztelaniaz. Dena. Eta nik ustet oraindik ohitura hori dakatela. Eta adibidez, Irenekin txikitatik euskeraz, eta iritsi zan momentu bat, dena gaztelaniaz. Konturatu gabe, baina, bai. Eta oraindikan... erderaz... euskañol.

Irene (17 urte): Ba da como, denek egiten dute erderaz, ba nik ere bai. O sea ez dakit, ez zea pentsatzen gelditzen. Nik ustet gelditu geala pentsatzen iritsi geanen goiko eraikineri, DBH3n, DBH4n. “Zeba ari gea erderaz? Zeba ez gea ari gure betiko hizkuntza erabiltzen?” Baina, hor barrun zaudenean, nik ez nun pentsatzen “zeba ez nao euskeraz hitz egiten”.

Elene (17 urte): Eta nik uste det, oraindik ere ez dakigula zergatik.

Irene (17 urte): Ez, o sea, iritsi ginen eta hasi ginen.

Batzuen kasuan, hain da bat batekoa edo hain da inkontzientea prozesua, ezpaitira euskarazko joera izatetik gaztelaniazko ohitura izatera igaro zireneko trantsizio faseaz gogoratzen.

Andoni (19 urte): Ez, konturatzen zera ya beti erdaraz hitz egiten dezunean. Ya finkatua danean, ya hizkuntza hori. Ze hasieran egiten genun euskeraz eta ez naiz gogoratzen gaudenean euskeraz eta gazte-leraz egiten, ez naiz gogoratzen.

Prozesu hori gogoratzen dutenak, garai hartan gaztelaniaz larri samar aritzen zirenak dira, maizenik. Orduko estuasunak berak eragin zien prozesua modu kontzienteagoan biziitzea, eta baita orain akorduan izatea ere.

Lur (22 urte): Jo, nik bai daukat gogoan porque ez dakit expresatzen erderaz nik nahi deten bezela ordun bai notatzen nula pila bat. Eta hemen extraeskolarretan eta hola jendearekin egiten eta joe, ezin azaldu gauzak. Ez dakit...

Eskola erdalduna vs. Euskalduna

Erdararako mudantza testuinguruaz hitz egitean, bada elementu bat gazteenek aipatu ohi dutena: DBHra igarotzen direnean Lehen Hezkuntzako bi eskolatako gazte-txoak elkartzea lehen aldiz. Zaharrenen garaian DBHn eskola bakoitzak bere ibilbidea zuen eta LHko ikaskideekin egiten zuten batxilergorainoko bidea³¹.

Eta horren inguruan, diskurtsoa, behintzat, argia da. Gazteek bereizketa aski zurruna egiten dute eskola bateko ikasle profilarren eta beste eskolako ikasle profilarren artean. *Hemengoak/kanpokoak* edo *euskaldunak/erdaldunak* kategoriak erabiltzen dituzte batzuk eta besteak izendatzeko.

Andoni (19 urte): Gero ere bai, adibidez e... ikastetxeetan hasieran Lasarten zauden nolabait esan, ba bi ikastetxe. Alde batetik Landaberri eta bestetik Sasoeta. Eta lehenago ba notatzen zen Sasoetan egoten zirela gehienbat kanpoko jendea eta orduan e... Ez dakit noiz hasi ziren ba ya juntatzen Landaberri eta Sasoeta, eta orduan hor azkenean e... Ba nire ikuspuntutik begiratuta, nolabait esan, ba... Sasoeta, bueno, kanpotik etorritako jendeak, ba ez zeukan ohitura hori euskaraz hitz egiteko eta azkenean guk ere bai ahal genun euskaraz gehiago hitz

31 19 urte dituzte gaur egun bateratzea bizi izan zuten lehen belaunaldikoe (DBH3 egin behar zuten urtean elkartu ziren, hain zuzen).

egin, baina, hasi ginan gehiago erdaraz hitz egiten eta... Hori behintzat gure generazioan e, ez dakit zuenean...

Adin arrakala ere argia da. Gazteek haien artean badakite nortzuk diren bateraketa egin aurrekoak eta egin ondorengoak.

Olaia (22 urte): Ba justu gure generazioan oraindik zan Sasoeta eta Landaberri. Ordun askoz markatuagoa zan. Sasoetakoak ziren oso oso... Dena erderaz-erderaz eta Landaberrin bai zala gehio, nik uste det, euskaldunagoa edo...

Iñaki (23 urte): Bai, guretzat Lasarte da Landaberri. Edo Sasoetako bost.

Bi eskolak elkartzean Sasoetako erdararako joerak mudantzetan eragina izan zuela azpimarratzen dute gazteetako batzuk. Haien erdararanzko joera azaltzeko aipatzen dute bi errealitate soziolinguistiko ezberdinetako jendea elkartu izana bera faktore erabakigarri gisa.

Andoni (19 urte): Eske adibidez gure kudrilla da pixka bat osea, betikoak, baina gero gehiago elkartu gea ba Sasoetako batzuekin...

Irati (17 urte): DBHtik aurrera, o sea, Landaberritik DBHra pasa ginenean izan zan aldaketa. Juntatu ginan Sasoetakoekin eta hola, eta izan zen bapaten, beno nere kasuan, dena erderara bezela.

Daniel (19 urte): Bai, ni beraiekin ados nago. Niri ez zitzaidan hainbeste pasa, LHtik DBHra hain aldaketa handia izatea. Ze Sasoetatik nator, eta hor beste errealitate bat duen jendea dago.

Elementu kualitatiboen bidez ezinezkoa da neurtzea zenbateraino diren ezberdinak bi eskolak hizkuntza gaitasun eta erabilerari dagokionez, eta zenbateraino diren profil soziolinguistiko ezberdinetakoak bertako ikasleak. Zaila da neurtzen, baita ere, zenbateraino eragiten duen gazteen diskurtsoetan lehen pertsonan bizitakoak eta zenbateraino behera entzundakoak. Kontua da, Lasarte-Oriako gazteen diskurtsoetan, eskola ezberdinetako gazteak kategoria ezberdinetakoak direla, hasera batean behintzat.

Guaia/ez guaia. Markatua/ez markatua. Zaila/erraza.

Edonola ere, gazteak mudantzarako arrazoiei buruz jardutean, nonbait jakitun dira adin batetik aurrera, behintzat, gaztelaniaren eta euskararen arteko harremana ez dela orekatua, eta batek besteak baino indar handiagoa duela. Bata *guaia*, eta bestea, *ez hain guaia*.

Irene (17 urte): O sea, ez dakit, iristen gea DBH1era eta izan zan como, lo guay da erderaz hitz egitea. O sea, ez dakit izan zan...

Leire (13 urte): Nik uste jendea sentitzen dela guaiagoa erderaz hitz egiten euskeraz hitz egiten baino.

Bestalde, gazteek beraiek interpretatzen dute bata *markatua* dela, eta bestea ez. Alegia, euskaraz jakitea edo euskaraz moldatzea hautazko zerbait dela. Aldiz, gaztelaniaz ez moldatzea normatik aldentzea dela. Eta beraz, larriagoa dela gaztelaniaz zailtasunak izatea euskaraz zailtasunak izatea baino.

Aroa (17 urte): Bai. Ni txikitan adibidez, iritsi nintzanen eskolara, euskeraz bakarrik nekin, ze nere ama-hizkuntza betidanik euskera izan da. Eta orduan bai, ba jendiak eskolan erderaz hitz egiten zunian, tokatze zitzaidanen nik ez nun ezer ulertzen. Eta oso gaizki pasatze nun, porque, gainera nerekin sartzen zian. Eta igual bale, ez zian kontziente baina ni pixkanaka urtez pasatzen, pila bat infrabalaratu naiz horregatik. Eta ez dakit, nik uste det horrek badakala eragin bastante handia.

Daniel (19 urte): Klaro, nik neukan euskeraren kontrako jarrera ya buruan sartuta. Eta gero ikusten dugunean kuadrilla bat guztiek euskeraz dakitela eta guztia euskeraz egiten dutela... Igual, beldurtzen ginen edo.

Irene (17 urte): Nik bi egoera horiek oso ezberdin ikusten ditut. O sea esan nahi det, beraien kasuan edo Danielen kasuan, euskeraz ez jakitea zan normala bezela. O sea, zu gerturatzen zinan berarengana hitz egitera euskeraz, eta ba... Beste bat euskeraz hitz egiten ez dakiena, eta listo. Nahiz eta D eredu batean egon. Baina, Aroarengana hurbiltzen zinan eta ez zekien erderaz... Eta ya zan "nola ez dakizula erderaz?" O sea, ez naiz goatzen ze oain dela pila bat zan. Baina... "Nola ez dezu erderaz jakingo?" O sea, berez ordun ba... Ez dakit.

Galdetutakoan mudantzak zergatik egiten diren gaztelaniara eta ez euskarara, hipotesi gisa euskararen konplexutasuna ere azaleratzen da, tarteka: errazagoa da gaztelania euskara baino. Baina, aldi berean, gazteek, hori zalantzan jarri gabe ere, badakite ez dela arrazoi nagusia. Eta gakoa erabileran jartzen dute: hizkuntza batean eroso egoteko erabili beharra dago, eta erregulariki erabiltzen bada, erosotasuna berez dator.

Borja (19 urte): Igual ere bai hizkuntza errazagoa dala, ez dakit, nik uste det igual ere bai gaztelania ikastea edo errazagoa dala euskera baino.

Eta adibidez, ba txikitatik euskeraz hitz egin badezu, ba igual bai erraza da, no? Baina bestela igual euskerara pasatzea...

Xuban (19 urte): Bueno, baina hori hasiera baten; gero ya...

Borja (19 urte): Bueno, baina, no sé. Eske adibidez Kerman, hasieran no sabia nada, dena euskeraz, ta oain ondo hitz egiten du gaztelaniaz.

Andoni (19 urte): Ya, baina hori berdina gertatuko zan euskerakin ere bai. [...] O sea egunero jartzen bazea euskeraz hitz egiten, eske...

Borja (19 urte): Ya, hori egia da, egunero hitz egiten badezu, ya...

Euskara eskolako hizkuntza

Gazteek argi dutena da, eskolan gertatzen denak baduela zerikusia kalean gertatzen denarekin. Ezin da euskarak kalean duen presentzia -edo presentzia eza- ulertu, eskolako hizkuntza erabilerak ulertu gabe. Izan ere, behin eta berriz nabarmentzen da gazteen ahotan euskara eskolako hizkuntza gisa. Batzuentzat, izan ere, horixe baino ez da.

Daniel (19 urte): Guretzat zen eskolaren hizkuntza. Zu zaude klasearen hizkuntzan hitz egiten.

D eredian ikasten du gazteen gehiengoak, eta izan Lehen Hezkuntzan zein aurre-rago, etengabe sentitzen dute eskolan euskaraz hitz egitearena arau gisa. Euskaraz hitz egiteko joera edo nahia izan edo ez, behin eta berriz entzun behar izaten dute “Euskaraz!” irakasle batengandik ez bada beste batengandik³². Eta agindu horrekiko kritikoak dira gazteak: desatsegina izateaz gain, ez da eraginkorra.

Elene (17 urte): Eta errieta hori nik asko entzun det [...]. “Euskeraz, euskeraz, euskeraz”, ba azkenean pertsona hori nazkatu egiten da. Igual betidanik etxean euskaraz hitz egiten badezu, ba igual errexago ateratzen zaizu. Baina, jendia, igual ez duna hainbeste hitz egiten, ba nazkatu iten zea. Eta nik uste det berdina gertatuko litzatekeela gaztelaniaz hitz egitearekin, beste egoera bat izanda, esan nahi det.

32 “Egizue euskaraz” errepikatu horren eragin kaltegarriaz behin eta berriz hitz egin da, eta badaude gure inguruan egindako zenbait ikerketa horri buruzko gazteen hitzak jasotzen dituztenak (Artetxe, 2022; Altuna & Hernández, 2021). Halaxe diote, esaterako, Altunak eta Hernándezek:

Haur zirenetik hori jaso dute gehienek, “euskaraz egin” entzun dute behin eta berriz, familian batzuek eta eskolan guztiek. Agindu horren oihartzuna entzuten dute oraindik elkarrizketatuko gehienek. (Altuna & Hernández, 2021:35)

Borja (19 urte): Nik bai uste dut igual dela ba azkenean eskolan eta horrela inposatzen dutela euskaraz hitz egitea, o sea adibidez igual lehenago gehiago hitz egiten zenez ba igual zen ba ya está, euskaraz hitz egiten da. Baina, nola orain gutxiago hitz egiten da, ba irakasleak eta horrela beti daude ba “euskaraz hitz egin, euskaraz hitz egin” eta hori, ba igual, azkenean umeeak eta horrela ez dakit lotzen dute obligazio bat izango balitz bezala. Eta orduan, ba, ez dakit, igual horrekin ere bai lotura dauka.

Are gehiago: argi uzten dute ez dagoela “egin euskaraz” entzuteagatik euskaraz egiten duenik, eta haiek nahi dutelako ez bada, ez dutela euskaraz egingo.

Ahinize (23 urte): Eta gero, o sea guri ere bai nik uste, nire generazioan beti zen irakasleren bat beti “euskaraz, euskaraz, euskaraz” gero zure erabakia da, ba euskaraz egiten duzun edo ez, edo zer egiten duzun etxean, edo ez dakit. Igual horrek ere bai badauka zer ikusia baina, ez dakit, niri ere bai esaten zidaten “euskaraz euskaraz” edo kaso egiten diozu nahi duzulako edo ez diozu kasorik egiten.

Hala, euskaraz hitz egiten duten gazteek ere, argi utzi nahi izaten dute, euskaraz egiten dutela haiek nahi dutelako, eta ez eskolak hala agintzen dielako.

Irene (17 urte): Eta azkenen beti da gauza hoi de, obligatzen badizute ez dezu egiten. O sea, kontrakoa egiten dezu. Orduan, baldin badaude denbora guztian euskeraz hitz egiteko esaten, “euskeraz hitz egin, euskeraz hitz egin” eta ez badezu euskeraz hitz egiten zuk benetan nahi dezulako, ba ez dezu euskeraz egingo. O sea, nik uste det hasi geala euskeraz hitz egiten, bueno gehiago, lehenago egiten genuena baino gehiago, guk benetan nahi genulako eta gu konturatu gealako gure kabuz, benetan guri gustatzen zaiguna euskera dala. Baina, baldin badago norbait zure atzean denbora guztian, euskeraz hitz egin behar dezula eta euskeraz bakarrik hitz egin behar dezula, ba azkenen ez dezu egiten.

Euskaraz arauarekin lotzeak euskaraz egitea araua betetzearekin lotzea dakar. Hala, euskaraz hitz egitea irakasleen autoritateari men egitearen irudia bera da. Eta, beraz, DBHn, esaterako, euskaraz hitz egitea gazteen artean ez dago *ondo ikusia*³³:

Manex (24 urte): Nik badakat ezagun bat oain eukiko dituna gu baino 6-7 urte gutxigo eta guraso oso euskaldunak. Eta horri parra iten zien erderaz ez zekilako, eta lagun arten ez zun euskeraz iten eta etxian ebai euskerarekiko hartu zun jarrera negatiboa zan ze...

Elk.: Parra iten zien.

Manex (24 urte): Bai. Lagunen artean parra iten zien, danak erderaz iten zuten, inork ez zun euskeraz iten.

Elene (17 urte): Bai igual pertsona bat euskeraz hitz egiten ikusi eta igual ez dakit burla edo, gaizki begiratu eta horrela. Horrelakoak bai. Ez asko, baina bai...

Gazteen artean kapital soziala lortzeko, beraz, euskaraz hitz egitea ez da estrategikoa den hautu bat.

Elk.: Ezagutzen ez dezuen talde bat entzuten badezue euskaraz hitz egiten, zer pentsatuko dezue?

Leire (13 urte): Pentsatuko dute gehiago que son unos pringaus. Eske ez dakit nola esplikatu.

Alba (13 urte): Ez dute esango hauek diala ikastolako ezagunenak.

Elk.: Euskeraz hitz egiten baldin badezu ezin dezu izan guaietakoa?

Alba (13 urte): Aber...

Leire (13 urte): Bai, pero...

Alba (13 urte): Bai, baina, ez hain esajeratua.

33 Hernández eta Altunak honako testuingurua ematen diote euskaraz egitearen arauaren aurrean gazteek izan dezaketen aurkako erreakzioari:

Bestalde, haur eta nerabeen sozializazioan etxea eta eskola garrantzi handiko guneak dira, eta azken hamarkadotan izan den euskararen biziberritze prozesuan, bi gune horiek zeresan handia izan dute. Euskalduntze-prozesuan eskolak izan du paper garrantzitsua, eta horrek ondorio batzuk ekarri ditu. Batetik, hiltun berrien kopurua handitzea. Bestetik, euskara eskolarekin identifikatutako hizkuntza izatea. Hain zuzen ere, bigarren aldagai hori oso argi azaldu da ikertutako gazteen artean. Eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute, baina askotan horrek, ikasgelatik kanpokoa nolabait «derrigortasun» horretatik at uztearen nahia ere ekartzen du. (Hernández & Altuna, 2020:469)

Leire (13 urte): Bai, baina ez.

Alba (13 urte): O sea, ahal zea egon, evidentera, baina...

Leire (13 urte): Ez da ohikoena.

Alba (13 urte): Hori da.

HELDUAGOTAN... MUDANTZA GEHIAGO

Gazteen ibilbidean, hizkuntza aldaketa zein hizkuntza ohitura aldaketa gehien lagun artean gertatu ohi da. Familian, harremanen berregituraketa esanguratsurik gertatu ezean, ohiturak finkoak izan ohi dira eta hezkuntza formalean, berriz, arautuak. Eremuotan ez dira, beraz, joerak aise aldatzen³⁴. Aldiz, gazteen artean mugikortasun handia dago lagunartean.

Eskolako kurtso eta gela aldaketak, aisialdiko jarduera berriak, edo kuadrillak bereizteak, aldatzeak zein batzeak, esaterako, hizkuntza mudantzak gertatzeko testuinguru aproposak izan daitezke.

Andoni (19 urte): Adibidez gure kudrilla da pixka bat, o sea, betikoak baina gero gehio elkartu gea ba Sasoetako batzugin...

Xuban (19 urte): Eske, hasieran batzuk bai hitz egiten zuten euskeraz.

Andoni (19 urte): Bai eta hori izan zan, azkenen, juntatu jende horrekin eta... bueno "jende horrekin" [barreak], beraiekin, eta, ba ez dakit, zure hizkuntza aldatu.

Borja (19 urte): Eske, nik adibidez, gogoratzen naiz igual berarekin [Andonirekin] hasieran euskaraz egiten nuen eta Kermanekin ere bai, beste lagun bat, eske, kriston euskalduna zena eta berarekin orain, eske Kermanekin dena erdaraz baina eske dena!

Euskarara buelta, euskarari heldu.

Eskola eremuan, behin DBHko langa pasata, hizkuntza mudantzarako aukera berriak sortzen dira gazteen ibilbidean. Batxilergoan berriz ere eskolako talde-konfigurazioa aldatzen da, kide berriak ezagutzen dituzte, kuadrillak berregituratzen dira, eskolaz

34 Altuna eta Hernándezek esango luketen bezala, "familia eta hezkuntza formala dira, hurrenkera horretan, hizkuntza praktiken zutarriz sendoenak. Eremu horietan araututa eta nahiko finkatuta dago hizkuntza -praktika, eta gorabehera gutxi izaten dira. Familiako kideekin ohiturak egonkortuta daude eta nekez aldatzen dira." (Altuna & Hernández, 2021:37)

kanpoko aisialdiak garrantzia hartzen du, eta harreman mugimendu horrek guztiak hizkuntza mugimendua ere badakar.

Batxilergoan Lasarte-Oriako gazteak Usurbilgoekin elkartzen dira. Eta DBHn bi eskolen bateratzearekin gertatzen den bezala, batxilergoan ere badu eragina horrek. Usurbildarrak, euskaldun gisa irakurriak dira erabat, hizkuntzen arteko botere harremana desberdin konfiguratu den eremu batetik datoz, bestelako hizkuntza ideologia batzuk dakartzate, eta horrek eragiten du Lasarte-Oriako gazteen ordura arteko hizkuntza dinamiketan ere.

Irati (17 urte): Gero igo ginenean goiko institutura ya hasi ginan Euskeran Batzordean eta pixkat gehio euskeraz hitz egiten. Eta orain, batxilergoan sartu geala Usurbilekokin eta hola juntatu gea, eta nik ikustet gure kurtsoan batez ere euskara gehiago hitz egiten ari dala.

Ordura arte euskaraz aritzeko ohiturari eutsi zioten gazteetako batzuek, esaterako, gaztelaniaz hitz egiteko ohitura eurenganutzen dute une horretan.

Andoni (19 urte): Nei ere bai. Nik uste nei gertatu zaitela erderara pasa naizela gehienbat lagun berrik iteko. Igual Batxillerren edo hola. Nahiz eta Usurbilgok etorri Sasoetako batzuk ere etortze zian, ordun berriak zian, eta pues, igual zure lagunek beraiekin erderaz hitz egiten dute eta zu ez zea... O sea, zu euskeraz hitz egiten hasten bazea, beraiek ez dizute erantzungo euskeraz, ordun, edo zu saiatze zea erderaz egiten, edo atzen geratze zea. Eta obligatuta sentitzen zea, ni behintzat obligatuta sentitu naiz.

Beste batzuentzat, aldiz, batxilergoan aukera berri bat zabaltzen da euskararako hizkuntza mudantzak eman daitezen.

Ibon (23 urte): Nik uste det LHN ere guk gehio hitz egiten genula euskeraz, gero euki genula DBHn garai bat gaztelaniaz gehio hitz egiten genula, ta oain pues, kuadrillan zati batek euskeraz gehio iten deula, LH 6ko garai hoietan bezela, ta besteak jarraitzen dula DBHko...

Izan ere, badirudi behin batxilergoan helduta hizkuntza dibergentzia kasuetan gaztelaniara jotzearen arau ez idatziak indarra galtzen duela, eta euskaraz hitz egiteko aukerak zabaltzen direla, arauaren ahultzearekin batera -lehenago euskaraz egiteko ohitura zutenentzat ezezik, baita inoiz euskarazko joerarik izan ez dutenentzat ere-.

Irene (17 urte): Segun. Beti izan da horrela, eta beti egongo da jendea euskeraz hitz egiten duna eta erderaz hitz egiten duna. O sea, patio-ra ateratzen zea, eta egongo dia kuadrillatxoak euskeraz hitz egiten dutenak, guria adibidez. Eta gehiago ere egongo dia. Baina, egongo dia ere beraien artean erderaz hitz egiten dutenak. O sea, gainera agian, nahasten geanean, bai egia da, lehen erabiltzen zana erdera zala. Eta orain agian ez dela hainbestekoa.

Elk.: Eskolatik kanpora euskera erabiltze dezue?

Lander (14 urte): Oso gutxi.

Alba (13 urte): Eta eskolan ere ez.

Lander (14 urte): Egia da.

Elk.: Orokorra da zuen adinekoetan, zaharragoetan...

Alba, Janire, Ainara, Lander (13 eta 14 urte): Bai.

Ainara (13 urte): Nik uste det zaharragoek pixkat gehiago.

Alba (13 urte): Hori da.

Elk.: Zaharragoek gehiago?

Ainara (13 urte): Bai, batxikoek eta horrela.

Alba (13 urte): Hori da.

Lander (14 urte): Igual daude talde gehiago euskaraz hitz egiten dutenak.

Batzuen kasuan, arau horren ahultzeak eragin dezake besteengan moldatzeko egindako ahalegina egiteari utzi nahia, eta norberari erosoena zaiona egiten hastea. Euskaraz hitz egitea, esaterako. Edo baliteke halako erabakien eraginez ahultzea, azken finean, erdaraz egitearen *araua* bera.

Manex: Eta gero asko markatzeu, nik uste det, gazte garaitan liderrak, batzuk daude liderrak dianak eta lider hoiek ze iteuen. Hiru lider baldin badaude eta hirurak oso erdaldunak baldin badia, ba inork ez du euskeraz ingo, nahiz eta bost gazte euskaldun egon, oso oso euskaldunak eta oso etxe euskaldunekoak, pues...

Ibon (23 urte): Nere ustez, hasieran, pisu handia dakate gurasok, o sea edade txikitik, eta gero, urteak aurrera dijoazten heinen, gurasok zure erreferentzia nagusia izateaz uzten diela eta koadrilak jartzen dula erreferentzia hoi.

Iñaki (23 urte): Baino, egia da eroso egon behar dezula. Ez bazaude eroso, koadrilan esan nahi det, inguru hortan...

Ibon (23 urte): Ta nahiz ta ez egon eroso askotan, bakarrik ez gelditzearren, moldatu iten dezu eta rol bat onartzen dezu, nahiz ta eroso ez egon.

Elk.: Ta 18 urtekin esaten dezu "bueno, yasta" [erdarara moldatzeaz].

Ibon (23 urte): "Hasta la polla".

Manex: Bueno, edo ez. Edo 13 urtetik 18 urteta geatu zinan toki batean eta ya salto oso handia da eta ez zea gai salto hoi emateko.

DBHrako trantsizioan batek haurtzarotik nerabegaroko bidea egin duela adierazteko modua da erdaraz egiten hastea (euskaraz egiteko joera zutenengan), edo are, euskaraz egitea haurtzaroko ohiturei eustearen edo helduen autoritateari men egitearen adierazle da. Badirudi, ordea, behin batxilergora iritsita, gutxienez, gazte izaera adierazteko modu berriak zabaltzen direla. Gaztelaniaz hitz egitea ez *derrigorrezkoa* bihurtzen da, beti ere kuadrilla edo lagun taldeak babesa emanez gero, hizkuntza ohiturak ohitura kolektibo gisa irakurriak diren heinean.

Daniel (19 urte): Eta, baino bai, nabaritu det DBHtik Batxilergora pasatzean, bai, aldaketa egon dela eta euskera hasi dela elkarrizketetan tartekatzen.

Edonola ere, adin batetik aurrera kideen arteko harremanek ardaztuko dute, adin batetik aurrera, gazteen hizkuntza erabilera.

"Aditzak eta, pentsatu egin behar". Deserosotasuna eta legitimitate falta.

Hiztun batzuen kasuan, ordea, behin adin batera heltzean, eskolaz kanpoko harremanetarako duten euskarazko hizkuntza gaitasuna ez da nahikoa hizkuntza hautua benetan hautua izan dadin. Gazteen diskurtsoetan behin eta berriz ateratzen da, euskaraz hitz egiteko gai ez direnen edo euskara "ahaztu" dutenen gaia. Izan ere, gazte askok dute inguruan norbait txikiagotan euskaraz egiten zuena eta orain gai ez dena.

Manex (24 urte): Baino, gure talde hortan ibiltze zan beste gazte horrekin, ba gurasuak... aita nik uste det erdalduna dala, amak euskeraz badaki baino etxian nik ustet erderaz ingo dutela orokorrian. Eta gukin ibiltze zanen euskeraz perfektu ite zun, eta orain dela gutxi beakin parrandan topatu eta beakin hasi euskeraz hizketan eta bea euskeraz erantzuten saiatzen... Bain, bua, kriston pila kostatzen zitzaion euske-

raz itia! Ze eske ez du hitz egiten euskeraz. Eta hoi, ba euskeraz perfektamente ite zunak txikitan edo gaztegua zanian, orain kriston komerik hitz eiteko.

Eskola ibilbideari begiratuta, badirudi gazteei eskatzen zaiena eta eskainia zaiena ez datozela bat. Alde batetik, euskaraz hitz egiteko eskatzen diegu, bai ikasgelan eta bai gelaz kanpo haien arteko harremanetan ere. Bestetik, ordea, eskolak berak ez die eskaintzen harreman informaletan euskaraz jarduteko beharrezko komunikazio eta hizkuntza gaitasuna.

Marta (18 urte): Agian bakarrik geratzen zera txikitan ikasten duzunarekin. Niri adibidez, kostatzen zait euskera, ez dut praktikatzen eta, pues sinmas, ez dut asko erabiltzen. Horregatik, agian bakarrik dut ikasi dudana txikia nintzenean. Eta hori gertatzen zaio ia nere gela guztiari.

Elene (17 urte): Eske nik uste det euskera, o sea, hizkuntza guztiak bezela, jarraia da. Ordun, txikitan hasten zeana ikasten, berak esan duna, o sea, berak daka basea txikitan ikasi duena eta nik uste det txikitatikan orain arte, o sea, egon da zati bat bizitzan gelditu dana, ez diozu jarraitasuna eman. Esan nahi det, igual iritsi zea LH 4ra, ikasi dezu irakurtzen, idazten eta ez dakit zer iten, ordun hor gelditu zea, ez dago jarraitasun bat. Ze azkenen ez badezu hitz egiten jarraitasun hori bukatu egiten da, ordun beraiek dakaten nibela ez badute hitz egiten, da ikastolan erakutsitakoa ta ya está.

Elk.: O sea, ari gea esaten ikastolan erakusten dizuten hizkuntza nibelakin ez dala nahikoa gero harreman informalak edukitzeko?

Parte-hartzaile guztiak: Bai.

Irene (17 urte): Zuk ez badezu klasetikan kanpo euskeraz hitz egiten edo zure kabuz, nahi dezulako euskeraz hitz egiten, daukazu nibela, bueno, bai igual komunikatu zaitezke, baino bueno, justito.

Elene (17 urte): Eskasa.

Gazteen bizitza eta eskola-ibilbideak askotarikoak dira, ordea. Batzuk ez dute eskola-ibilbide osoan D ereduan ikasi, eta D ereduan ikasi duten gazteez ari garenean ere, bakoitzak bere ibilbidea izan du: ez dira denak ez leku beretik abiatu ez leku berera heldu, hizkuntza gaitasunari dagokionez ere³⁵.

35 Hala diote Hernández eta bere kideek: "Askotan D ereduko datuak edo euskararen ezagutza datuak ematean, badirudi irudi trinko edo konpaktu bat sortzen dela. Baina irudi hori urratu eta azpian dagoena jaso edo entzun nahi duenarentzat, testigantza eta bizipen askotarikoak agertzen dira." (Soziolinguistika klusterra, 2020:109)

Etxean eta inguruan euskararik entzuten eta erabiltzen ez dutenek, eskolako lagunekin euskaraz hitz egiten ez badute, ikasgelan eta oso une jakinetan baino ez dute euskarra erabiltzen. Haientzat irakaslearekin eta ikaskideen aurrean egin beharreko aurkezpenetan erabiltzeko hizkuntza da. Erabilera hori oso testuinguru arautu eta formaletan gertatzen da, eta, beraz, gazte horiek ez dute ohiturarik ez gaitasunik modu informalean -eta eskolakoak ez diren gaietara buruz- euskaraz hitz egiteko. Eta hitz egiteko erosotasunik eza, azken batean, deserosotasuna da.

Marta (18 urte): Nire ikastetxean ez da euskera erabiltzen. O sea, bakarrik euskerako klasean. Eta nahiz eta euskerako klasean egon ez da euskeraz hitz egiten. Eske kostatzen zait. [...] Agian da bakarrik ez dugulako praktikatzeko asko eta kostatzen zaigu, hori esan behar da. Baina, bai o sea esan dudana. Inposatzea, asko afektatzen du zure erabileran. Eta, pues pixkanaka-pixkanaka hizkuntzarekin ez zaude eroso sentitzen.

Daniel (19 urte): Bigarren Hezkuntzan euskeraz egiten zuten kuadrilletatik igual baztertzeko ginen gu. Guk bakarrik klaseko euskera genekielako eta ez genekien nola hitz egin informal moduan euskeraz. Eta horregatik igual edukitzen genuen beldurra edo, aldentzea eragiten zuen.

Deserosotasun hori erabakiorra da lagun taldeak osatzeko garaian. Identifikazioa azkar egiten da: *hauek euskaraz egiten dute, hauek erdaraz egiten dute*. Eta DBHra jauzi egiten dutenean, esaterako, hizkuntzarena faktore garrantzitsua izan daiteke batzuen-gana hurbildu ala ez erabakitzerako orduan.

Daniel (19 urte): Ni ere horrela sentitzen nintzen. Ikusten nituen pues euskeraz zekitenei, euskeraz hitz egiten ba oso azkar eta oso... [...] Konfiantza handiarekin, eta nik nekien ezin nuela hori egin.

Irene (17 urte): Ta horrek azkenen nei pena emateit. O sea, esan nahi det, ze guk... O sea, supongo esaten dezula DBH1, DBH2, no?

Daniel (19 urte): Hoi da.

Irene (17 urte): Ta guri... Ze gu ginan euskeraz hola hitz egiten genuak... Ordun guri gerturatzen bazitzaigun norbait de "ez dakit oso ondo hitz egiten euskeraz" o sea, guk ez genuke inungo momentun, o sea, ez dakit nola esplikatu... Ez genioke esango "jo, ba ez hitz egin ez dakizulako ondo euskeraz". Baina beaiek eukitzea beldur hori de "ez naiz sartuko ze, jolin... Igualezeo esaten diate" ba, kriston pena emateit.

Aroa (17 urte): Ta nik ustet horrek ebai inkontzienteki separatu iteizula.

Irene (17 urte): Hoi da.

Gaitasunik ez sentitzeak, beste batzuen aldean erraztasunik eza sentitzeak, legimitaterik eza sentitzea ere badakar euskaraz aise moldatzen ez direnekiko. Eta legimitate eskasia hori areagotzen du euskara etxeko hizkuntza dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa argiak. Izan ere, gazteen artean ohikoa da kideei buruz hitz egiterakoan kategorio horiek erabiltzea. *Halakok euskaraz egiten du etxean, eta halakok ez*. Edo halakoa *euskalduna* da, eta halakoa *erdalduna*.

Hala, gazteek haien hizkuntza erabilerak azaltzerako orduan behin eta berriz mahai-gaineratzen dute hizkuntza gaitasun faltaren arazoa, alde batetik, eta etxeko hizkuntza-aren erabakigarritasuna, bestetik³⁶.

NATURALIZAZIOAREN DISKURTSOAK

Profezia auto-bete baten gisan, zirkulua hasi bezalaxe ixten da gazteen diskurtsoetan: etxetik euskaldunak ez direnek ez dutenez euskara erabiltzen ez dute euskarazko gaitasunik, eta ez dutenez gaitasunik ez dute erabiltzen. Etengabe berresten dute logika hori gazteek: hizkuntza ez dute aukeratzeko; “atera” egiten zaie, *naturalki*, alegia, etxeko hizkuntzaren arabera. Diskurtsoen bidez praktika hauek naturalizatzen dituzte gazteek. Hala, badirudi, berez direla gauzak horrela eta ez dagoela zertan kontua gehiago korapilatu³⁷.

Borja (19 urte): Askoz ere errazago egiten zait erdaraz hitz egitea. Euskaraz batzuetan aditzak eta horrela aditzak pentsatu egin behar ditut eta erdaraz da como... Me sale. Baina igual ere bai txikitatik erdaraz egin dudalako, o sea...

Elene (17 urte): Igual betidanik etxean euskaraz hitz egiten badezu, ba igual errexago ateraten zaizu. Baina, jendia igual ez duna hainbeste hitz egiten, ba nazkatu iten zea. Eta nik uste det berdina gertatuko

36 Gazteek haien hizkuntza erabilera azaltzeko bi faktore hauek azpimarratzea ere ikusi da gazteekin eginko beste ikerketa batzuetan:

Euskara ez erabiltzeko arrazoiei buruz galdetuta, gazteek, helduon antzera, ez dute diagnostiko argirik, euren gertuko errealitateaz ari badira ere. Aipatzen diren argudioen artean, bi nagusi direla esan daiteke. Batetik, gazte batzuen euskararen ezagutza mailari erreparatzen zaio. Deigarria iruditu zaigu, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak izanda honelakoak erantzutea: «nire kuadrillan batzuek ez dakite euskara» edo «gazte batzuekin ezin dugu euskaraz egin, ez dakitelako. Bestetik, gazteek euskararen erabilera eta familia lotzeko joera dute. Euren iritziz, euskaraz egiteko ohitura dutenak familia euskaldunetakoak edota euskaraz hitz egiten duten familietakoak dira». (Hernández & Altuna, 2020:450)

37 Hala diote Altuna eta Hernándezek hizkuntzaren naturalizazioari buruz:

Azpimarratu nahi duguna da hizkuntzaren naturalizazioak duen karga kulturala. Edo beste hitz batzuekin esanda, kultura naturalizatzeko prozesuek duten indarra. Eta antropologian sarritan salatu den moduan, kultura naturalizatzen denean, dikotomiak eta parekotasunik eza ezkutuan geratzeko arriskua dago. Horren arabera, naturala dena, naturalki “ateratzen” zaiguna, aldaezina litzateke, berez da horrela; ez du bestelako azalpenik edo argudiorik behar, eta inertzia indartzen du, irtenbide kolektiboak eta orokorrak alboratuta. (Altuna & Hernández, 2021:43)

litzatekeela gaztelaniaz hitz egitearekin, beste egoera bat izanda, esan nahi det.

Olaia (22 urte): Guk justu bai dauzkagula gurasoak dakitenak euskaraz eta igual bai azkenen influentziatzen duela baina azkenen nik uste det kuadrillan euskeraz hitz egiten bada euskeraz hitz egiteko joera gehiago dagola eta bai nik uste dala bai e, o sea, ateratzen zaizuna ere dala erosotasunagatik ezta? Ze azkenen etxen erosogo, zure ama hizkuntza pues errez hitz egiten dezu, errez ateratzen zaizu eta igual gaztelera jaso duenak pues errezago aterako zaio eta joera horrek nik uste det influentziatzen dula.

Etengabe hizkuntza bat edo beste *ateratzen* zaiela aipatzeak ezkutuan uzten ditu bai hizkuntza hautu horri testuingurua ematen dien egiturazko baldintzak (euskarak urtetan zehar jasandako azpiratzea eta azken hamarkadetako hizkuntza berreskuratze-ko ahalegin kolektiboa, esaterako) eta baita hiztun bakoitzak bere hizkuntza erabilera moldatzeko duen agentzia ere³⁸. Azken elementu horri dagokionez, gazteen diskurtsoetan badirudi norbere hizkuntza portaera jaio den lekuak eta inguruneak determinatuko duela, ia erabat. Badaudela nolabaiteko salbuespenak, nolabait haiei *egokitu* zaien hizkuntzan izan ordez bestean hitz egiten ahalegintzen direnak haien borondatez, baina, oro har, bakoitzak *bere* hizkuntzan hitz egiten duela nabarmentzen dute.

Elk.: Ordun, lagunek ere euskeraz hitz egiten duten guztik dia familia euskaldunetakok?

Irene (17 urte): Gehiengoak.

Elene (17 urte): Gehiengoak.

Daniel (19 urte): Bai.

Aroa (17 urte): Nik ustet baietz, ia denak.

Elene (17 urte): Nik adibidez, etxean betidanik euskeraz eta kuadrillan ta hola dena euskeraz, gehienbat.

Irene (17 urte): O sea, azkenen ez dakitenak familia euskalduna eta euskeraz hitz egiten dutenak lagunekin, da beraiek benetan nahi dutelako eta, ez dakit, jendeak daukana txip aldaketa hori de "ostras nik euskeraz egin nahi det nahiz eta nere etxean euskeraz ez in." Eta saiatzen dana benetan euskera hori gehio erabiltzen, baina bestela...

38 Kathryn Woolard-ek dion bezala, "Such naturalism is opposed to recognition of the agency of speaking subjects, and to a historicized image of language as constructed by human action" (Woolard, 2016:30-31).

Bereizketa argia da: alde batetik daude *benetako euskaldunak*, alegia, etxetik euskaldunak, eta bestetik, besteak, alegia eskolan euskaldunduak. Eta noski, benetako euskaldunak dira euskara erabiltzen dutenak.

Kontua da, datuek erakusten duten bezala, familia euskaldunean hezi izana aldeko faktorea dela lagunekin euskara erabiltzeko, baina, ez dela inondik inora ere berme bat, ez eta faktore bakarra ere. Gazteek ere ikusten dute haien inguruan asko direla etxe euskaldunetakoak izan arren gaztelaniaz hitz egiten duten adinkideak. Baita haurrak ere.

Manex (24 urte): Gurasoen jarrera igual izan leike; gure garaian igual bai saiatzen ziala nahiz ta gurasoak erderara joera gehio euki, nahiz eta beraiek artean in, baino umeei behintzat euskeraz iten. Gaur egun ya paso iten dute.

Markel (23 urte): Ez, nik ustet gaur egun hoi mantentzen dala. Porque gurasoen grupon fotbolean euskeraz hitz eiten dute danak.

Elk.: A bai? WhatsAppean esaten dezu?

Markel (23 urte): WhatsAppean Julenek [entrenatzaileak] euskeraz hitz eiten du eta gurasoek euskeraz erantzuten dute. Bueno, baten batek ez baino horrek ez daki. [...]

Elk.: Eta beraien arten ze hitz egiten due?

Markel (23 urte): Beraien arten erderaz nik ustet, bai, gehienbat. Baino igual bi gurasoen artean euskeraz hitz eiten due, euskaldunak dialako, baino gero beraien semeak beraien arten erderaz. O sea, gu bi guraso gea, gure arten euskeraz ta umeak beraien arten erderaz.

Badakite, bestalde, euskaraz hitz egiteko joera duten guztiak ez dutela euskaraz soilik egiten etxean. Are gehiago. Talde eztabaidetan parte hartu duten gazteen artean, euskaraz hitz egiteko joera trinkoa dutenen artean ere, familiako hizkuntza errealitateak askotarikoak dira³⁹.

Irene (17 urte): Nere etxean, nere aitak ez daki, a ber ez daki, o sea nere aitak ulertzen du, ez du hitz egiten, egon zen euskaltegian eta ari da juten eta ikasten ari da, bainan egia da bronka general bat dagonian,

39 Izan ere, euskara etxean jaso duten gazte guztiak ez dute etxean euskara soilik erabiltzen. VI. Mapa Sozio-linguistikoak (Eusko Jaurlaritza, 2020) argi adierazten du hori: euskararen familia bidezko transmisioa % 24koa da (euskara soilik zein euskara eta erdara batera transmititzen diren kasuak kontatuta), eta, horien artean, 25 urtez azpikoen % 16,5ek egiten du soilik euskaraz etxean, eta %18,1ek erabiltzen ditu euskara eta gaztelania etxeokoin hitz egiteko.

danok sartzan geanian hitz egitea, bai daukagu joera gehio erderaz hitz egiteko, baino egunerokotasunian, afarian hitz egiten dana euskera da ze nere aitak ulertzen du. Agian berak erderaz hitz egiten du baina eske nik nere amarekin ez det inoiz hitz egin erderaz, ta nik nere ahizparekin ezta, ez det inoiz hitz egin erderaz, ta nere ahizpak nere amarekin ezta. Baina nik nere aitarekin erderaz hitz egiten det.

Aroa (17 urte): Adibidez nere etxean biek dakite euskeraz, nere aita euskaldun berria da, baina orain geroz eta gehiago nerekin, gaztelaniaz. Igual, ez dakit, zaharragoa naizelako edo ez dakit, baina igual afarian nere anai txikia baldin badago, ba ez, euskeraz hitz egiten da [...]. Baina, gero igual, ba, igual ni nere gurasokin bakarrik nagonen eta nere ahizpakin ebai, ba igual gaztelaniaz. Eta gero bronka bat, gaztelaniaz. Eta biek dakite ondo e. Igual nere aitai pixkat kostatzen zaio, baino badaki euskeraz hitz egiten eta euskeraz bronka botatzen ere bai.

Manex (24 urte): Baino hoi nere etxian ebai. Nik ustet gurason aldetik ebai, euskaldunak baldin badia eta beraien artian ingurun beti euskeraz iten baldin badute ba umiai ere beti euskeraz ingo die. Baino, euskera-erdera hor tartian ibiltze badira, igual umiak txikiak dianian bai saiatuko diala euskeraz iten... Baino iritsiko da momentu bat, ez diala saiatuko. Ateatzen zaien bezela ingo dute eta geroz eta gehio erderara joko da. Eta nere etxian ere gaur egun gehiena erdera iten da. Aitak euskeraz earki daki, amak erdizka, kostatzen zaio. Eta amak euskera oso gutxi erabiltzen du.

Hiztunek, beraz, *ateratzen zaion* bezala egingo dute. Eta atera, soilik atera dakieke, dirudenez, haien hizkuntzan edo gaztelaniaz.

Gazteek beraiek badakite etxeko hizkuntzagatik ezin dela gazte batek kalean lagunekin erabiliko duen hizkuntza aurreikusi. Errealitatea konplexuagoa da hori baino, eta gazteak horren jakitun dira.

Ibon (23 urte): Batzuk, nahiz eta familia euskaldunak eduki... Ba eremu erdaldunagoetan sartu dia eta beste batzuk hasieratik ez zeukaten familia euskalduna eta beste inguru batzuetan ibiltzen dia. Eta, guk batez ere, ia denok dazkau familia euskaldunak, igual baten bat badago ez daukana familia euskalduna baino geo inguru euskaldunetan ibiltzen dana. [...] Eta hala ere gure arten ebai erdera asko erabiltzen deu. Nik ustet asko erabiltzen deula...

Iñaki (23 urte): Hala ere hauek esan duten bezela, guk, gurian [kuadrillan], egia da, famili erdaldunekok igual pare bat etortze zaizkit burura. Baino, ari gea hitz eiten 8 edo geala. 8 hoietatik pare bat familia erdal-

dunetakoak badia. Geo igual neska euskalduna daka... Bueno ez dakit. Eta bestian aldrebeskuak ere bai, 6.mailararte erderaz ez zekiten jendia ba erderaz hitz egiten eoten dia.

Ibon (23 urte): Eta euskeraz hitz egiteko zailtasunekin gaur egun.

Eta hala ere, gazteok erabat barneratua dute etxeko hizkuntzaren diskurtsoa. Badirudi euskal gizarteak eskolaren eta familien gain jarri duen bezalaxe belaunaldi berriak euskalduntzearen hizkuntza transmisioaren ardura, gazteek ere halaxe egiten dutela⁴⁰.

Eskola eremuko zein etxeko hizkuntza-praktikak praktika, eremu horien eragin indarra ahulduz doa gazteek kaleari garrantzia gehiago eman ahala. Ezin da ukatu euskararen erabilerarako lehen baldintza batzuentzat eskolan euskaraz jabetzea dela, eta familia euskaldunetakoentzat lehen sozializazio garaitik euskararen erabilerarako hurbileko eremu bat izateak euskara erabiltzeko erraztasuna eta ohitura ekarriko dizkietela. Baina, gazteen eguneroko bizipenez jardutean, argi ikusten da eskolaz eta familiaz gain badirela hainbat esparru gazteen hizkuntza praktiketan eragin handia dutenak.

40 Hala diote Hernández eta Santamaría: "Finean, azpiegitura sozial zein politikoez, ezagutza zabaltzearen ardura hezkuntza sistemaren esku utzi dute, eta transmisioarena aldiz, familiengan. Orain ikusten ari gara, gazteak euskarari buruz hausnartzerakoan, gidalerro berberak errepikatzen dituztela." (Hernández & Santamaría, 2021:370)

KULTUR KONTSUMOA ETA SARE SOZIALAK

.....

Helduok gazteez hitz egiten dugunean maiz azaleratzen dira kultur kontsumoaren eta sare sozialen gaiak. Muturreko globalizazio honen testuinguruan, gazteen kultur kontsumoa urrunekoa bezain ezezaguna zaigu. Ez dakigu zein musika entzuten duten, nork non ekoitzia den, zeintzuk diren haientzat erreferentziazkoak diren *youtuberrak*, *instagramerrak*, *inflkucerrak* eta eta *eduki sortzaileak*, eta onar dezagun, kontzeptu hauen atzean zer dagoen ere ez dugu oso argi. Gainera, gazteek kultura ez dute nagusiki kalean kontsumitzen, baizik eta pantaila bidez eta sarean. Eta ikusten ez dena, irudikatu baino ezin da egin. Jakin badakigu kontsumitzen duten kultura erdarazkoa dela nagusiki⁴¹, nahiz eta ez dakigun neurtzen argiki zenbaterainoko eta nolako eragina duen horrek gazteen hizkuntza erabileran.

Eta guk gazteei buruz esaten dutena diote gazteek gazteagoei buruz ere.

Ibon (23 urte): Aisialdiarako kontsumitzen dituen baliabide guztik gaztelaniaz daude; gaur egun kontsumitzen duten guztia Youtuben, sare sozialetan... Eta beaiek ez daukate aukerarik hoi euskeraz kontsumitzeko. Daukaten guztia gaztelaniaz da. Ordun iristen da garai bat, izan daitezkeela 13-14 urte, interes berrik dauzkate, beste zerbait kontsumitu nahi dute ta hori ya ez dao euskeraz.

Iñigo: Bai, nik ustet, ta hortaz oain asko hitz egiten da, guk esaten deu oain, ta asko esaten da oain, azken generazioa [gure] hurrengoak izango zian, marrazki bizidunak eta euskeraz jaso zitunak. Oain garai hontan euskera bakarrik entzutea leku formalean, eskolan eta etxean igual eta leku sozial guztitan erdera kontsumitzen da. Eta bai, seguruna izango dalako euskeraz ez dalako generatzen interesgarria dan edukia, baino gaur egun edukia hain errex ta lortzen da, oso zaila dala erderakin lehiatzea.

Gauza bera gertatzen da sare sozialen -edo modu orokorrigo batean, sarearen fenomenoarekin. Gazteak hein handi batean, sarean bizi dira. Sarean egiten dituzte lanak ikaskideekin, sarean elkartzen dira kanpoan dituzten lagunekin, sarean jolasten

41 Gazteek kontsumitzen dituzten kultur-produktu gehienak ez dira euskarazkoak (Eusko Jaurlaritz, 2018). Esaterako, musika, zinema eta plataforma digitalen bidezko serieak gaztelaniaz edo ingelesez kontsumitzen dituzte nagusiki. Gazte-kulturan, euskarak oso leku txikia du:

Kasu askotan, gazteen artean, hizkuntza 0-tik abiatzen da. Sare sozialak, ikus-entzunezkoak, musika, moda, kirola, kuadrilla, lokalak, diskotekak, jaiak... gazteen mundua betetzen duten elementu, produktu eta praktika dira, eta hor euskarak oso toki gutxi dauka. (Soziolinguistika klusterra, 2020:108)

eta jokatzan dute ezagun zein ezezagunekin, sarean egiten dituzte hainbat erosketa eta sare sozialen bidez komunikatzen dira lagunekin, haiek jarraitzen dituztenekin eta haien jarraitzaileekin. Sare sozialak haien egunerokoan presente daude, egunean hainbat aldiz kontsultatzen dituzte, eta hainbat harreman garatzeko tresna eta espazio dira haientzat. Gure gaztaroan existitzen ez zen zerbait izanik, helduok ez dakigu ondo sare sozialak zer diren, zein baliabide eskaintzen dituzten, eta zertarako erabiltzen dituzten gazteek. Baina, susmoa dugu euskaren erabileran ez dutela eragin positiborik izango, eta mamuak baino ezin ditugu ikusi: sare sozialek mundua dakarte pantailletara, eta mundua, ez da euskarazkoa.

Gazteek beraiek ere ikusten dute gizartean gero eta pisu gehiago dutela sare sozialek, telefonoek, aplikazioek eta pantailen bidezko komunikazioak eta kontsumoak. Eta kasu honetan ere, guk haiei buruz dugun diskurtso bera dute haiek baino gazteagoak direnei buruz: gero eta gazteagotan izaten dute sarbidea sare sozialetara eta gero eta gehiago kontsumitzen dituzte.

Markel (23 urte): Ba nik nere lehen mobila euki nun, hola mobila ya WhatsApp-akin eta, ze DBH 3, DBH 4? Ta oain adibidez, klase ematen diot ume bati, DBH 1en hasi nintzan ta hor bazekan beak Instagrama, Twitter, Tik-Tok, Youtube... Ta hoiiek danak. Nik txikitan Youtube ez nun ikusten.

Beraien sare sozialen erabileraz galdetuz gero, diagnostiko argia egiten dute: sare sozialetan, kanpora begirako jardunean, erdara da nagusi.

Andoni (19 urte): Bai, hizkuntza globalagoa bezala delako ez? Nik uste. Azkenen instagramen ez dakazu zure kuadrilla eta ya está, dakazu askoz jende gehio eta hoiiek gehiengoak euskera igual ez dute ulertzen porque igual ez dira Lasartekoak, igual dira kanpokoak, orduan pues jartzen dezu ba denok ulertzeko bezela, nik uste.

Eta gazteek beraiek ere barneratua dute sare sozialek haien hizkuntza praktikan izan dezakeen eraginaren diskurtsoa: sare sozialen bidez zabaltzen zein jasotzen dutena nagusiki erdarazkoa izanik, horrek eragin kaltegarria behar du izan hizkuntza erabileran. Batzuek egiten duten irakurketa, ordea, heldu askok egiten duguna baino xeheagoa da: ez du euskararen kalterako eragiten zuzenean gazteei gaztelaniazko input berriak eta erakargarriak kopuru handitan kontsumituarazten dizkietelako. Gaztelaniazko input berriak eta erakargarriak kopuru handitan existitzeak berak eta euskarak aldiz baliabide horiek ez eskaintzearen ideiak ematen dio indarra gaztelaniari, kaleko erabilerarako ere.

Irene (17 urte): Aber nik ustet eragina badaukala, ze azkenen Instagramen, Twitterren, Tik-Token... sare sozialetan jasotzen degun gutzia edo

gehiengoa erderaz da, edo ingelesez. Orduan, ez egotea euskera hor, o sea, ez dakit, emateizu como... Erdera hobea da... Zeba ez dago hor euskera? Eta Twitterren igual pixkat gehio badago baina... Instagramen nik euskeraz oso gutxi, Tik-Token ezer ere ez. Eta ez dakit ze sare sozial gehiago pero... Orduan gehiena edo gehiengoa erderaz.

Pixka bat gehixeago sakonduz gero, zaharrenek argi dute sare sozialen erabilerak ez duela haien eguneroko hizkuntza ohituretan modu zuzenean eragiten. Ez behintzat, pertsonatik pertsonarako harremanek bezainbeste (hauek pantaila bidezkoak edo aurrez aurrekoak izan).

Aroa (17 urte): Nik uste det eragina daukala, baino ez hainbeste. Nik uste det gehienbat egunero hitz egiten dezuna edozeinekin juntatze zeanen eta eoten zeanen. Nik uste det horrek daukala eragin gehiena. Azkenen ba, hitz egiteko erabiltzen dezun hizkuntza da...

Irene (17 urte): Ohiturak.

Ez da erraza sare sozialek eta sareko harremanek gazteen hizkuntza erabileran duten eragina neurtzea, ez delako erraza gaur egun gazteen harremanak zein hizkuntza praktikak eta sarea bereiztea. Gazte askorentzat aurrez aurreko harremanak bezain garrantzitsuak dira aurrez aurre garatzen ez diren sareko harremanak eta batzuetan sareko eta aurrez aurreko harremanak ezin dira bereizi. Are gehiago, gazteen hizkuntza erabileraz ari garenean, sareko hizkuntza erabileraz ere ari gara, ezinbestean.

Benetan ulertu nahi badugu kultur kontsumoaren eta sare sozialen eragina gazteen hizkuntza erabileran, mamuei izara kendu eta azpian dagoena xeheago aztertzeari ekin beharko diogu.

GIROAK, ESTILOAK, AISIALDIA ETA TABERNAK

.....

KUADRILLAK ETA AISIALDIA

Gazteei haien eguneroko hizkuntza ohiturei eta praktikei buruz galdetuz gero, gazteen hitzetan behin eta berriz aipatzen dituzte kuadrillak, giroak, aisialdiko ekintzak, estiloak eta tabernak.

Haien etxez kanpoko sozializazio gune nagusia kuadrilla da gehien kasuan. Herrian sozializatzeko beharrezko plataforma da kuadrilla, eta kuadrillako dinamikek baldintzatuko dute hein handi batean norbere sozializazio modua eta esparrua.

Gazteek hizkuntzen erabilerari buruzko analisia egiteko hiru geruza erabiltzen dituzte nagusiki: norbanakoen jokaerak, kuadrillen barne dinamikak, eta modu zabalagoan, kuadrillen arteko dinamikak edo *giroak*. Adin eta belaunaldi bakoitzak bere errealitatea bizi du, baina, belaunaldi bakoitzaren baitan ere giro desberdinak daude.

Olaia (22 urte): Bai nik uste dut gehiago dela ere, adinarekin badaukala zer ikusia eta baita ere zein girotan ibiltzen garen ezta?

Hala, norbanakoen hizkuntza portaerak kuadrillen baitako dinamiken barruan kokatzen dituzte gazteek.

Andoni (19 urte): Hori da, nik uste, edo etxean egiten dezu euskeraz edo kuadrilla osoak egiten du euskeraz, o sea kuadrillako ohitura da euskera egitea. Porque hori, nere kuadrillan askok etxean erderaz egiten dute, baina nola kuadrillan ohitura dan euskeraz egitea, euskeraz egiten da.

Are gehiago, orokorrean gazteen hizkuntza ohiturez galdetuz gero, kuadrillaz kuadrillako analisia egiten dute maiz.

Borja (19 urte): Gu igual zenbat kuadrilla gea? Lau, bost? Eta bakarra euskeraz.

Zenbat eta zaharrago, orduan eta garrantzia handiagoa hartzen dute kuadrillako aisialdi ohiturek. Zer egiten den kuadrillan. Nora joaten den kuadrilla. Kuadrilla bakoitzak

joera bat hartu dezake, edo joera ezberdineko taldetxotan banatu liteke kuadrilla bat. Edo beste kuadrilla batekin batu...

Eta kuadrillen konfigurazioan hainbat elementuk eragin dezakete: lokala hartzen duten ala ez (beste kuadrillaren batekin ala ez), zein tabernatan ibiliko diren... Eta besteak beste, hezkuntza ez formaleko ekintzen arabera ere sortu edo moldatu daitezke lagun taldeak.

HEZKUNTZA EZ FORMALA GAKO

Aisialdia, gazte identitateen garagune da gazteentzat, eta eskolaz kanpoko ekintzak, esaterako, lagun taldeak birmoldatzeko eta hizkuntza praktikak egituratzeko gune izan ogi dira.

Mutilen kasuan, esaterako, futbolak zentralitate handia du. Eta futboleant, Lasarte-Orian, gaztelania da nagusi.

Manex (24 urte): Uf, nere taldian askotan pasa izan zait baita ere, futbolarian ibiltzen ginanian, orokorrian bastante giro erdalduna eon zan bai entrenadore aldetik eta bai...

Ibon (23 urte): Futbola da kirol erdaldun bat.

Manex (24 urte): Bueno, Lasarten.

Ibon (23 urte): Lasarten... Eta bueno erabiltzen dian hitz guztik eta... Normalen oso-oso talde gutxi dia euskeraz hitz egiten dutenak beraien arten. Nahiz eta euskaldunak izan.

Jarduera baten inguruko praktikak hizkuntza batekin lotzeak, azken batean, hizkuntza praktiketan eragiten du. Eta futbola gaztelaniarekin lotzeak, inertzia batzuk sortzen ditu parte-hartzaileen arten.

Olaia (22 urte): Ni gogoratzen naiz lagun batek edo komentatzen zun futboleant, Ostadarren eta, beti berak jaso dula erderaz, eta bera entrenatzailea zala, erderaz ateratzen zaiola askotan, esan nahi dizut, eta berez euskeraz ez daukala arazorik, baina, hola barneratu dula eta kostatzen zaiola.

Kirol praktika baten inguruan lagun taldeak berregituratzen dira, eta talde dinamika berriak sortu. Eta mugimendu horrek eragin handia izan dezake gazteen hizkuntza ohituretan. Batzuetan, norbere etxeko edo eskolako hizkuntza ohiturek baino gehiago.

Markel (23 urte): Ba hori adibidez nere anaiari pasatzen zaio. Ni adibidez, nik ikasi nun Donostin. Txikitan Donostiara eraman zidaten gurasok eskola aleman batea. Eta han iten zan alemana, euskera, eta beste ia asignatura guztiak erderaz. Eta hango jendia Donostiko jendia da, bastante pijok gainea. Eta dena erderaz iten da, baino dan-dana. Eta ni han egon nintzan DBHra arte. Baino futbolen jolasten nun hauekin Lasarten. Eta ordun, Batxin aukera zeon Donostin jarraitzeko, beste Suma edo horietako eskolan baten, edo honea etortzeko. Eta ni hauekin ibiltzen nintzan, ze futbolen hasi nitzan eta gero beraiekin ibiltzen nintzan ba geatzen atsaldetan eta horrela. Eta ordun esan nun... Ba, Lasartea jungo naiz. Eta karo, hauekin zan dena euskeraz eta ordun nik aldaketak euki nitun. Ni goatzen naiz Matematikan nik ematen nula "raíz cuadrada", eta derrepente "erro karratu" ta ez dakit zer... Eta karo, nik etxian txikitan gehio hitz eite nun euskeraz, porque gurasok biek egiten dute euskeraz eta oso ondo dakite, o sea, irakaslek dia biak. Baino geroz eta denbora gehiago pasa geroz eta gutxio iten deu.

Elk.: Bai e?

Markel (23 urte): Eta anaia adibidez futbolian ez zan Lasarten ibiltzen, Donostin ibiltzen zan.

Manex (24 urte): Hobia zalako...

Markel (23 urte): Hoi da. Eta Batxi in zun, Batxira jun zan Donostira, lagunak han zazkalako. Eta ni Lasarten ibiltzen naiz. Baino beak bere kuadrilla Donostin daka. Dana erderaz iten due. Eta adibidez karrera nik euskeraz in nun eta beak erderaz iteu.

Elk.: Eta bien arten ze iten dezue?

Markel (23 urte): Erderaz. Bai-bai bion artean erderaz. Baino geo adibidez, aitona-amona batzukin euskeraz iten deu. Eta hoi, beak badaki euskeraz baino nei baino gehio kostatze zaio eta notatzen zaio ez dula hitz egiten. Eta gurasoekin orain geroz eta gutxio.

LOKALA VS. TABERNA

Adinean aurrera egin ahala, kuadrilla bera sozializazio eremu zabalagoetarako plataforma ere bilakatzen da. Gazte batzuen kasuan, esaterako, kuadrillaka elkartzan dira lokalak alokairuan hartzeko, eta bertan kuadrilla ezberdinetako gazteen arteko harremanak estutu daitezke.

Izan ere, lokalean elkarbizitza gertatzen da. Batez ere plazerari eta lasai egoteari lotua, etxekoen begiradatik, zein helduen autoritatetik kanpo, nolabait, nahiz eta horrek ardurak konpartitzea ere badakarren. Lokalen bueltan, jatorrizko kuadrillen egitura ere

alda daiteke, esaterako, kuadrillako batzuek lokala uztean. Eta aldaketa horiek, hizkuntza ohituren aldaketak ekar ditzakete.

Ibon (23 urte): Batzuk lokaletik atea ginan, beste batzuk mantendu zian; gu lokaletik atera ginan Mugarrin [tabernan] sartzeko eta bestek lokalen geatu zian. [...] Ez ginan atera lokaletik euskeraz hitz egin nahi genulako. Gu atera ginan lokaletik beste arrazoi batzungatik eta horrek eragin zun ere bai gure euskeraren erabilera handitzea nik ustet, lokale-tik kanpo.

Lokala edukitzeak, lokalean egotea eskatzen du. Alferrik ordainduko du batek dagokion alokairu zatia gero ez badu lokala bera baliatuko. Eta tabernetan sozializa-tzen hasteak, maiz, lokala uztea dakar. Ez da jauzi erraza izaten hori, eta gazte batzuek espazio seguru batetik atera eta oihanera sartzea bezala bizi dute aldaketa hori. Eta horretarako, indar pixka bat behar izaten da.

Manex (24 urte): Justo atea zeaten guztik euskaldun girora, bai dala zuk esan dezun bezela, pixkat taldean garrantzia zenekaten pertsonak edo bazenekaten pertsonalitate puntu hori ba “nik nahi detena ingo det eta ni jun ingo naiz”. Baino edozeinek salto hori ematea ere... Ez dakit esplikatatu naizen.

HARLEM VS. MUGARRI⁴²

Eta behin kalera jauzi egindakoa, badirudi Lasarte-Orian ez dagoela euskaraz sozia-lizatzeko aukera handirik, tabernei dagokienez. Gazteek bermudetako hirukia aipatzen dute: *Mugarri*, *Tximista* zena eta *Buruntzaren* artekoa.

Manex (24 urte): Atera zaitez kalera, begira hemen, hiruki hau. Hemen, hor Tximista zeona eta Mugarri, bale. Buruntza. Itxi hau eta jun zaitez beste edozein tokita. Zenbat euskera entzungo dezu?

Ibon (23 urte): Jalgi, baino gazte jendia ez da askoik ibiltzen, egoten da guraso jendia ta hola.

Eta talde eztabaidetan parte hartu duten gazteen artean, behintzat, egin beharreko aukera argia da. Bi tabernetan mugitzen dira haien inguruko eta belaunaldiko gazteak:

42 Gazteen hitzetan aipatzen diren tabernen izenak aldatu egin ditugu.

Mugarrin eta Harlemen. Mugarri euskal taberna gisa ikusten dute eta Harlem, berriz, ez. Eta hori, besteak beste, tabernako musikagatik bereizten da.

Andoni (19 urte): Harlem da justo elizan dagoena.

Olaia (22 urte): Reggaetoia eta...

Andoni (19 urte): Hori da. Reggaetoia jartzen dute.

Yon: Parrandan hasten zeanen ba Mugarrin jartzen due musika bat eta Harlemeko musika igual esango genuke komertzialagoa.

Baina, ez musikak soilik. Baita hizkuntzagaratik ere. Taberna batean zein bestean ingurutsuko gazteak ibiltzen dira, eta taberna batean edo bestean ibiltzen direnek ez dituzte hizkuntza ohitura erabat ezberdinak. Baina, tabernekek berek, espazio bezala, konnotazio argiak dituzte hizkuntzari dagokionez.

Elk.: Hain garbia da aldaketa?

Denak: Bai.

[...]

Olaia (22 urte): Bai, o sea o Mugarri dala erreferentzia edo musika ere euskal girokoa dena o sea euskeraz eta hola...

Xuban (19 urte): Tabernetan, Agirre [haien ezagun bat] ibiltzen da Harlemen ere baita, o sea eta euskeraz hitz egiten du, ez dauka zer ikusia.

Olaia (22 urte): Ni ere Harlemera juten naiz eta zuek ere Mugarrira ahal zeate atera.

Andoni (19 urte): Bueno, baino zuk azkenen esaten badezu "Mugarri", erlazionatzen dezu euskerarekin eta ez...

Borja (19 urte): Inkontzienteki...

Gazteen hitzetan Mugarri da taberna *euskaldunena*. Bertan ere ez da euskara nagusitzen, baina, sentsazioa dute gutxienez badela euskaraz egitea ondo ikusia dagoen taberna bat, eta beste tabernetan euskaraz hitz egitea askoz ere praktika markatuagoa dela.

Manex (24 urte): Gu Mugarrin sartuta eote gea ia egun osua. Eta egia da guk ikuste deula horko egoera, gure ustez igual giro euskaldunekua dana. Nahiz eta erdera euskera baino gehio entzutean seguruna. Baino, nere ustez eta gure ustez giro euskaldunen bizi gea. Baino hoi, badakigu baita ere Lasarteko burbuja baten edo bizi geala. O sea, geo beste taberna batzuta mugitzian, jende asko ez degu ezta ezagutzen, batzutan Harlema eta mugitzen geanian gauian, nik ya jendia galdu egiten det hor. Eta badakigu, burbuja da nahiz eta erdera ere asko entzuten dan. Eta beste tabernetan ya euskera ez da praktikamente entzuten.

Gazteek, zein tabernatan ibili aukeratzearekin batera, haien sozializazioari buruzko hainbat erabaki hartzen dituzte. Taberna bakoitzak berarekin dakar musika estilo bat, estetika mota bat, harremantzeko modu jakin batzuk, edo eta hizkuntza erabilerarako arau inplizitu batzuk. Eta gazteak kontziente dira, sozializatzeko taberna bat aukeratzan dutenean, ez direla soilik tragoa non hartu erabakitzen ari: taberna aukeratzan dute, giro jakin bat bilatzen dutelako.

Elk.: Orduan pixka bat badago lotuta musika estilo batekin espazio batekin, jende konkretu bat... Jende mota batekin?

Ahinize (23 urte): Bai, baietz esango nuke.

Elk.: O sea tabernak eta hizkuntza? Ez? Edo ez? Ez hainbeste? Edo nola da?

Ahinize (23 urte): Bai.

Andoni (19 urte): Baina nik uste det hori beti gertatu dala.

Olaia (22 urte): Igual lehenengo horrela hizkuntza, eta gero zein tabernetara zoazen, ez igual alderantziz, ez dakit, no?

Elk.: O sea aurrena erabakitzen dezula zein hizkuntzatan nahi dezun sozializatu eta horren arabera...

Olaia (22 urte): [galdera eteten du] Zein girotako zean. Ta gero taberna aukeratzan dezu.

Badira taberna batean bezalaxe bestean ibiltzen direnak ere, baina, oro har, kuadrilla berekoak izanik ere, ordu batetik aurrera taldetxoak tabernaka banatzen dira. Eta kasu batzuetan banaketa nahiko argia egiten da taberna batean edo bestean ibiltzen direnen artean.

Iñaki (23 urte): Guri pasa zaigu, 99koi pasa zaigu gu ginala 25 bat eta juxtu tabernengatik, Whats'app-eko izena besteena "Harlem" da, eta guria ez da Harlem. O sea, gu gea "Los del Mugarri". Ordun, gure 99ko kasua da tal cual. Gainea, 18-20 urte arte eon gea lokalian eta lokalian denok batea mantendu gea. Baino...

Borja (19 urte): Baina adibidez, gero beraiekin elkartu gaitzezke, o sea ez da... En plan, Olaiak esan duen bezala, ba Mugarria nahi baldin badugu joan, ba joan gaitzezke, baina... Normalean, eske ya ba Harlemera joaten gara eta hori.

Xuban (19 urte): Adibidez gure kuadrillakoei esaten badiegu Mugarria joateko, o sea, a tomar por culo nos mandan.

Ez da modu berean sartzen taberna batera edo bestera, ordea. Harlemekoaren aldean, ilargi taberna txikia da. Adin tartea ere zabalagoa da bertaratzen direnen artean, eta normala da talde eztabaidetako partaideak baino zaharragoak egotea bertan. Ez da gazteen espazio eskusibo bat.

Iñaki (23 urte): Baino horiek ez dira etortzen hola ta hola. Mugarria sartzeko ere bai...

Elk.: Hombre, txikia da, denok ez gea ondo kabitzen.

Iñaki (23 urte): Baino hoiek dia... 19 urteko jendia, adibidez, ez da ia inor etortzen Mugarria.

Manex (24 urte): Baino gaztiak bakarrik ibiliko bagina, etorriko liake.

Markel (23 urte): Bai, hori bai.

Iñaki (23 urte): Gauza da konfiantza eduki behar dezula sartzeko. Esan nahi det, Jaione badakit ez dala ausartzen Mugarria sartzen. Bueno bakit ez, imajinatzet...

Taberna txikiagoa izanik, bestalde, tabernan ibiltzen den jende kopurua ere murriztagoa da, eta beraz, elkarren arteko ezagutza maila altuagoa, eta harreman sarea estuagoa. Harlemen ia anonimo gisa sar daitezke, eta nekezago sentituko dute lekuz kanpo daudela. Mugarri, aldiz, kontua bestelakoa da. Sarrerako atea igaro eta lekua hartzeko, gazteek haien buruan konfiantza behar dutela adierazten dute. Konfiantza, eta sarbidea emango dien ezagunen bat, ahal dela. Haiak bertan egotea legitimatuko duena besteen begietara.

Iñaki (23 urte): Nik ustet badaola koska bat Mugarria juteko, badao ere bai barrera bat. Esan nahi det, pixkat bai. [...] Guk adibidez kuadri-

llan, Harlemeko hoiek Mugarria etorri daitezke, o sea, etortzeia, baina, gu gaudelako ere bai. Ez dakit, babesakin esan edo, baino, bestela ez dia hola... Bueno larunbat gauian igual bai, baino larunbat gauian izan ezik... Eta horregatik esatetet Jaionei ta hola ere kostatzen zaiela pauso hori ematea ze hori badago, ta lotuko nuke pixkat euskerarekin eta ideologiarekin, azkenian, Mugarrin sartzeko behar dezu... Sarrera bat.

Manex (24 urte): Zuek noiz hasi zintaten tabernan eta Mugarrin ibiltzen?

Markel (23 urte): Iriarte eta zurekin.

Manex (24 urte): Eta gu ba Agirrekin eta. Eta nik ustet beti dala, hurrengo generazioak iten duna. Eta hor generazion batian hutsunia daonian, hurrengo generaziontzat oso zaila da berrize engantxatzia.

JURRUAK, FEMINAZIAK, ETA VIVA ESPAÑA.

Gazteak ez dira soilik lokaletan eta tabernetan ibiltzen. Eta sozializazio espazioak ez dira gazte-identitate marka bakarrak. Haien itxurak, janzkerak, mugitzeko moduak edo hizkerak gazte izateko modu bat adierazten dute. Estiloak ez dira itxiak eta zurrinak, estilo batekoak zein bestekoak batera ibil daitezke, eta are, estilo ezberdinak nahasi ere egin ditzake norberak. Era batera edo bestera, ordea, gazteek badakite kanpo begiradatik irakurriak direla, eta oso kontziente dira horretaz. Izan ere, haiek ere begiratzen diete besteei.

Estilo guztietako gazteek izan dezakete euskararako zein erdararako joera lagunartean, baina, gazteek estereotipoak argi dituzte. Euskaraz hitz egiten dutenak estilo markatuago batekin identifikatzen dituzte. Badakite haiek ondo asko estereotipoek ez dutela beti errealitatearekin bat egiten, ezta gutxiagorik ere. Baina euskaraz egiten duen gaztearen irudia bera, aski argia da. Argia eta markatua.

Xuban (19 urte): Gure adinean ez, baina estereotipoa eginda dago.

Elk.: Hori da.

Ahinize (23 urte): O sea animal print eta ez dakit bai, hori da moñoa pixka bat, ilea pixka bat suelto edo ez dakit gona bat, ez dakit, edo bota, ez dakit.

Olaia (22 urte): Bai estilo bat badago bai.

Borja (19 urte): Eta mutiletan adibidez kresta. Edo no se. Belarritakoak baina belarritako.. O sea ere bai desberdinak daude.

Xuban (19 urte): Eske azkenean hori da, estilo bat da.

Borja (19 urte): O sea adibidez Andoniren kasuan nola dagoen jantzita eta horrela ez nuke esango euskaldun peto-pettoa dela [barreak].

Xuban (19 urte): O sea nik ikusten det adibidez nire anaia eta pijo da berez, o sea nik ikusten det, lo veo de lejos y digo “vaya pijo” eta nik egutuzen det eta berak euskeraz hitz egiten du, asike hori da gauza.

Elene (17 urte): Nik uste markatuta, oso markatuta daudela, adibidez, bueno, pues ba hori, depende ze arropa janztezun, ikusten bazu norbait Salomon batzukin, ba ya está: euskalduna da de fijas. Ordun, gero ikusten badezu pertsona bat ba igual hobeto, ez hobeto, baina igual eleganteago janzten dula, o ez dakit nola esan, ba igual pentsatzezu ba beste ideia batzuk dituzu igual burun. Nik uste oso markatuta daudela

[...]

Daniel (19 urte): Igual piercin-ak, arropa beltza...

Elene (17 urte): Adibidez, piercing-ak, nere kuadrillan euskaldunak gea, edo beno, beti jarri zaigu paper hori, eta seik daukagu piercing-a.

Aroa (17 urte): Bai, ni fijatu naiz, nere klasean baita, euskaldun pila bat daude, o sea, ia danak beti euskeraz, ta danok piercing-a.

Daniel (19 urte): Ez, izan zaitezke euskalduna ta beste estilotakoa izan, estilo anitzetakoa. Baino bai, daude estilo batzuk oso erlazionatuta igual janzkera eta euskerarekin.

Eta behin eta berriz ateratzen da hitz bera: *Jurruak*. Esparru militantearekin lotzen diren gazteak dira *jurruak*. Ezkerreko mugimenduekin, eta, orain arte behintzat, independentismoarekin lotuak, gehienbat. *Jurruak* oso estetika markatua dute eta haien estiloaren ezaugarrietako bat da euskara erabiltzea bera⁴³. Izan ere, gazteen hitzetan, haiek dira euskaraz hitz egiten dutela identitate marka gisa *erakutsi* nahi izaten duten bakarrak.

Elk.: O sea, euskeraz hitz egiten dute jurruak bakarrik?

Elene (17 urte): Bai. Nik esango nuke gehienbat baietz. Nik uste...

[...]

Daniel (19 urte): Ya. Eske ez dago beste talderik euskera dakiela eta euskera duela adierazi nahi duena. Hori da bakarra.

43 Hernándezek eta Altunak Mary Bucholtzen hitzak erabiltzen dituzte hizkuntza-praktikak estilo baten ikuspuntutik ulertzeko: «as a set of stylistic resources that together produce a multitude of age-based identities» (Bucholtz 2000: 283 in Hernández & Altuna, 2020:461)

Hala, euskaraz egiteak konnotazio markatuagoak ditu gaztelaniaz egiteak baino, eta estilo markatuago batekin lotzen da euskaraz egitea. Gaztelaniaz egitea ez da estilo jakin baten adierazle. Gaztelaniaz egitea neutroa da. Estilo aukera gehiago eskaintzen ditu.

Marta (18 urte): Bai. Tipo, barietate asko daude eta enkajutzen dezunean pues hor sartzen zara, baina euskaldunak daude como estereotipatuta.

Elene (17 urte): Igual hoi da bultzatzen dunak gaztelania gehiago erabiltzea, aukera gehiago izatea, igual.

Euskaraz egitea markatua da, eta testuinguru batzuetan behintzat, hizkuntza praktika bera bestelako elementu ideologikoekin lotzen da. Feminismoarekin, esaterako. Edo alderantziz da, beharbada: feminismoa da euskaren erabilerarekin lotzen dena.

Elene (17 urte): Izan zan, eske benetan. Dena euskeraz, berarekin sobre todo [ondoko kidea seinalatuz] eta beste jende askorekin ere bai. Eta iritsi DBHra eta...

Irene (17 urte): Eta gure kuadrillan hori pila bat pasa zan ebai. Gure kuadrillan LHn, Landaberi goran zan, "las vascas", ez genun erderaz iten ezta... O sea, ezertako. Eta iritsi ginan DBHra eta hasi ginan erderaz. Eta orain berriro dena euskeraz hitzeiten deu. Bueno, gehiengo.

Elk.: "Las vascas" deitze zizuen?

Irene (17 urte): Bai, si intziguten pintada bat, "putas vascas feminazis".

Elene (17 urte): Zer, lehengo urtean edo orain dela bi?

Irene (17 urte): Lehengo urtean. Jarri genun azaroaren 25ean ikastolan "Sua heteropatriarkatuari".

Elene (17 urte): Ikastolak eskatu ziguna.

Irene (17 urte): Hori da. Ikastolak eskatu zigun ba... Ze gu fregau guztitan gaude. Eta jarri genun "Sua heteropatriarkatuari", eta agertu zan hurrengo astelehenean pintada bat gainetikan, "Arriba España", "Putas vascas feminazis", "Arriba Maradona". Orduan gu gea las putas vascas feminazis.

Elene (17 urte): Gu gea tipika kuadrilla euskalduna betidanik, pues hori.

Euskararen erabilerarekin lotzen diren elementu ideologikoez ari garela, deigarria da, baita ere, Euskal Herrian borroka armatua ezagutu ez duten gazteek nola lotu dezaketen

euskaraz hitz egitea bera ETarekin, edo nola egiten duten gazte batzuek Espainiaren aldeko aldarria, itxuraz modu ironikoan, euskararen erabilera jakin batzuen aurrean.

Elene (17 urte): Eta nik uste det izan daitekela arrazoi bat txikitan edo DBHn euskeraz ez hitz egiteko. Igual jendiak ebai pentsatzen zun, politika aldetik... Esan nahi det, igual euskeraz hitz egiten badezu etarra zea. O zea, ez dakit zer. Eta igual nik askotan entzun det norbaitek zerbait euskeraz esan eta gero esan, "Viva España".

Irene (17 urte): Egia da. Gu pasa pasilotatikan eta... "Arriba España". Eta zu gelditzea zea hola... "Ah... bale".

Hala, euskaraz egitea bera halako nahaste-borraste ideologiko bati lotzen diote hainbat gaztek. Bereziki ezker muturreko gizarte mugimenduekin eta independentismoari edo feminismoari loturiko aldarri politikoekin.

Irene (17 urte): Bai, bai. Beraientzako dena da hori. Zuk euskeraz hitzeiten badezu, etarra zea, feminista zea, dena zea. [...] Beaiantzako da como, ez dakit, lotzen dute dena. Ez daka zerikusirik [...]. "La revolucionaria" edo. Eta zian danak. Vascas, feminazis, bollera...

Elene (17 urte): Bai, dena gea.

Izan ere, normaren barruan dagoenak, ez du arau-aldaketa atsegin. Gazteei oro har, helduoi bezalaxe, erakargarri zaie arauari kontra egitea baldin eta araua aldatzeak egoera erosoago bat ekarriko badio.

Daniel (19 urte): Eske da handia den horren kontra egiten dutela. Gaztelaniaren kontra, euskeraz hitz eginez. Patriarkatuaren kontra...

[...]

Elk.: Eta handiaren kontra egitea, berez, ez da gazteentzako erakargarria den ideia bat?

Daniel (19 urte): Baino hori da, handia gazteen ingurutik kanpo dagoenean. Baino, handi hori gazteen barruan badago, ez. Normal jokatu nahi dezu. Eta horregatik igual, gaztelania zure hizkuntza bada, eta zure inguruko hizkuntza bada, hori da zuk babestu nahi duzuna eta zuk erabili nahi duzuna.

KONTZIENTE GARA, BAINA

.....

Aipatzen da han eta hemen gaur egungo gazteek ez dutela euskara hizkuntza gutxietua izatearen sentipenik, eta hizkuntza biziberritu beharraren kezka sentitzen zuen gazte belaunaldi batetik euskararen etorkizuna bermatua dagoela sentitzen duen gazte belaunaldi batera pasatu garela⁴⁴. Euskararen aldeko gizarte mugimendutik euskararen aldeko ekimenen instituzionalizaziorantz jo dugu, eta badirudi gazteak ez direla hizkuntzaren biziberritze prozesuan eragile sentitzen. Ez euskararen biziberritze mugimenduarekiko ardurarik sentitzen ez dutelako, haien buruari egoera eraldatzeko agentziarik egotzen ez diotelako baizik⁴⁵.

Talde eztabaidetan parte hartu duten gazteen kasuan, beltz samar ikusten dute etorkizuna, eta ez dute euskararen erabilera *normalizatu*a leukakeen Lasarte-Oria bat erraz irudikatzen. Eta egoera horren aurrean indarge sentitzen dira.

EGUNERO, DENA OKERRAGO...

Gazteek gero eta gutxiago hitz egiten dutela diote denek aho batez, eta ez dela soilik *fase* bat, denboran iraungo duen errealitate bat baizik.

Markel (23 urte): Eske nik adibidez, entrenatset ekipo bat futboleantaz ez du inorrek iten euskeraz. Guk lehen gehienbat igual erderaz iten genun baino bueno, yo que se, Oihan ta Haritz beaien artean euskeraz. Oain inorrek ez. Ta oain dala 2 urte ere inorrek ez.

Borja (19 urte): Oso gutxi [erabiltzen dugu euskara], batez ere geroz eta txikiagoak gutxiago. O sea adibidez gure adinean ya notatzen da gutxi erabiltzen degula eta nere anaiak adibidez askoz ere gutxiago.

Andoni (19 urte): Ya ze nik uste det gainea eskoletan oain, ikastolan txikiek gutxiago hitz egiten dutela euskeraz. Eta asko notatzen da ze pasatzen zea adibidez DBH-n ondotik eta denak erderaz ari dia eta hola, ta notatzen da.

44 Hala dio Andoni Del Amok, esaterako (2017-2018). Gure datuek erakusten dute Lasarte-Oriako gazteen %23,5ek soilik pentsatzen duela etorkizunean euskararen egoera txarragoa izango dela gaur egun dena baino.

45 Hernández eta Altunak plazaratu duten hipotesia da hau: euskararen aldeko ekimenen instituzionalizazioak ikuspuntu helduzentrista gailentzea ekarri duela diote, alegia, helduon ikuspuntutik diseinatu direla gazteen jokaeretan eragiteko plangintzak, eta horren eragina nabarmentzen dute gazteen diskurtsoetan (Hernández & Altuna, 2017).

Lander (14 urte): Zaharragoetan kuadrilla euskaldun gehiago daude.

Elk.: Zuek zaharragoak zaretenean zuen artean kuadrilla euskaldun gehiago egongo direla uste duzue?

Lander, Alba, Ainara, Leire (14 eta 13 urte): Ez.

Lander (14 urte): Generazio kontua da.

Elk.: Eta zuenean justo kuadrilla guztiek egiten dute gaztelaniaz?

Leire (13 urte): Aber, baten bat egongo da, baina...

Lander (14 urte): Generalean bai.

Elk.: Den denak?

Lander (14 urte): Gure adinean bat badago. [Barre egiten dute denek. Bere kuadrillaz ari da].

Eta etorkizuneko irudikapen hori ardura eta kezkatik bizi dute partaideetako askok, bereziki zaharrenengan⁴⁶. Haien sentipena da, ordea, egoeraz kontziente izanagatik haien adinkideei, oro har, ez zaiela asko inporta.

Borja (19 urte): Nik esango nuke [egoera] txarra dila baina, kontziente gara uste dut [...].

Andoni (19 urte): Uste dut denak garela kontziente.

Borja (19 urte): Gero igual batzuei inporta zaiela eta beste batzuei ez.

Olaia (22 urte): Igual kontziente bai, baina, inporta esaten dana...

Eztabaida taldeetako parte hartzaileetako askok parte hartzen dute edo hartu izan dute euskararen sustatzearen aldeko ekimenetan (eskolako Euskara Batzordeetan parte hartuz, esaterako). Eta ez dute beti esperientzia positibo gisa bizi. Are gehiago, zenbaitek euskararen aldeko ekintzailatza gatazka iturri gisa bizi dute.

Irene (17 urte): Ikastolan guk in genitun, DBH 4n egon ginan euskera batzordean [...]. Egon ginan ekintzak egiten eta hola, ikusten genulako...

⁴⁶ Gogoraztea dagokigu zaharrenen artean, bereziki, euskararekiko ardura handia zuten partaideak izan zirela talde elkarrizketetan. Baieztapen honekin (ere) ez dugu, beraz, Lasarte-Oriako gazteei buruzko baieztapen orokor bat egin nahi.

Elene (17 urte): Gehio hitz egiten zala euskeraz entretenigarria bihurtuz...

Irene (17 urte): Hori, ahal zala gehio hitz egin euskeraz. Ordun iten genitun ekintzak eta hola [...]. O sea adibidez zan, patiotan musika jartzea. O sea, euskeraz... [...] "Aldapan gora", o sea... patioan. "Es que lo haceis pa joder, es que no se qué", eta deika, musika mozten... O sea betiko euskaldunak, betiko kuadrilla... "es que lo hacéis pa joder", aber ai gea euskeraren aldeko ekintza bat iten. Cómo que pa joder? "Es que ponéis el altavoz gure ondoan pa jodernos". Baina eske, ta holako ekintza pila bat eta, boikoteatze gaituzte pila bat. Baina bueno, orain ya ez hainbeste. Orain ya, pasan gehio gutaz.

Elene (17 urte): Ez, baina, bai. Justo ustet izan zala ebai urtea in genuna, bueno "putas vascas", eta ordun izan zan urte bat... Izan ziala gauza gehiegi, ez dakit, ez zekatela zentzua. Ez dakit zer pentsatzen zuten, ez dakit, zan dena gure kontra. Edozer gauza ite genula, gure kontra.

Irene (17 urte): Eta sentitzen zinan, "zertako ai naiz hau iten ez badu erantzunik"... O sea ez dakit, ez daude ondorioak. Ez gaude ondorio onak ateratzen, ordun zertako jarraituko deu iten, ez badeu ezer lortzen. Baina, bueno...

Hala, gazteek haien adinkideak urrun sentitzen dituzte euskararen aldeko ekimene-tatik (izan eskolako edo herriko ekimene-tatik zein euskararen aldeko gizarte mugimen-du zabalagotik). Are gehiago, sentitzen dute badagoela korronte bat halako ekintzekiko mespretxua erakustera bultzatzen dituen haien adinkideak.

EUSKALGINTZA URRUTI ETA KALEA GALDU

Euskalgintzarekiko loturarik eza da nagusi gazteen artean. "Hor dago", diote. Hor daude euskararen aldeko ekimenak, baina, ez dira gazteen kontua. Haien mundutik at antolatzen eta garatzen diren ekimenak dira, eta, batzuk parte hartzeko gogoia izango dute, beste batzuk asko jota hurbildu egingo dira, baina, gehiengoak ez du ekimenean aktiboki parte hartzeko girik sentitzen⁴⁷.

Elk.: Euskeran aldeko kanpainak, Maratoia, Euskaraldia, gauza hoiek danak... Iruitzen zaizue gaztek parte sentitzen diala, edo...?

Elene (17 urte): Nik uste ezetz.

47 Fenomeno bera identifikatzen dute Altunak eta Hernándezek "Gazteak euskararen eszenatokian" izeneko ikerketa-lanean Zumaia, Gernika, Pasai Donibane eta Amorebieta-Etxanoko gazteengan: Hizkuntzarekin zerikusia duten ekitaldien deia iristen zaie, badute horien berri oro har, baina ez dute parte hartzen, non-eta ez den jai itxurako ekimene bat. Euskalgintza arrotz zaie gazteei, eta mugimendu horrek gazteen indarra behar du, baina gazteen hutsunea nabari du. (Altuna & Hernández, 2021:34)

Daniel (19 urte): “Hor dago”.

Elene (17 urte): Bai, nik uste hoi dala, “hor dago”. Ez dakit. Adibidez ni bai ikusten naiz, baina igual jendea, bueno, pertsona batzuk igual ez, beste batzuk bai. Ordun nik uste dala, pues hori, Danielek esan duena, “hor dao”. “Por estar”.

Marta (18 urte): Bakoitza, en plan, bere pentsameduak dazkala ta bere erabilera dakala ta bere ohiturak dazkala. Ordun ba igual pertsona bat bai ahal da, ahal du sentitu a lo “bale, ni hemen sartuko naiz” a lo “parte hartuko nuke” ta beste bat todo lo contrario, en plan “madre mía, baino zer da hau? Urtero berdina?”

Ikerketa hau bera, euskararen aldeko ekimen gisa ulertzen dute gazteek. Zaharrenen artean, bereziki, eztabaida-taldean parte hartzea etorri direnen motibazio nagusia ekimen honi haien ekarpena egitea da. Eta euskararen aldeko ekimenekiko haien adinkideek duten lotura eta inplikazio maila azaltzeko, eztabaida taldean parte hartzea bera hartzen dute adibidetzat: gehienek nahiago dute ostegun arratsalde batez beste zerbait egin.

Manex (24 urte): Zabala, adibidez, nere edadekoa, gurason partetik txikitari oso euskaldun taldean ibiltzen zan, gero erdaldun taldera pasa zan eta hoi adibidez, Agirrek komentatu zion honea etortzeko eta esate zun “euskerara, Lasarte, gazteak... Yo qué hostia voy a ir ahí?”.

Markel (23 urte): Esan zion, nei esan dit . “Sinceramente -esan dit- mira Agirre, la verdad es que no tengo muchas ganas, el viernes empiezo a trabajar y el jueves me apetece irme de cañas”. Holako zeoze, konfiantza guztiakin. Ta euskeraz hitz eiteko problemik ez daka, ta inkesta in zun...

Instituzionalizazioa: Kalea galdu

Lasarte-Orian ere, gazteek eskolarekin eta instituzioekin lotzen dute euskara, nagusiki. Familia euskaldunetakoak direnek eta euskaraz hitz egiteko ohitura duten kuadrilletakoek bestelako loturak ere izango dituzte euskararekin, eta, beraz, euskararen beste irudi bat. Baina gazteek, oro har, ez dute euskara haien aisialdiarekin eta kalearekin lotzen⁴⁸.

48 Are gehiago. Garai batean euskararen aldeko aldarria bera gazte kulturarekin eta kontrakulturarekin lotu bazitekeen ere, lotura hau hautsi egin da. Are, Halaxe azaltzen dute Hernández eta Santamaría: Praktikan, euskararen normalizazioak eta instituzionalizazioak aurrera egin ahala, kalearen tokia eskolak bereganatu du eta horrek hizkuntzaren gaineko iruditegi zein ideologia berriak bultzatu ditu. Gazte kulturengandik urrunduta, euskarak aro berri bati ekin zion: punk mugimendua eta Do It Yourself atzean utzi eta planifikaziora egin zuen jauzi. (Hernández & Santamaría, 2021:353)

Talde eztabaidetan parte hartu duten gazteak kontziente dira, hein batean, 1980-1990eko hamarkadetan euskara hurbilago zegoela kaletik, eta gizarte mugimendu batek eraman zuela euskara eskolara eta instituzioetara, hizkuntza biziberritzeko estrategia baten baitan. Baina, ikusten dutena da, kalea eta euskararen arteko lotura ahuldu egin dela eta horrek ondorio latzak ekarri dituela: gaztetxoek euskara eremu formalarekin lotzea, batez ere. Badakite euskara *kalera jaistea* beharrezkoa izango dela gazteek euskara erabil dezaten. Eta badakite ez dela erraza izango.

Ibon (23 urte): Beldurra ematen du azkenen euskera ari dala bihurtzen batez ere gaztetxoentzat tresna instituzionala, o sea, eremu formalean bakarrik erabiltzen dan gauza bat, eta hortikan. In zan sekulako esfortzua kaletik instituzioetara eramateko ta sekulako hamarkadak behar izan dia ta tendentziak hola jarraitzen baldin badu sekulako esfortzua beharko da hori berriz kalera jaisteko. [...] Garai hontan mundua ahalik eta azkarrago dijoala, hainbeste gauza daudela eskura, berriro euskara kalera jeistea ez da erraza izango.

ZENBAIT GOGOETA ILDO

.....

AISIALDIA ETA GAZTE KULTURA GAKO

Gazteekin izandako eztabaidetan argi gelditu da gazteen ingurunean euskarak leku gutxi duela. Askorentzat eskolan baino hitz egiten ez den hizkuntza da euskara, eta eskolan ere, gutxi. Etxekoek euskaraz dakitenen kasuan, euskarak badu haien bizitza afektiboan zentzu bat. Baina, kasu batean zein bestean, urteak joan ahala gazteek gero eta garrantzi gehiago ematen diete haien adinkideekin dituzten harremanei. Eskolako eta etxeko harremanen erreferentzialtasuna galtzen dute, eta, aldiz, aisialdiak indarra hartzen du: gero eta denbora gehiago pasatzen dute kolean, gero eta autonomia handiagoa dute, lagunekin egiten dituzten planetan jartzen dute arreta, eta etxetik eta eskolatik kanpora gertatzen dena bihurtzen da zentrala haien bizitzan.

Eta kalea beste mundu bat da. Eskolan D ereduan ikasiagatik eta etxean euskaraz eginagatik, Lasarte-Orian kolean euskaraz egitea ez da emana den zerbait. Euskaraz egiteko joera duten adinkidez osaturiko sare sozialak eduki ezean, nekez egingo du gazte batek euskaraz bere aisialdian.

Kuadrillan euskarazko joera duten gazteek ere harreman esanguratsuak garatuko dituzte euskaraz. Eta, beharbada, beste kuadrilletakoekin ere euskaraz egiteko joerari eutsiko diote. Edo kuadrillan euskaraz egingo dute nagusiki, eta kuadrillatik kanpora, parekoaren edo unean uneko talde-konfigurazioaren arabera. Izango dira gaztelaniazko joera duten kuadrilletakoak ere, euskararako joera dutenekin euskaraz egingo dutenak maiz samar. Baina, nagusiki, Lasarte-Oriako gazteek erdaraz egiten dute haien artean, bai kuadrillan eta bai kuadrillatik kanpo. Beti euskaraz aritzen diren kuadrillak oso banaka kontatzen dituzte gazteek belaunaldi bakoitzean. Kolean, nagusiki, gaztelaniaz egiten da.

Gazteen hitzetan nahiko argi ageri da familia eta eskola ez direla nahikoa euskararen erabilerari kolean eusteko⁴⁹. Aisialdia da gazteentzat haien identitatea garatzeko leku estrategikoa. Gazte kulturak dira haien erreferentzia. Lokalak, tabernak, musika,

49 Hernández eta Santamaría halaxe azpimarratzen dute Zornotzan, Gernikan, Pasaian eta Zumaian egindako ikerketetan:

Ikusi dugu familiaren transmisioa erabakigarritzat jotzen dela euskararen biziberritzean. Baina gurekin bildutako gazteak dira familia tradizionalaren transmisio ahalmenaren eragin mugatuaren frogagarri duen adibide argiena. Izan ere, gazte hauek etxe giro erdaldunetan hezitako euskaldunak izan dira kasu askotan. Horrek bestelako familia eredu batzuetan pentsatzera eramaten gaitu, eta hor, batez ere lagunartea, aisialdia eta harreman informalak agertu dira ikerketa honetan indarrez: unibertitate garaiko lagunak, kuadrillakoak, lokalekoak, jarduera ezberdinei lotutakoak, etab. Badirudi bermea familia dela; baina batez ere berek aukeratutako familia. Hau da, lagunartea eta adinkideen arteko guneak. (Hernández & Santamaría, 2021:370)

sare sozialak, lagunekin denbora pasatzeko dituzten ohiturak. Aisialdian eraikitzen duten bizimoduarekin, praktikekin eta diskurtsoekin eraikitzen dute haien izateko era, eta eraikuntza horretan parte hartzen dute hizkuntza praktikek ere⁵⁰.

KOMUNIKABIDE/KULTUR KONTSUMO ALDAKETAK BELAUNALDI ARTEKO ARRAKALA?

Haien hizkuntza praktikak, bestalde, ez dira soilik ahozkoak eta aurrez aurrekoak. Gazteek haien adinkideekin, kuadrillakoekin, zein bestelako ezagunekin sarean ere komunikatzen dira. Interneta gure etxeetan sartzen ikusi genuenontzat ez da erraza ulertzen gaur egungo gazteen sarearekiko harremana ez eta sarean dauzkaten harremanen nolakotasuna ere. Kultura digitalari eta komunikabideei dagokionez, gainera, aldaketa asko gertatu dira denbora gutxian.

Telebistako kateak kontatzeko eskuko hamar hatz soberan genituen askok gure gaztaroan, baina, telebista pribatuen hedapena gertatzen ikusi genuen lehenik. Aldaketa teknologikoak etorri ziren gerora (Internetaren hedapen masiboa, datu mugikorrek eskura edukitzea, eta komunikabideen digitalizazioa). Eta orain makroenpresen hegemonia (GAFA deituriko Google, Amazon, Facebook, eta Apple bezalako enpresena) komunikabideak zein kultura kontsumitzeko dugun modua eraldatzen ari da⁵¹. Orain arte kultur ekoizpena eta hedapena erregulatu duten bitartekari kulturalak (izan herri ekimenekoak, instituzioak edo industria) ahultzen ari dira, eta aldi berean informazioaren trukerako sareekin batera kulturaren digitalizazioa gertatzen ari da. Zenbait ikerlariren ustez, etorkizunean nagusiki digitalki kontsumituko dugu -komunikabideak ezezik- kultura ere.

Edonola ere, azken hamarkadan gertatu diren aldaketek erabat aldatu dituzte komunikabideak zein hainbat kultur ekoizpen kontsumitzeko moduak. Kultura digitala modu masiboan eta azkarrean hedatu da. Oso berriak diren fenomenoak oso presente

50 Altuna eta Hernándezek hala diote:

Kaleko hizkuntza-praktikek ez dute zerikusirik etxekoarekin edo eskolako jardun formalarekin. Etena handia da. Gazteen kulturaren eta unibertsoan euskarak euskarri oso ahulak ditu. Benetan inporta zaiena, beren ohiko espazioak, produktuak eta praktikak, hala nola sare sozialak, ikus-entzunezkoak, musika, moda, kirola, kuadrilla, lokalak, diskotekak edo jaiak bezalakoak, euskara urrikoak dira. Elementu kultural horien bidez eraikitzen dituzte nerabeek eta gaztetxoek beren identitatea, bizimodua eta mundua. (Altuna & Hernández, 2021:38)

51 Kultur kontsumoari dagokionez ere, kezka ez da oraingoa. Euskarazko kulturaren kontsumoari buruz Elkar Taldeak Euskal Herri osoko datuak bilduz 2017an argitaraturiko txostenak (Siadeco, 2017) ala Eusko Jaurlaritzak 2018an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eginiko ikerketa soziologikoak (Eusko Jaurlaritzak, 2018), antzeko ondorioak plazaratu zituzten: euskarazko kultur kontsumoa beherantz doa.

daude gure eguneroko bizitzan⁵². Gaur egungo gazteak behin eta berriz konektatzen dira sare sozialetara egunean zehar, elkarrizketarako aplikazio bidez sortzen eta garatzen eta mantentzen dituzte harremanak, eta telebista aurrean baino denbora gehiago pasatzen dute Youtubeko bideoak ikusten⁵³.

Berriak diren plataforma, gailu eta kontsumo bideok sozializazio eragile bihurtu dira eta gure errealitate sozialean eragiten dute, guk nahi ala ez. Ez dakiguna da nola, norantz, eta zenbateraino. Jakin badakigu belaunaldi gazteenengan fenomeno hauek duten eragina handia dela, haien sozializazioan, hots, identitate eta praktiken sorreran eta garapenean, gazte kulturekiko haien harremanean, eta -pentsa liteke- baita hizkuntza praktiketan ere. Baina, oso urrun gaude gazteen ohiturak ezagutzetik, eta are urrunago ohiturok ulertzetik⁵⁴.

Kontuak kontu, aldaketa azkar bezain sakonak gertatu dira eta gertatzen ari dira kultura eta komunikabideak kontsumitzeko, sortzeko zein hedatzeko gure moduan. Hain da azkarra, ezen gazteek beraiek urte gutxiko aldean arrakala bat nabaritzen baitute.

Markel (23 urte): Ba nik nere lehen mobila euki nun, hola, mobila ya WhatsApp-akin eta... ze DBH3, DBH4? Ta oain adibidez, klase ematen diot ume bati, DBH1en. Hasi nintzan, ta hor bazekan beak Instagrama, Twitter, Tik-Tok, Youtube... Ta hoielik danak. Nik txikitan Youtube ez nun ikusten.

52 Honela dio Josu Amezagak:

Facebook 2006an bihurtu zen irekia, Twitter 2007koa da, Whatsapp 2009koa, lehen smartphone-a 2007koa, lehen tableta 2010ekoa, telebista ikusteko ohitura aldatzen ari den eta jadanik gure inguruko etxeen %10era sartu den Netflix plataforma 2016an iritsi zen Espainiar Estatura. Hain aldaketa abiada biziekin zaila da atzetik etorriko diren ondorio sozialak aurreikustea, horietaz ohartzea zaila den bezalaxe. Baina sintoma ugari daude eragiten ari diren eraldakuntza oso sakona dela esateko. (Amezaga, 2018: 56-57)

53 Edorta Arana Arrieta, Bea Narbaiza Amillategi eta Jon Iriarte Mendiolak Euskal Herriko Unibertsitateko 800 ikasle ingururen erantzunak baliatuz ondorengo datuak jaso dituzte berriki. Ikasleen % 61ek dio egunean 3 ordutik gora inbertitzen dituela Interneten, sare sozialetan edota bestelako plataforma digitaletan bideoak, pelikulak, serieak, musika edota beste edozein eduki ikusten. 2-3 ordu bitarteanbeste % 25ek. ikasleen % 29k esaten du, aldiz, ez duela telebistarik ikusi ere egiten. Youtuberi dagokionez, ordea, ikasleen % 65 gutxienez egunean behin sartzen da bertako bideoaren bat ikustera, eta % 28 behin baino gehiagotan. (Arrieta, Narbaiza & Iriarte, 2020).

54 Amezagak halaxe azaltzen ditu errealitate hau ulertzeko helduon mugak:

Modu grafikoan adieraz daiteke kulturaren transmisioan eta sozializazioan gertatzen ari den aldaketaren sakonera: telebistari begira hezi ginen lehen euskal gizaldikoen kasuan, bi eragilek mugatzen zuten zer eskuratu genezakeen tresna berri hartatik: estatuak eta familiak (gurasoek). Lehenak telebistaz hedatzen zenaren mugak ezartzen zituen; bigarrenek bigarren iragazia ezartzen zuten, eskaintzan zegoenaren artean ikus zitekeenaren eta ezin zitekeenaren arteko bereizketa eginez. Telebistaren pribatizazio, liberalizazio eta transnionalizazioarekin, estatuak kontrol horren zatirik handiena galdu zuen, familiak oraindik ere nolabaiteko ahalmenari eusten zion bitartean. Gaur egun, ordea, 10 eta 15 urte arteko euskal gazteen %75ek smartphone bat dutelarik (Instituto Nacional de Estadística, 2017), gurasoek jakin ere ez dute jakiten haien seme-alabek zer ikus-entzunezko produktu kontsumitzen duten. (Amezaga, 2018: 56)

Elk.: Txikitan zuek ez zenezkaten Youtuberrak erreferente bezela?

Markel (23 urte): Ez.

Manex (24 urte): Keba.

Ibon (23 urte): Garai hoietan ez.

Iñaki (23 urte): Baino nik ustet oain dala 4, nere anaiak eta ere bai, 2003koak, oaindikan ere, o sea 23 urteko gazte batek oso urruti ikusi dula Youtuberra izan nahi dun... Nei ez zait tokatu ume bat Youtuberra izan nahi duna.

Manex (24 urte): Zure anaian generazion baietz Youtuberrak egon?

Iñaki (23 urte): Keba.

Manex (24 urte): Seguro baietz.

Bide berri hauetatik kontsumitzen dutenak haien hizkuntza praktketan nola eragin-go duen zaila da jakiten. Hasteko, zaila da jakiten zenbateraino hautatzen duten kontsumitzen dutena. Zenbaiten ustez bide berriok norbanakoaren autonomia sustatzen dute: norberak erabaki dezake zer noiz nola eta non kontsumitu, eta norekin zer partekatu. Beste batzuen ustez alderantziz da: gero eta botere gehiago dute sarea eurenganatu duten enpresa multinazionalak eta ikus-entzunezkoen ekoizle-banatzaille erraldoiek eta beraiek dira algoritmo bidez gure desioak eta gustuak identifikatu ezezik desio eta gustuok eraikitzen eta bideratzen dituztenak.

Edonola ere, mundua ikusteko, iragazteko eta bizitzeko modu hauek eragina dute gazteen -eta ez hain gazteen- identitate eta praktketan, eta beraz, baita hizkuntza hautuetan eta ohituretan ere. Ikerketa honek ezin du neurtu azken hamarkadan kultura digitalean izandako aldaketek nola eta zenbateraino eragin duten gazteen hizkuntza praktketan, eta zenbateraino dauden loturik aldaketa hau eta hizkuntza praktketan ikusi dugun belaunaldi ezberdinen arteko arrakala.

Ondoriozta dezakegu, ordea, gazteen -eta ez hain gazteen- hizkuntza erabilera ulertu nahi badugu, nahitaez begiratu beharko diegula egiturazko aldaketa hauei ere. Ez gara lehengora itzuliko. Beraz, lehen genituen errealtate soziolinguistikoa interpretatzeko tresnak ez dira aski gaur egungoa -eta etorkizuneko- ulertzeko.

HIZKUNTZA OHITURA ALDAKETARAKO AUKERAK

Gazte kultura eta gazteen arteko praktikek indarra hartu ahala, lokalak, tabernak eta sarea gazteen identitate eta praktikak garatzeko gune nagusi bilakatzen dira. Espazio hauetan eguneroko bizitzan eraikitzen dituzten praktikekin batera eraikitzen dituzte hizkuntza ohiturak ere. Sarean zein aurrez aurre, etengabe, egunero, are uneoro ari dira

gazteak haien hizkuntza moldatzen, orain bata orain bestea erabiltzen, parekoaren hizkuntza joerarekiko egokitzen, tentsioak identifikatzen eta desegiten.

Familia (etxean euskaraz egiten dutenen kasuan) eta eskola (euskaraz ikasten dutenen kasuan) badira hein batean zurrakaitz, euskarazko hizkuntza praktikak garatzeko. Baina, ez dira inondik inora aski. Gazteak adinean aurrera egin ahala eta aisialdiko haien arteko harremanak estutu ahala, eskolako hizkuntza praktikak ere aldatzen dituzte.

Eta kalean gauza asko gertatzen dira. Kirol jardueretan taldetxoak osatzen dira, lokalak errentan hartzeko kuadrillak batzen dira, interes desberdinak dituzten kuadrilla bereko gazteak bereizi egiten dira, edo kuadrillak batu; tabernetan espazioa konpartitzen dute batzuk besteekin, belaunaldi ezberdinetakoek egiten dute bat... Hori guztia hizkuntzaren bidez ere gertatzen da, eta horrek guztiak eragina du gazteen hizkuntza praktiketan.

Jakinik familiako hizkuntza arauak aski zurrinak eta finkatuak izaten direla eta eskolakoak ere bai, hizkuntza mudantzarako aukera gehien gazteen artean dago. Hauen artean ere zenbait gertuko harremanetan arauak nahiko sendoak izan ohi dira eta inertziek indar handia dute. Eta gazteei hurbilekoekin egiten zaie zailen, gaztelaniaz hitz egitetik euskaraz hitz egitera pasatzea, edo euskara mantentzea bera. Behin harremanetan hizkuntza finkatua dagoenean, hizkuntza aldatzeak harremana bera aldatzea dakar, nolabait.

Manex (24 urte): Eta, adibidez nei gertatzen zitzaidan, nik ez dakit zergatik baino beti... Igal erdaldun jendiakin, o sea, oso erdaldun jendiakin, kalian euskeraz inoiz egiten ez dun hoikin, bai saiatze nintzala beraiei euskeraz egiten eta beraiek askotan euskeraz erantzuten ziaten. Bestela, beraiek erderaz eta ni euskeraz. Eta igual nere lagun gertukokin euskaldunak ziala... Askotan elkarrizketak zekan joera erderara pasatzeko eta nere lagun euskaldunekin igual erderaz bukatze nun hizketan. Eta beste erdaldunekin nik bai iten nula esfortzu bat euskeraz iteko beraiekin.

Iñaki (23 urte): Eta ni alde hortatikan ebai, badaude batzuk, nik beraiekin erderaz hitzeit det ze beaiek ez dia batere komodo eoten euskeraz hitz egiten. Ez dia batere komodo egoten. Ba etortze zaizkit burura Ander ta hola, eta esatezu... Bueno, hortan ni ere ez naiz oso gorra... "Euskeraz mantenduko naiz". Ta, eske ezin det, Anderrekin. Ezin da ze gu ere saiatu izan gea baino ez du iten. Ze gainera Ander gertukoa da.

Baina, eskola aldaketek, kuadrillako aldaketek, hezkuntza ez formaleko talde dinami-
kek, kideen artean hizkuntza bat ala beste hitz egitetik beste bat hitz egitera igarotzeko
testuingurua eskaintzen dute.

Badaude, ordea, euskararako hizkuntza mudantzak eman ez daitezen hainbat muga. Eta horietako batzuk, hizkuntza ideologiekina daude lotuta, alegia, hiztunek egiten dutenarekin baino, hiztunei eta hizkuntzei buruz pentsatzen dugunarekin.

HIZKUNTZA IDEOLOGIEZ ETA DISKURTSO EZ

Gazteek hiztunei eta hizkuntzei buruz dituzten ideiek eta diskurtsoek bat egiten dute helduok ditugun ideia eta diskurtsoekin. Gizartean aurki daitezkeen diskurtsoak gazteen ahotan ere aurki daitezke. Horietako bat da gazteek “ateratzen zaien” hizkuntza hitz egiten dutela. Hala, diskurtso horren arabera etxean euskaraz egiten duenari ateratzen zaio berez, kalean euskaraz egitea, eta etxean erdaraz egiten duenari, berriz, erdaraz egitea.

Orain dela hamarkada batzuk, hizkuntza biziberritzeko gizarte mugimendua pil-pilean zegoenean, hizkuntza erabilera modu politikoan ulertzea ohikoagoa zen. Asko ziren haien burua euskalduntzeko ahalegina egiten zuten helduak, edo haien haurrei beraien lehen hizkuntza ez zen hizkuntza batean hitz egitea erabakitzen zutenak edo bikotekidearekin erdaraz hitz egiteko ohitura izan eta euskarara pasatzeko hautu kontzientea egiten zutenak. Hezkuntza formalaren bidezko eta familiaren baitako hizkuntza transmisioa zen orduan biziberritze estrategiaren ardatz argi. Eta horrek izan ditu bere ondorioak.

Nagusiki, euskararen ezagutza ikaragarri hazi da haur eta gazteen artean, eskola bidezko euskalduntzeari esker. Gero eta gehiago dira euskaraz dakiten gurasoak ere, eta haiek ere D ereduaren eskolatzen dituzte, nagusiki, haien haurrak. Euskaldundu behar ziren haur eta gazte haiek, beraz, euskaldundu dira. Besterik da hizkuntza erabiltzen ote duten.

Eta gazteek behin eta berriz esaten dutena da hizkuntza bat ala beste “ateratzen” zaiela, familiako hizkuntza ohituren eraginez. Eta hizkuntza erabilera naturalizatu egiten dute: etxean euskaraz egiten dutenek egiten dute euskaraz kalean, eta etxean erdaraz egiten dutenek, erdaraz. Kontua da lotura hori konplexua dela, eta eztabaida taldeetako gazteen beraien errealitatea ere ez dela hain simplea⁵⁵. Etxean erdaraz egiteko joera dutenak badaude euskarazko joera duten kuadrillatan, eta euskaraz aritzen dira egunerokotasunean haien lagunartean. Eta alderantzizkoak ere asko direla badakite: denek ezagutzen dute etxean euskaraz eginagatik gaztelaniaz aritzen den bat baino gehiago.

Hizkuntza bat ala beste *berez* erabiltzearen diskurtso horrek bi iturritatik edaten du. Alde batetik, hizkuntzaren familia bidezko transmisioaren garrantzia azpimarratu duten hizkuntzaren biziberritzearen aldeko diskurtsoak daude. Diskurtso horiek bere lehen hizkuntza euskara izango duen hiztun ideal baten inguruan daude eraikita: euskara *berezkoa* izango duen hiztuneari. Hala, euskara eskola bidez ikasi duten hiztunak *transizio hiztun* lirakeke: helburua litzateke beraien seme-alabak edukitzerakoan haiek euska-

55 Ikus, bestela, atal kualitatiboko “Zenbait korrelazio” ataleko datuak, besteak beste.

raz heztea, eta, beraz, *berezko hiztunak* sortzea⁵⁶. Hitzun kategoria horiek, *etxetik euskaldunak* edo *etxetik erdaldunak*, aise erabiltzen dituzte gazteek, era batera edo bestera adierazita⁵⁷.

Gazteen artean, *berezko hiztuna* da euskarazko hitzun onaren eredu. Hala, *etxetik euskaldunak* ez diren gazteek ez dute legitimitate bera sentitzen, eta asko dira euskaraz hitz egitean deseroso sentitzen direla adierazten duten gazteak⁵⁸.

Hala, naturalizazioaren diskurtsoaren bidez, zenbait inertzia indartzen dira: *etxetik* erdaraz egiten dutenek kalean euskaraz ez egitea naturalizatzeak horren atzean dauden egiturazko arazoak (hizkuntzen arteko botere harreman deskorekatua, esaterako) ikusezin bilakatzea dakar, alde batetik, eta bestetik, euskararako hizkuntza mudantza aldaketa artifizial gisa ulertzea dakar. Beraz, hizkuntza ideologia hau bera izan daiteke euskararako hizkuntza mudantza gertatzeko muga. Izan ere, errazago esaten dute gazteek *etxetik euskaldunak* diren batzuei kalean gaztelania *ateratzen* zaiela, alderantziz baino. Gazteek falazia honen kontzientzia izan dezaten beharrezkoa da naturalizazioaren diskurtsotik harago zenbait hizkuntza hautu haien kabuz problematizatzeke.

Badaude hizkuntza mudantzak ez gertatzeko muga gehiago ere. Bata, hizkuntza gaitasun urriarena da. Eskolak euskaldundutako gazteek, eskolan soilik erabiltzen badute euskara, zaila da eremu informalerako beharrezko gaitasunak eskuratzea⁵⁹. Hala, erabilera informala eskatzen duten testuinguruetan, ohikoa da gazte horiek erdarara jotzea. Eta horrela borobiltzen da gurpil zoroa, izan ere, erabilera ezak trebakuntza eza dakar.

Hala, euskaraz hitz egitea edo ez hitz egitea, hautu *libre* bat izan liteke, une batera arte. *Atera* dakizuke edo ez. Kontua da, une batetik aurrera hitzun batzuentzat hizkuntza hautua ez dela hautu *librea*, ez dutelako bi hizkuntzetan modu informalean eta jariatasunez hitz egiteko aski gaitasun.

56 Hernández eta Santamaríaren hitz hauetan ageri da gure gazteen diskurtsoetan ageri diren zenbait ideia helduok garatu ditugun diskurtsoetan oinarritzen direla: "Finean, azpiegitura sozial zein politikoeak, ezagutza zabaltzearen arduraz hezkuntza sistemaren esku utzi dute, eta transmisioarena aldira, familien-gan. Orain ikusten ari gara, gazteak euskarari buruz hausnartzerakoan, gidalerro berberak errepikatzen dituztela."(Hernández & Santamaría, 2021:370)

57 Batzuetan soilik euskaldunak eta erdaldunak terminoak erabiltzen dituzte, batzuek eta besteek euskaraz jakinda ere, *etxetik euskaldun/erdaldun* direnak edo euskarazko/erdarazko joera dutenak adierazteko.

58 Hernández eta Santamaríak ere hala diote.

Benetako euskalduna, euskara etxean jaso eta ostean kalean modu natural eta trebe batean erabiltzen duena da. Hori betetzen ez duten gazteak konplexuz beteta agertzen dira. Adibidez, euskaraz hitz egiteko erraztasunik eduki ez eta «lotsatuta» sentitu direla kontatzen dute familia erdaldunetako gazteek (euskaldunek) [...]. Ez dute familia euskaldunetako gazteek daukaten zilegitasun bera sentitzen. (Hernández & Santamaría, 2021:369)

59 Zentzu horretan, eskolak ere bere egitekoari buruz hausnartzea ez legoke soberan: Zenbat hitz egiten dute ikasleek gelan? Zein erregistrotan hitz egiteko trebatzen ditugu? Zeintzuk dira eskolak berak zabalzen dituen hitzun onari buruzko ideiak? Zein espektatiba helarazten dizkiegu hitzun batzuei eta besteei?

Eta horrek asko eragiten dio parekoari ere, noski, berari zein hizkuntzan hitz egin erabakitzerako orduan: interlokutorearen hizkuntza gaitasuna neurtzen badakite gazteek, eta aise antzematen dute parekoa hizkuntza batean eroso ari den ala ez. Horrek, beraz, eragin egingo du bi pertsonen arteko hizkuntza ohitura finkatzerako orduan.

Eta naturalizazioaren diskurtsoa, euskararen kalterako izango da, berriz ere: izan ere, errazago *aterako* zaio gaztelaniaz hitz egitea bere lehen hizkuntza euskara den gazte bati -jakinik gazte horrek gaztelaniazko jarioasuna eskuratu duela bere hiztun ibilbidetan- etxeko hizkuntza gaztelania duen gazte bati euskara baino -jakinez ez erabiltzearen poderioz jarioasunik ez duela eskuratu, edo galdu egin duela-.

Horregatik da, besteak beste behar-beharrezkoa gazteen hizkuntz ideologiak azterzea, mahai gaineratzea eta eraldatzea, berezko hiztunaren idealtasunetik harago doan eredu bat sortzeko⁶⁰. Eta horretarako, alde batetik, helduok gure hizkuntza ideologiak berrikustea ezinbestekoa da. Izan ere, badakigu gazteen diskurtsoak gizartean dauden diskurtsoetatik abiatuta eraikiak direla, hein batean. Eta bestetik, gazteek sortzen dituzten diskurtsoetara adi egotea ere komeni zaigu: beraiek dira, askotan, diskurtso zaharkituei alternatibak sortzen dizkietenak. Besterik da helduok gure botere-guneetatik diskurtso berriok legitimatzen ote ditugun ala ez.

AURRERA BEGIRA ZER?

Ikusi dugu atal kuantitatiboan badela zer ikertu oraindik familiako hizkuntza erabile-rari, gazteen hizkuntza gaitasunari eta identitateei dagokienez. Etxeko hizkuntza erabilerak behera egin du, eskolak ez du gazte askoren hizkuntza gaitasun egokia bermatzen, eta gero eta atxikimendu apalagoa sentitzen dute gazteek euskararekiko zein euskalduntasunarekiko.

Atal kualitatiboan ikusi dugunez, hizkuntza ohituren aldaketak talde konfigurazio berriekin batera gertatzen dira maiz, eta gazteen bizitzan talde konfigurazio berri gehien adinkideen artean gertatzen dira, izan eskolako aldaketak medio, izan eskolaz kanpoko jardueretan izan kalean, kuadrilla giroan. Gazteen egunerokoan familiaz eta eskolaz kanpoko harremanek gero eta garrantzi gehiago irabazten dute. Helduen kontroletik at eta adinkideen artean pasatako denbora libreak⁶¹ gero eta espazio handiagoa hartzen du haien bizitzetan, eta denbora horren zati handi bat sarean igarotzen dute.

60 Hala diote Hernándezek eta Santamaríak: "behar-beharrezkoa da euskararen gaineko hizkuntz ideologia(k) berrikustea eta hiztun natiboaren eredu zabalagoak diren beste eredu gaurkotuagoengatik ordezkatzeara". (Hernández & Santamaría, 2021:370)

61 Eta denbora libre hori estimu handitan dute. Hala diote Kontxesi Berrio-Otxoak, Jone Miren Hernándezek eta Zesar Martínezek: "Horrela, eurentzako, aisia da denbora libre askatasunez bizitzea; aisialdia da eguneroko errutinarekin, modu des-regularizatuan eta auto-antolatuan, haustea" (Berri-Otxoa et al., 2003: 72).

Heldutu ahala, gazteek haien kideak hartzen dituzte erreferentetzat. Buruhauste berberak edo antzekoak dituzte, bizitza-egoera konpartitzen dute, eta lagunak eta lagun taldeak bilakatzen dira gazteen eta gizarte zabalagoaren arteko mediazio gune.

Gazteek, oro har, euskalgintza urrun sentitzen dute, ordea. Euskararen biziberritza ez da gazteek konpartitzen duten kezka bat. Ez eta ardura bat ere, gehienentzat. Ez dira euskararen egoeraren erantzule sentitzen (are gehiago, ez dute iritzi argirik euskararen etorkizunaren inguruan), eta kontziente badira ere gazteen -alegia, haien- erabilerak eragiten diola euskararen egoerari, egoera baten jasale gisa irudikatzen dute haien burua, eragile baino gehiago.

Izan ere, euskararen biziberritze prozesuan gazteak gako direla ez du inork ukatzen. Maiz begiratzen zaie gazteak etorkizuneko prospekzioak egiteko tresna gisa ere. Baina, oso gutxitan hartzen dira kontuan haiei buruzko hizkuntza politikak eta plangintzak diseinatzerako garaian. Helduok ere, gazteak euskaldundu beharreko elementutzat ditugu, euskara biziberritzeko agente baino gehiago.

Edonola ere, argi dago gazteei buruzko erabakiak hartu behar diren guneetan, gazte kulturei eta gazteen eguneroko praktikei buruzko ezagutza sakona behar dela. Beharrezkoa da ulertzea gazteek egiten dutena zergatik egiten duten, egiten dutenaz zer pentsatzen duten, eta egiten dutena egitean nola sentitzen diren, haien praktikak aldatu nahi baditugu. Horretarako metodologia etnografikoa ulermen bide emankorra izan daitekeelakoan gaude, alde batetik. Eta bestetik, ezinbestean uste dugu gazteak beraiek izan daitezkeela informazio iturri egokiena ezezik, haien errealitatea interpretatzeko eta haien errealitatean eragiteko bitartekari. Etorkizuneko ikerketetan bezalaxe hizkuntza plangintzen diseinuan eta inplementazioan.

Ez dago ardurarik erabakimenik gabe. Ez eta alderantziz ere.



ERREFERENTZIAK

Altuna, Olatz & Hernández, Jone Miren (2021). Gazteak euskararen eszenatokian: erabile-
raren auzia. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (120), 29-45.

Amezaga, Josu (2018). Euskarazko kulturaren kontsumoa ulertu nahirik. *Jakin*, (226), 39-64.

Arana Arrieta, Edorta; Narbaiza Amillategi, Beatriz & Iriarte Mendiola, Jon (2020). Gazteek
gustuko dituzten ikus-entzunezkoak. In L. Mimenza Castillo (Ed.), *Euskal Hedabideen
Urtekaria 2019* (159-182). Euskal Hedabideen Behategia.

Artetxe, Miren (2022). *Hizkuntza ibilbideak, gazte identitateak eta legitimazio prozesuak: Ipar
Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen bizipenak aztergai*. Euskal Herriko Unibertsitatea,
Argitalpen Zerbitzua.

Berio-Otxoa, Kontxesi; Hernández, Jone Miren eta Martínez, Zesar (2003). *Gaztetxoak
eta aisialdia: etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu
Nagusia.

Bucholtz, Mary (2000). Language and youth culture. *American Speech*, 75(3), 280-283.

Del Amo, Ion Andoni (2017-2018). Hainbeste ahalegindu behar naiz euskalduna izateko?
Euskal(dun)tasuna(k) aztertzen. *Anuario de Eusko-Folklore: etnografía y paletnografía*, 52,
71-95.

Eusko Jaurlaritza (2018). *66. euskal soziometroa - kultura*. Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza (2020). *VI Mapa Soziolinguistikoa*, 2016. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen
Zerbitzua.

Hernández, Jone Miren & Altuna, Jaime (2017). Gazteak euskararen jolastokian, in *Euskara-
ren biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Udako Euskal Uniber-
tsitatea (UEU): 53-70.

Hernández, Jone Miren & Altuna, Jaime (2020). Gazteak eta euskararen erabilera: egin
gabeko galderak. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(65), 445-479.

Hernández, Jone Miren & Santamaría, Ainara (2021). Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 53(132), 349-374.

Ibáñez, Jesús (1992). *Más allá de la sociología: el grupo de discusión: teoría y crítica*. Siglo XXI.

Pujolar, Joan, & González, Isaac (2013). Linguistic 'mudes' and the de-ethnicization of language choice in Catalonia. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2), 138-152.

Siadeco (2017). *Elkar Taldea eta Euskal Herriko irakurketa eta musika ohituren azterketa*. Elkar.

Soziolinguistika Klusterra (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*. Soziolinguistika Klusterra.

Velte, Samara (2020). Oñati's youth facing the armed conflict: Analysing the discourses of the first post-conflict generation. *Oñati Socio-Legal Series*, 10(3), 616–641.

Velte, Samara (2022ko irailaren 26-29). *Exploring the role of context models in memory -building: the completion of informative voids and the re-organisation of narratives in second-hand memories* [aurkezpenaren laburpena]. Information Seeking in Context (ISIC), Berlin, Alemania.

Woolard, Kanthryn (2016). *Singular and plural: Ideologies of linguistic authority in 21st century Catalonia*. Oxford University Press.

Zabala, Josune (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea. Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Eusko Jaurlaritzako Soziolinguistika Klusterra.

Hainbat gogoeta-ildo proposatzen dizkigu Miren Artetxek liburu honetan. Besteak beste dio gazteekin izandako eztabaidetan argi gelditu dela gazteen ingurunean euskarak leku gutxi duela. Askorentzat, eskolan baino hitz egiten ez den hizkuntza omen da euskara, eta eskolan ere gutxi. Urteak aurrera joan ahala, eskolako eta etxeko harremanek erreferentzialtasuna galtzen omen dute, eta aisialdiak indarra hartu. Hau da, etxetik eta eskolatik kanpo gertatzen dena zentrala bihurtzen da haien bizitzan. Mirenen esanetan, familia (etxean euskaraz egiten dutenen kasuan) eta eskola (euskaraz ikasten dutenen kasuan) badira hein batean zurrakaitz, euskarazko hizkuntza praktikak garatzeko. Baina ez dira inondik inora aski. Ez omen du inork ukatzen euskararen biziberritze-prozesuan gazteak gako direla, baina oso gutxitan hartzen omen dira kontuan haiei buruzko hizkuntza-politikak diseinatzerakoan. Honela dio: "Helduok ere, gazteak euskaldundu beharreko elementzat ditugu, euskara biziberritzeko agente baino gehiago". Hor dugu, beraz, gakoetako bat, gazteen hizkuntza-ohituretan eragiteari dagokionez.